

20 URTE ZUEKIN. goiena



ESKOLARA ITZULERA LASAIA ETA GORABEHERA NABARMENIK BAKOA

Hasierako zalantzak eta kezak gaindituta, segurtasun neurriak ahalik eta zorrotzen betez, hasi dute ikasturtea Debagoiengan / 2



Bergarako San Martin Agirre Herri Eskolako neska-mutikoak, eguaztenean, eskolan, hainbat unetan. XABIER URZELAI



Turista kopurua erdira jaitsi da udan Oñatin eta egonaldiak laburragoak izan dira ostatuetan / 35

Ane Zuazubiskar eta Oihana Arana onenak bertsolari gazteen Lizardi Sariketan, Zarautzen / 40



SINADURAK	
	MIGUEL LAZPIUR / 23
	AITOR BIAIN BIDARTE / 8
	HORAZIO ARGARATE / 35
	JULEN ABASOLO / 16
	AINZANE OIARBIDE / 48

Manu Diaz: "Euskal selekzioaren alde lan egin behar dugu nazioartean lehiatu ahal izateko" / 38

+  Fagor Taldeko presidente Joxean Alustizari elkarrizketa

Bailarakoen filmak, euskal zineman mugarri

2mó
graduatu
erreflexuen aurkako lenteekin
99€

2020/12/31n arte baliagarria. Ezin da beste promozio batzuetan murriztu.



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS

www.multioplicas.com



Bergarako Aranzadi Ikastolako ikasleetako batzuk lanean hasita daude astelehenaz geroztik. XABI URZELAI

Ekin diote ikasturteari, neurri guztiak ahalik eta ondoen betetzen saiatuz

Astelehenaz geroztik lanean ari dira ikasle gazteenak. Debagoieneko Ospitalean berriro ari dira kutsatuak artatzen; atzora arte, hiru pertsona ingresatu dituzte. Ertzaintza eta Udaltzaingoa herritarrek maskara eraman dezaten ari dira lanean

Maialen Santos ARRASATE

Astelehen honetan bertan ekin diote 2020-2021 ikasturteari Euskal Autonomia Erkidegoko 370.000 ikasle inguruk; tartean, Debagoieneko ikastetxeetako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek eta DBHko lehen eta bigarren mailakoek. "Ikasturtea hasteko gogotsu" azaldu dira bilarako ikasleak, eta zenbait gurasok azaldu dute euren seme-alabek eskolara itzultzeko "beharra" zutela; besteak beste, ikaskideekin harremana berreskura dezaten. Hala eta guztiz ere, guraso askok aitortu dute "kezkatuta" daudela eta "ziurgabetasunez" bizi dutela ikasturte hasiera, aurreantzean sor daitezkeen "ezohiko" egoerengatik. Edozelan ere, segurtasun neurri guztiak "aha-

lik eta ondoen" betetzen saiatuko direla aitortu dute haur, guraso zein irakasleek.

DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleek astelehenean hasiko dute ikasturtea; eta batxilergoak eta Lanbide Heziketakoak, berriz, irailaren 14tik aurrera bueltatuko dira ikasgeletara.

Unibertsitateari dagokionez, Mondragon Unibertsitateko Oñatiko Campuseko Enpresagintza Fakultateko ikasleak irailaren 16tik aurrera hasiko dira ikasgelara itzultzen. Gradu edo ikasketaren arabera egingo dute itzulera hori, baita mailaka ere. Huheziko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduatuko ikasleek, ostera, irailaren 28an hasiko dute ikasturtea, Eskoriatzako campusean. Ikus-entzunezko Komunikazio-

ko ikasleen kasuan, hilaren 14an hasiko dira, Aretxabaletan.

LAB, ELA, Steilas, CCOO eta UGT sindikatuek hilaren 15erako, martitzena, greba deitu zuten, joan den egunean "eskolara itzultzeko Jaur-laritzak proposatutako neurrietan langileak aintzat hartzen ez direla" eta protokoloa eratzeko prozesuan Hezkuntza Sailak beraiekin "bilerarik egin nahi izan ez duela" iritzita. Ikasle Abertzaleak antolakundetik ere greba deitu dute egun bererako, lehenagotik existitzen ziren arazoak pandemiak "areagotu" egin dituela diote eta. Antolakundeko kide Eneko Kortabarriak azaldu duenez, hezkuntza komunitateko kideek sufritzen dituzte "arazo horien ondorioak". Gauzak horrela, unibertsitateko, Bigarren

Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikasleak deitu gura dituzte grebara, zera eskatzeko: batetik, ikasle langileentzat hezkuntzara sarbidea "bermatuta" egon dadila; bestetik, ikasketen telematikoak eragin ditzakeen "zailtasunek" ez dezatela ikasketen prozesua "oztopatu"; eta, azkenik, hezkuntza esparruan lan politikoak burutzeko "bermeak" egon daitezela. Horiek eskatzeko, mobilizazioak egingo dituzte EAEko hiru hiriburuetan, Ibaeta, Sarriko eta Elurreta campusetatik hasita, 11:00etan.

Martitzen honetan eratu dute Eusko Jaur-laritzak berria, eta, beraz, sailburu berriak izendatu. Joan den egunean greba deituzterako orduan Cristina Uriarte zen Hezkuntza sailburua, baina martitzen honetan Jokin Bildarratzek hartu du kargu hori. Gauzak horrela, sailburu berriarekin bilera egin zuten atzo sindikatueta ordezkariek, eta Josu Erkoreka Eusko Jaur-laritzako bozeramaileak adierazi zuen Bildarratz "bere esku dagoen guztia" egiten saiatuko zela ordezkariekin hitz egin eta martitzeneko greba "bertan behera" gera dadin.

GOIENA aldizkari honen itxiera ordurako oraindik ez zegoen bilera horrek emandakoaren berririk.

KORONABIRUSAREN HEDAPENA

AZKEN ASTEAN 54 KASU POSITIBO BERRI BAIEZTATU DITUZTE DEBAGOIENEAN

COVID-19 kasu positibo gehiago hautematen jarraitzen du Jaur-laritzako Osasun Sailak egunetik egunerari; baina datuetan oinarritutako goranzko edo beheranzko joera argirik ezin daiteke zehaztu.

Joan den egunetik atzora arte, 54 kasu positibo berri baieztatu dituzte Debagoienez; horietako 26 Arrasaten, 10 Aretxabaletan, 9 Bergaran, 7 Oñatin eta bina Eskoriatzan eta Antzuolan. Bestetik, aste osoa kontuan hartuta martitzenean erregistratu zen kutsatu kopururik altuena bilaran; zehazki, hamasei horietako erdiak, Arrasaten. Oro har, osasun krisia hasi zenetik 849 kutsatze baieztatu dira Debagoienez. Arrasate da gaitzak gehien astindu duen herria, ia 400 herritar kutsatu baitira da-

goeneko. Haren atzetik daude Bergara eta Oñati; ehundik gora kasurekin bakoitza.

EAEko datuei dagokionez, Eusko Jaur-laritzako Osasun Sailak eguaztenean aditzera emandako datuen arabera, azken astean 30 heriotza erregistratu dira. Egun berera arte, gainera, 233 pertsona daude ospitaleetan ingresatuta; horietako hiru Debagoienezkoan. ZIU dauden gaixoak 55 dira, bestalde.

Hori ez ezik, azpimarratzekoa da egun batzuetan oinarritzko birsorkuntza-tasa zero azpitik kokatu den arren, azken bi egunetan batetik gorakoa izan dela; zehazki, eguaztenean 1,04koa zen EAEn. Horrek esan gura du, batez beste, kutsatutako pertsona bakoitzak beste bat edo gehiago kutsa ditzakeela.

Gipuzkoako adinekoren egoitzak gogor astindu zituen koronabirusak, eta hildako eta gaixo ugari utzi zituen osasun krisia hasi zenetik uztaile bitartean. Hain justu, uztailearen 3an sendatu zen Gipuzkoako azken adinekoa -Aretxabaletako GSR Debagoieneko egoiliarra-, eta hilabete batean ez zuten positibo berririk erregistratu. Abuztuaren 11n, baina, kasu positibo berri bat hauteman zuten Gipuzkoako egoitzetan, eta ordutik eguazten honetara arte lau pertsona hil dira eta hiruk gaitzitu dute gaixotasuna. Horretaz gain, 53 pertsonak jarraitzen dute positibo emanda gaixorik;

Koronabirusa Debagoienez

	Positiboak azken astean	Positibo metatuak
Arrasate	26	395
Bergara	9	156
Aretxabaleta	10	110
Oñati	7	119
Eskoriatza	2	36
Elgeta	0	14
Antzuola	2	13
Aramaio	0	6
Gatzaga	0	0
GUZTIRA	54	849

ITURRIA: OSAKIDETZA

Donostiako Hermano Garate-San Ignacio egoitzan eta Alai-Etxen; Errenteriako Jesusen Bihotza egoitzan eta Hernaniko Santa Maria Magdalenan, hain zuzen ere.

Debagoieneko zahar etxeetara etorrita, eguaztenara arte ez dute koronabirus kasu positiborik hauteman.

LEINTZ GATZAGA, SALBUESPENA KUTSATURIK GABEKO GIPUZKOAKO ZAZPI HERRIETAKO BAT DA LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagak jarraitzen du izaten orain artean koronabirus kasu positiborik erregistratu ez duen Debagoieneko herri bakarra. Hori gutxi balitz, Gipuzkoa osatzen duten 88 herrietatik, koronabirusik ez duten zazpi herrietako bat da Gatzaga. Joan den astera arte bederatzi ziren garbi zeuden herriak; edozelan ere, Abaltzisketak eta Gabiriak azken egunetan erregistratu dituzte positiboak. Gauzak horrela, hauek dira koronabirus kasurik gabe jarraitzen dutenak, guztiak Tolosaldean eta Goierrin kokatutako herri txikiak: Balarra, Beizama, Zerain, Gaztelu, Larraul eta Orendain; eta Leintz Gatzaga, noski.

Eugenio Otxoa Leintz Gatzagako alkateak adierazi du koronabirusa herrira iritsi ez izana "etxeko lanak" egin izanaren adierazle dela. Are gehiago, uste du orokorrean neurriak "ondo betetzen" ari direla herritarrek. "Guk ere hartu ditugu neurriak; eta, esaterako, Udalarenak diren eraikinak itxi egin genituen hasieratik", dio. Hala ere, aitortu du herri txikia izatea "abantaila" ere izan daitekeela: "Biztanle gutxiko herria gara, eta gutako asko baserrietan bizi da. Horrek elkarrengandik banatua egoten laguntzen digu".

DEBAGOIENENKO OSPITALEA HIRU KORONABIRUS GAIXO ARTATZEN ARI DIRA ASTELEHENAZ GEROZTIK

Apirilaren 27az geroztik ospitale garbia –ingresatutako koronabirus gaixorik gabekoa– izan da Debagoieneko Ospitalea. Astelehen honetatik aurrera, baina, berriro hasi dira birusak

kutsatutakoak artatzen. Ospitaleko zuzendaritzatik adierazi dute eguenera arte hiru direla bertan ingresatuta dauden pertsonak; hirurak ere, 80 urte ingurukoak, eta aurretik "beste patologia batzuk" dituztenak. Gaixoen osasun egoera "egonkorra" da, edozein modutan.

Hain zuzen, ospitaleak azaldu dute "nahiko egonkor" dauden gaixoak hartuko dituztela aurrerantzean ere; izan ere, norbaitek zainketa berezirik behariko balu, Gasteizko Txagorritxuko Ospitalera bideratuko lukete, "hori baita Debagoieneko Ospitaleak duen lotura zuzena".

Bestalde, lehen egin zuten moduan, ospitaleko hirugarren solairua atondu dute birusa dutenak zein susmagarri izan daitezkeenak hartzeko; eta, gainera, segurtasun neurriak "zorrotu" dituzte ospitale osoan. "Kontsultetara bakarrik etortzeko gomendioa ematen diogu jendeari", azaldu dute. Era berean, koronabirusaz aparteko arrazoiengatik ingresatuta daudenen kasuan, bisitari bakarra hartu dezakete orain: "Eta hobe bisitan datorrena beti pertsona bera bada". Hori gutxi balitz, ospitaleko langileek ere euren segurtasunerako "neurri guztiak" hartu dituzte, eta garbiketa eta desinfekzio lanak areagotu egin dituzte ospitale osoan.

SALAKETAK ETA ABISUAK 50 SALAKETA PROPOSAMEN JARRI DITU ERTZAINZAK AZKEN ASTEETAN

Bergarako ertzain etxetik GOIENARI azaldu diotenez, "maskara ez erabiltzeagatik" salaketa proposamen ugari jarri dituzte uztailean eta abuztuan Debagoienean; zehazki, 19 Arrasaten, 14 Elgetan, 10 Bergaran eta bana Oñatin eta Antzuolan. Elgetako kasuan zehaztu dute, gainera, 13 lagunekoko talde bat topatu zutela "elkarrekin" eta "maskararik gabe". Horretaz gain, botila festa egiteagatik lau salaketa proposamen jarri zituzten bi hilabete horietan Antzuolan, eta beste bat Arrasaten. Maskara jarrita ez eramateagatik jarritako isunak 100 eurora artekoak izan daitezke, eta botila festa egiteak dakarren isuna "udal bakoitzaren arabera" dela azaldu dute. "Hala eta guztiz

ere, guk salaketa-proposamenak jartzen ditugu, eta gero, Eusko Jaurlaritza arduratzen da salaketa gauzatu eta isunak zehazteaz", argitu dute.

Bailarako herrietako udaltzainek, berriz, azaldu dute azken hilabeteetan "ohartarazpen ugari" egin behar izan dituztela, "gehienetan, herritarrei maskara jartzeko eskatuz". Hala ere, azken asteetan geroz eta ohartarazpen gutxiago egiten ari dira, "neurriak jarri zirela aste batzuk pasa diren heinean, jen-

dea neurriak barneratuz doalako, pixkanaka". Aretxabaletako udaltzainek adierazi dute batik bat tabernetako terrazetan maskararik gabe zegoen jendea ohartarazi dutela, eta Eskoriatzako udaltzainek ere gisa horretako 50 abisutik gora eman dituzte: "Jendeak terrazan dagoela aprobetxatzen du behar baino denbora luzeagoan maskara erantzita izateko", azaldu dute. Bergarako eta Oñatiko udaltzainek aitortu dute "lan pedagogikoa" egiten saiatu di-

rela azken hilabeteetan, baina behin abisua emanda jaramonik egin ez duen jendea salatu egin behar izan dutela, "ezinbestean". Hala, Oñatin 30 salaketa inguru jarri dituzte uztailean eta abuztuan –gehienak uztailean izan dira– eta Bergaran, aldiz, identifikatu dituzten pertsona guztien %10 inguru salatu dituztela azaldu dute Udaltzaingotik. Arrasateko Udaltzaingorari lotutako datuak, azkenik, hilabete amaieran emango dituzte aditzera.

**Zure bizitza
EUSKARAZI!**

Euskaraz hasi + Euskaraz hazi = Euskaraz bizi.

UDAL EUSKALTEGIAK
Matrikula epea zabalik

BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA Bidebarrieta, 18 Oñati. Tel.: 943 78 24 96 euskaltegia@onati.eus	ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA Arimazubi plaza, 2. Tel.: 943 79 70 77 euskaltegi@arrasate.eus	BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA Barrenkalea, 33 (Irizar jauregia). Tel.: 943 76 44 53 euskaltegia@bergara.eus	LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA Nafarroa 2 - Aretxabaleta Inbaurbozela 9 - Eskoriatza 943 79 21 68 idazkaritza@udaleuskaltegia.eus
---	---	--	--



Eli Berridi, Arizmendi-Almen Ikastolako bere ikasgelan. ARIZMENDI



Miren Elorza zuzendari akademikoa, Elkar Hezin. XABI URZELAI



Esti Rodriguez, Arrasate Herri Eskolako Erguingo jangelan. E.A.



Juan Luis Markaide, Luis Ezeiza ikastetxeeko patioan. J.M.



Oscar Rodriguez autobus gidaria. E.A.



Ekhi Cabo, Antzuola Herri Eskolako sarreran. A.M.

Eneko Azurmendi ARRASATE

Jakina denez, COVID-19aren pandemiak baldintzatutako ikasturte hasiera izaten ari da aurten goa eta, ondorioz, hainbat neurri hartu behar izaten ari dira bailarako ikastetxeetan, birusaren hedapena eta kutsa-zaiek saihesteko helburuarekin. Ezohiko ikasturte hasiera hori nola bizitzen ari diren eta egunerokoan ze eragin izan duen jakiteko, hezkuntza komunitateko ordezkariekin harremanetan jarri da GOIENA.

ELI BERRIDI, ARETXABALETAKO
ARIZMENDIKO IRAKASLEA**"Elkarlanerako prestutasuna erakutsi dugu guztiok"**

Arizmendi-Almen Ikastolako irakaslea da Eli Berridi, eta, azaldu duenez, ikasturte hasiera "berezia" izaten ari da aurten goa. "Hala ere, ondo ari gara egokitzen guztiok", aitortu du.

Batez ere, pilaketak ekiditeko neurriak hartu dituzte ikastola hartan, horretarako taldekatze finkoak antolatuta. "Barruan gaudenean, ikasgela da elkarbizitza talde handiena. Dena den, saiatzen gara daukagun kanpo espazioa gehiago aprobetxatzen eta ahal dugun guztia kanpoan egiten. Jolastordurako, Lehen Hezkuntzan, hiru eremutan dau-

Hasierako kezkek eta urduritasunak lasaitasun bilakatzen doaz apurka

2020-2021 ikasturtearen hasiera hezkuntza komunitate osoari eragiten ari zaio, inoiz baino bereziagoa izaten ari delako; hala, zuzendariak, irakasleak, ikasleak, gurasoak, jangeletako monitorea zein autobus gidariak egoera berrira egokitzen hasi dira jada

kagu antolatuta kanpo espazioa, ziklo bakoitzak bere eremua izan dezan". Horretaz gain, etengabe eskuak garbitzen ari dira, xaboiarekin edo gelarekin. "Barruko espazioak une oro aireztatzen ditugu eta ikasleen sartu-irtenak ikasgelara antolatuta ditugu, irakasleekin igo eta jaitsiz", azpimarratu du.

Egunerokotasunean gerta daitezkeen egoerak aurreikustea izan da zailena, Berridiren esanetan: "Batez ere, ikasleak etorri aurretik dena prestatzea, hain denbora tarte laburrean. Eskolak hasi ostean, berriz, elkarlanerako prestutasuna erakutsi dugu bai ikasle, familia zein ikastolako profesionalok, eta horrek bidea errazten du".

Irakasleak dio ikasleak oso ondo moldatzen ari direla, orokorrean. "Sei hilabeteren ostean, batzuk urduri etorri dira eta beste batzuk, gogotsu, eta, hainbat neurri barneratuta, gainera, musukoaren erabilera, esaterako", adierazi du Berridik.

MIREN ELORZA, OÑATI
ELKAR HEZIKO ZUZENDARI AKADEMIKOA
"Komunitate izaera nabarmen gelditzen ari da egunotan"

Ikasturte hau prestatzeko inoiz baino ardura gehiago izan dela dio Miren Elorza Oñatiko Elkar Heziko zuzendari akademikoa. "Ikasturtea hasi aurre-

ko egunetako ziurgabetasunaren eta izango zenarekiko kezken ostean, lehen egunetan lasaitasuna gailendu da". Jakitun da, gainera, egoera aldakorra dela eta horrek egokitzeko beharra ekarriko diela. "Inoiz baino garrantzitsuagoa da oraingoan komunitate bezala jardutea, eta, momentuz, izaera hori nabarmen gelditzen ari da", azaldu du. Hala, ikasleak zein gurasoak "daukaten onena emateko" izaten ari diren "konpromisoa eta gogoia" azpimarratu gura izan ditu.

Hartu dituzten neurriei dagokienez, kanpoko espazioak orain arte baino gehiago erabiltzen ari direla eta erabiliko dituztela nabarmendu du Elorzak. "Horrez gain, ikasgela bakoitzaren

esleipena tamainaren eta ikasle kopuruaren arabera egin dugu. Ikasgeletako material edota jostailuak, bestalde, galbahetik pasatzen ditugu eta erabilera egokitu edo mugatzen dugu". Azkenik, sarrerak eta irteerak mailakatuta egiten dituzte, eta ikastetxe barruan ibiltzeko ibilbideak seinaleztatu. Ikasleek, gainera, tenperatura hartuta irteten behar izaten dute etxetik.

Elorzak dio irakasleentzat gogorra dela etengabe "distantzia" gogoratzen egon beharra. "Bai haurrek eta bai nerabe zein gazteek adinari dagokien behar afektibo-emozional propioak dituzte eta hauek, neurri handi batean, kontaktu fisikoaren bidez asetzen dituzte. Seguritasun arteak talsa egiten du behar horri erantzuteko moduarekin eta zaila da, batez ere, jolastorduetan, momentu oro kontaktu hori ekiditea", adierazi du.

Momentuz, ordea, dio ikasleek ondo barneratu dituztela ezarritako neurriak. "Gainera, kezka eta ziurgabetasunen artean, ederra izan da konturatzea hezkuntzaren, ikas-komunitatearen eta pertsonen arteko harremanak baloratzeke aukera paregabea izan dugula", zehaztu du. "Espero zitezkeen ikasle batzuek eskolara bueltatzea modu negatiboan ikustea, baina, momentuz, orokorrean, ilusioa eta eskolara itzultzeko gogoia sumatu dugu".

ESTI RODRIGUEZ, ARRASATE

ARRASATE HERRI ESKOLAKO ERGUINGO
JATETXKO MONITOREA**"Zaila da ume bat negarrez etorri eta ezin besarkatzea"**

Lehen egunetan kezka eta ezjakintasuna gailendu direla nabarmendu du Esti Rodriguez Arrasate Herri Eskolako Erguingo jatetxeko monitorea. "Ez genekien umeek nola jokatu zuten eta zenbateraino jakingo zituzten neurriak, baina hasierako egunak, behintzat, nahiko ondo joan dira".

Ikasleak taldeetan banatuta joaten dira jangelara, eta distantzia soziala mantendu behar izaten dute taldeen artean. Halaber, monitorea euren eraketa maskara jantzita eraman behar izaten dute une oro, eta eskuak sarri garbitu behar izaten dituzte, umeekiko distantziak mantenduz, ahal duten heinean. "Haiendako zaila da distantziak mantentzea, gertu egoteko ohitura dutelako. Halaber, guretako ere zaila da, esaterako, ume bat negarrez etorri eta ezin besarkatu ahal izatea".

Azkenik, aspaldiko urteetan eskatzen ari direna berretsi dute: ratioen jaitsiera. Azaldu dutenez, lehengo monitorea kopuruak mantendu egiten dituzte eta nabarmendu dute ikasleak taldeetan banatuta egonda are eta behar handiagoa dagoela monitorea gehiago kontratatzeko.

JUAN LUIS MARKAIDE, ESKORIATZA
LUIS EZEIZAKO IKASLE BATEN AITA**"Ez genekien nolako hasiera izango zen; orain lasaiago gaude"**

Xuban Markaide eskoriatzarrak Lehen Hezkuntzako bosgarren mailan hasi du ikasturtea, Luis Ezeiza ikastetxean, eta Juan Luis Markaide aitak aitortu du kezka eta beldur apur bat izan dutela orain arte: "Hasieran, kezka puntu bat geneukan, ea nolako izango ote zen ikasturte hasiera, baina, behin hasita, apur bat lasaiago geratu gara. Hala ere, birus hori hor dabil, eta, amona ere gurekin bizi denez, kontuz ibili behar dugu". Era berean, ardura azaldu du, semeak konfinatu beharra izanez gero nola kudeatu beharko luketen egoera. "10 urte ditu eta

emaztea edo ni etxean geratu beharko ginatke kasu horretan".

Eskoriatzako ikastetxeko ikasleek etxetik eraman behar izaten dute tenperatura hartuta, eta sartu aurretik berriz ere hartzen diete, eskuak garbitzeaz gain. Semeak aitortu du ez zaiola bategi zaila egin egoera berrira ohitzea. "Ondo moldatu naiz, inongo arazorik barik".

OSCAR RODRIGUEZ, ARRASATE
AUTOBUS GIDARIA**"Ikasle bakoitzak bere eserlekua dauka autobusean"**

Oscar Rodriguez autobus gidariak Arrasateko Herri Eskolara eta Kurtzebarrira eramaten ditu Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Arrasateko hainbat ikasle. "6 urtetik gorakoentzat derrigorrezkoa da autobusean maskara erabiltzea. Hala ere, 6 urtetik beherakoek gurasoei ere gomendatu diete maskara jantzi dezaten. Izan ere, ez du zentzu handirik batzuek erabiltzea eta beste batzuek ez. Hala, lehen egunetan bazeuden haur batzuk maskara barik, baina orain gehienek erabiltzen dute".

Horrez gain, ikasle bakoitzari eserleku bat esleitu diote, eta ikasturte guztian eseri beharko dute leku horretan. "Bestalde, guk eskuak garbitzeko gelak jarri ditugu bi ateetan, ikasleek eskuak garbitu ditzaten sarturten bakoitzean. Gainera, zerbitzu bakoitzaren ostean, autobusa desinfektatu behar izaten dugu gidariok: eskubandak, segurtasun-uhalak, eta abar. Ateak eta leihoak ere irekitzen ditugu, aire berria sar dadin. Alde horretatik, lan apur bat gehiago dugu orain".

Oraingoz, ondo erantzuten ari dira ikasleak, Rodriguezen esanetan. "Baina ikusiko dugu hementik aste batzuetara nolako jarrera izaten duten. Gu, behintzat, saiatzen gara bakoitza bere eserlekuan joan dadin, maskara jantzita eta segurtasun-uhalarekin, eta bidaia hasi aurretik esaten diet nola joan behar duten. Hala ere, behin martxan, ezin dut autobus guztia kontrolatu", onartu du.

Edukierari dagokionez, ehuneko ehuna bete dezakete autobusetan. "59 eserleku daude autobusean eta 50 ikasle inguru joaten dira egunero".

EKHI CABO, ANTZUOLA

ANTZUOLA HERRI ESKOLAKO IKASLEA

"Ondo egokitu naiz neurrietara, apur bat arraroa izan arren"

Antzuola Herri Eskolan ere txandaka eta mailakatuta sartzen eta irteten dira ikastetxera. "2 urtetik bigarren mailarainoko ikasleak ohiko orduan sartzen eta ateratzen dira, baina hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailetakook ordu

laurden lehenago sartzen eta ateratzen gara, patioetik, pilaketarik egon ez dadin. Ikasgelak antolatuta, bakoitza dagokion ilaran jartzen gara eta irakasleak gela ematen digu eskua garbitzeko, tenperatura hartzeaz gain, egunero. Denok prest gaudenean, ikasgelara igotzen gara ilaran", azaldu du Ekhi Cabok, bosgarren mailako ikasleak. Gainera, une oro maskara jantzita eduki behar izaten dute, eta eskuak sarri garbitu. "Irteterakoan ere ilarak egiten ditugu".

Ikasle antzuolarrak onartu du, halaber, "apur bat arraroa" izan arren "ondo" egokitu dela egoera berrira. "Zailena da denbora osoan musukoarekin egon behar izatea eta eskolan libre ezin ibiltzea, lehen bezala", azpimarratu du. Hala ere, nahiago du ikastetxera joatea klaseak online jarraitzea baino. "Eskolan lagunekin egoteko aukera dut eta lanak hobeto egiten ditut denok batera egonda, bakoitza bere etxean bakarrik egonda baino", nabarmendu du.



LANGILE ETA LANGABEENTZAT IKASTAROAK

%100ean DIRUZ-LAGUNDUAK

LEHENTASUNA: LANGILEEK IZANGO DUTE			
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
IKASTAROEN IZENAK		ORDUAK	DATAK
FMEM00550H	HIDRAULIKA	50	2020/09/28-2020/10/27
UF0879	PIEZAK TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ PIEZAK FABRIKATZEKO CNC PROGRAMAK EGITEA	80	2020/09/28-2020/11/12
FMEH00710H	SOLID EDGE II. MULTZOAK	30	2020/11/02-2020/11/17
FMEM00320H	3D INPRIMAKETA BIDEZKO EKOIZPENERAKO DISEINUA	15	2020/11/02-2020/11/09
FMEM00120H	CAM POWERMILL	40	2020/11/30-2020/12/22
UF0878	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEK. ERAGIKETATAN MIKINAK, TRESNERIA ETA ERREMINTAK PRESTATZEA. KONBENTSIONALA	80	2021/01/11-2021/02/25
FMEM00400H	NEUMATIKA	40	2021/01/11-2021/02/01
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA			
ENAE00050H	EGUZKI-ENERGIA: INSTALAZIO FOTOBOLTAIKOEN DINARRIAK	40	2020/09/21-2020/10/08
ELEE018P0	AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK	30	2020/10/05-2020/11/09
ELEQ00010H	ARDUINO	45	2020/11/02-2020/11/25
ELE100050H	S7 PROFIBUS	20	2020/11/30-2020/12/14
ELE100040H	S7 ETHERNET ETA PROFINET	30	2021/04/13-2021/04/28
GAITASUN ZIURTAGIRIAK (PARTZIALA) FMEE0108 FABRIKAZIO MEKANIKOKO ERAGIKETA OSAGARRIAK - LANGABEENTZAKO SOILIK			
MF0088_1	MUNTATZEKO ERAGIKETAK	180	2020/09/21-2020/11/02







Agirrebidea 2, - 20570 Bergara (Gipuzkoa)
Tef: 943899272 - ikastaroak@maltuna.eus

Arantzazuko Ama Birjina ez da bakarrik geratu

Ezohikoa izan zen asteazkeneko Arantzazuko Amaren Eguna; harrera ofizialik ez, erromesaldirik ez, ez eta bandaren kontzerturik. Hori bai, meza nagusia egin zuten, eta ia 400 lagun batu ziren, basilikaren lehen harria jarri zela 70 urte bete zirenean egunean

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arantzazuko Ama Birjinaren Eguna ezohiko irudia utzi zuen eguaztenean. Jende gutxiago eta ekitaldi edo harrera ofizialik ez, nahiz eta erakundeetako ordezkariak han izan ziren.

Oñatiarren oinezkoen erromesaldirik ere ez zen egon; hala ere, askok, ohiturari eutsiz, oinez egin zuten harako bidea. Oñatiko bandak Arantzazun egin izan ohi duen kontzertuak ere huts egin zuen. Edozelan ere, meza nagusia ia 400 pertsona elkartu ziren, maskarak jantzita eta elkarren arteko segurtasun tarteari mantenduz. Beraz, COVID-19ak eragindako



Fededunak eta ordezkari politikoak, Arantzazuko basilikan, eguaztenean. GOIENA

giro nahasiaren ginetik, Ama Birjina ez zen bakarrik geratu, eta fededunen berotasuna sentitzeko aukera izan zuen, modu apalagoan izan bazen ere. Gainera, ospakizunak bazuen balio erantsi bat, Ama Birjinaren Egunean jarri baitzuten egungo santutegiaren lehen harria, orain dela 70 urte.

Harrera ofizialik gabe

Harrera ofizialik ez zitzaizela egin aurten erakundeetako ordezkari; hala ere, bertan izan ziren, besteak beste, Oñatiko udalbatzako zinegotzi jeltzaleak, Eusko Legebiltzarreko presidente Barkartxo Tejeria eta Markel Olano Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusia.

Munilla ez zen etorri

Azken ordukoa ere izan zen. Jose Ignacio Munilla Donostia-ko gotzaina Arantzazura joateko zen meza esatera. Munilla, baina, ezin izan zen joan, eta Unai Manterolak zuzendu zuen meza. Izan ere, gotzainaren inguruko pertsona batek sukarra zuela ikusita, ez joatea erabaki zuen, badaezpada.



Manifestazioa, Bergarako plazan. GOIENA

Igor Gonzalez "espexxe politikak" hil duela salatu zuten Bergaran

Bere zeldan hilik agertu ostean, manifestazioa deitu zuen Bergarako Sortuk astelehenerako. Segurtasun distantziak mantenduz eta bi ilaratan banatuta egin zuten ibilbidea, Herriko Plazan amaituta. "Kondenaren hiru laurdenak beteta eta larriki gaitxo egonda" preso mantendu izana salatu zuten, eta "preso eta deportatu politikoen askatasuna" aldarrikatu zituzten.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukakdeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS

ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta halzeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



Iragarkia jami nahil baduzu, deitu 943 25 05 05 zentakira.

Erremedioa edo gaixotasuna

IULEN LIZASO ALDALUR
DEBAGOIENA

Noizbait euskal herritarrok jakin ahal izango dugu, 30 urteren bueltan, zein den argudio mediko-zientifikoa gure txorrotako urari fluoruroa gehitzeko eta gaur egun gizarte orokortasunerako eta eskola-eremuko haurrek maskarak erabili edo ez erabili beharra justifikatzeko, alderdi psiko-emozionaletik eta adierazkorretik baloratuta.

Eraginkortasun mediko-sanitariotik bere erabilgarritasun-kaltegarritasuna egiaztatzen duen dokumenturik handienetako bat da Ulrike Bitz-ek Municheko Unibertsitate Teknikoko Anestesiologia Institutuan egindako hitzaldia, bere doktore-tesia azalduta: karbono dioxidoaren

arnasketa, maskara kirurgikoak aho-babesle higieniko gisa erabiltzen dituztenean profesional medikoek. Municheko Unibertsitate Teknikoak kalifikazio gorena eman zion tesi sarituari, eta 2005a ezkerer Alemaniako Medikuntza fakultateetan lan egiteko oinarri gisa erabili da.

Ondorioztatu zuenez, arnasketa asimilazio/ezabatze metabolismoaren funtsezko zatia denez, ziklo bakoitzean jasotako karbono berotuaren eta oxigenoaren dioxido kopuruaren arteko koefiziente naturala 1 baino txikiagoa da. 1etik zenbat eta gehiago urrunduta, orduan eta gehiago murrizten dugu gure immunologia-sistema, eta birus patogenoen aurrean zaugarri bihurtu.

Ebakuntza-gelan maskara erabiltzerakoan: "Kirurgia-maskarak erabiltzen direnean, ez dago CO2

mugarik gabe goraipterik. Hori dela eta, CO2a metatu egiten da maskararen azpian". Hau guztiau, gazte-heldu eta batez beste ordu baterako... Egun guztirako bada eta adin nagusikoentzat?

Ondorioztatu zuenez, arnastutako airearen tenperatura 5 gradu igotzeak eta maskarak eragindako hezetetasunak (%16) berriz hazteko gai diren germen patogenoak metatzeko habia ezin hobea egiten dute maskara, eta, gainera, oxigeno dosia –hipoxia– jaisten dute. Ondorioz, odolean CO2aren ezohiko gehikuntza sortzen da, azidoteria, eta estres zelularra eta arnas maiztasunera eramaten duen hiperkapnia sortu.

Horrenbestez, erantzun zehatzak behar ditugula eta, kontzientzia mugitua duen edozein talde politikotatik nahitaezkoa da gure agintariei eta Eusko

Legebiltzarrean bi galdera hauek luzatzea.

Ona, txarra, txarragoa eta onartezina

JOSU GARITAONANDIA
'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Ontzat har dezakegu aurten Debagoienera lan istripuetan ez dela hildakorik egon; izan ere, azkena 2019ko ekainean Leintz Gatzagan izan zen: 36 urteko gaztea, etxetik lanerako joan-etorrian.

Txarra da aurten hildako gehiago egongo direla lan istripuetan iazko urtearekin alderatuta, Euskal Herrian.

Txarragoa da Zaldibarko istripuan gertatutakoa: urte erdi pasa eta gero, oraindik gorpurik azaldu ez, eta istripuaren ondorioz sortutako keak Debagoienera arnastu genituela eta oso zaila izango dela jakitea gure osasunean izan duen eragina.

Onartezina da erakunde publikoen borondate kaxkarra Zaldibarko istripu larri hura argitzeko; nire animo beroenak Zaldibar Argitu taldekoei.

Historiari begirada bat eginda, orain dela 100 urte pasatxo *Titanic* urperatu zenean, inork ez zuen espero horrelakorik gerta zitekeenik, gaur egungo istripuetan gertatzen den bezala, baina neurri zorrotzak hartu ziren berriro horrelakorik gerta ez zedin.

Bestalde, irailaren 11ko urteurrena dator. Dorre bikietan, garbitzaile batek zeuzkan ate guztiak irekitzen zituen giltza, ehunka pertsona salbatu zituen; kontua da giltza hura lan istripu baten ondorioz eman ziotela langileari.

Horrenbestez, hortxe bertan dago frogara; izan ere, ondo hartutako neurriak uste baino sufrimendu gehiago saihesten ditu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



ZABALIK

AITOR BIAIN BIDARTE

Abesbatzak seguruak dira

Une zailean gaude. Badakigu. Etapa nahasia eta zalantzarik beterikoa bizitzen ari gara eta kontziente gara. Zaindu eta babestu egin behar dugu/gara koronabirusaren aurrean. Guztiz ulergarria eta beharrezkoa da, baina utz ezazue kultura bakean!

Dagoeneko hiru hilabete baino gehiago dira alarma-egoera amaitu zela. Eta, normaltasun berri/arraro honetan ia denak zentzua hartu duenean, kultura beti geratu da gainerakoen atzetik.

Kontrolatutako ekitaldiak egiten dira, segurtasun distantziak, maskara, gel hidroalkoholikoaren erabilera... guztia kontuan izanez. Ikus-entzuleak kultura gosez daudela erakutsi dute/dugu, ohitura berriak denbora laburrean barneratuz: ordurako joan, presarik ez izan, antolatzaileen esanei kasu egin... Artistak ere ohitzen hasi dira

GUK ERE EGUNEROKOTASUNERA ITZULI NAHI DUGU, NEURRI BERRIEKIN BADA ERE

nabarmenean sartuta dagoela esan daiteke. Eta, nirea den gremioan, mundu koralean, krisi hau nabariagoa da.

Kantatzea segurua da koru batean? Erantzuna garbia da: beste edozein jardura bezain segurua da, prebentzio-neurri egokiak hartzen badira. Abesbatza batzuek hilabeteak daramatzate entseatzen, askok kontzertuak eman dituzte, eta ez dira kasu berriak atzeman. Funtsean, egokitzean dago kokka. Zuzendariok sormena dugu lagun, eta, indargune hau aprobetxatuz, kantatzeko modu berriak sortzen saiatzen gara. Guk ere egunerokotasunera itzuli nahi dugu, neurri berriekin bada ere, eta erakunde askok egin dugu horren alde. Neurri horiek *pecata minuta* baitira gure grinarekin gozaten jarraitzearen aldean.

Horregatik, abeslari zein zuzendari, ez dezagun gure pasioa alde batera utzi; erantzukizunez, posible delako gure belarriak, auditoriumak, elizak... musikaz -kulturaz- betetzea.

auditoriuma beteta ez ikustera. Baina, hala ere, oraindik zalantza jartzen da kultura arriskutsua ote den. Eta hori guztia kultur talde askoren mehatxua da. Berriz martxan jarriko ez diren taldeak izango dira, eta, ondorioz, kultura krisi

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Bakardadea

ANDONI EGAÑA

HTTPS://LABUR.EUS/HZIMB
'BERRIA'-N ARGITARATUA

"Badakik ni Euskal Herrian zer izan nintzen. Jainkoaren hurrena ia. Eta ia-ia neuk ere sinetsi nian...".

1982. urtea zen eta hala hasi zitzaion Manuel Uztapide, Oiartzungo bere etxera ezkontzarako gonbita eramatera joandako gazteari.

Ba al zekien zein zen halako.

Baietz.

Eta beste halako eta halako?

Baietz, ezagutzen zituela haiek ere.

"Jakingo duk orduan ze desastre kuadrilla den. Ba, sinisten al duk orain haiek etortzeko desiratzen egoten naizela baxoerdi batzuk hartu eta kontu batzuk esateko?".

Orduan gazte zen hari ez zaio sekula ahaztu bertsolariaren aitortpen umil bezain sentitua.

Paradoxa hutsa zen, gainera.

Manuel euskal sukalde gehienetan sartua zen irriaren bidez edo aurrezki kutxa baten eskutik paretan zintzilaturiko egutegiko argazki hedatu hura tarteko.

Berera, baina, ez zitzaion nahi hainbat lagun

hurbiltzen zahartzera egin zuenean.

Handik urtebetera hil zen.

Bakardadean ez. Bazuen familia bat eta inguru baten babes... Matia fundazioak egin berri duen ikerketa baten arabera, edadeko pertsonen %5,5ek bakarrik sentitzen direla aitortzen omen dute.

Baina kopurua %29ra igo omen daiteke aitortu ez arren, zeharkako galderen bidez hala adierazten dutenak aintzat hartuta.

Borreroak bezala, bakardadeak baditu mila aurpegi.

Ahoak ez hainbeste.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia

Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika

Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),

Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,

Amalia Martínez de Arenaza,

Maite Igartua.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,

Amalia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05

Telegram eta WhatsApp:

688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen

aldizkari honetako orrialdeetan

kolaboratzaileek adierazitako

iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatikoko Udala



Arebaleteko Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Haur sahararren muturreko egoera arindu egin behar da"

AITZIBER OSA BUBISHER ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Uxue Igarza Loiola BERGARA

Udako oporraldian urtero etorri izan dira haur sahararrak Euskal Herrira, baina aurten, pandemiak eraginda, erabaki "mingarria" hartu, eta Oporrak Bakean programa ezin izan da egin. Egoera inoiz baino larriagoa den honetan, ordea, Euskadiko Saharar Ordezkaritzak kanpaina bat abiatu du: *Zuek ezin baduzue etorri, gu joango gara!*

Bergarako Bubisher elkarteak hasi da dagoeneko martxan. **Zer eramango duzue Saharara?** Udan etortzen diren haurrek eramaten dituzten gisako 300 maleta eramatea da asmoa, eta horretarako ezinbestekoa izango da herritarron ekarpena. Alde batetik, 9 eta 12 urte arteko haurrentzako neguko arropa jasotzen ari gara, eta baita eskolako materiala ere. Baina, bestetik, COVID-19ari aurre egiteko materiala ere batuko dugu: eskularruak, gel hidroalkoholikoak, era



Aitziber Osa, eguaztenean, Bergaran. ENEKO AZKARATE LASPIUR

guztietako maskarak eta paracetamol. Oso garrantzitsua da. Haurren osasun-txostenak ere bidali ditugu, hango profesionalak hemen hasitako tratamenduei jarraipena eman ahal izateko.

COVID-19ari dagokionez, zein da kanpamentuetako egoera?

Ondo hasi ziren, isolatuta zeuden eta ez zegoen kasurik, baina egoera lasaitu, eta 29 kasu daude orain. Dena den, ia 200.000 lagun daudela

kontuan hartuta, zenbatekoa adierazgarria da. Halere, ikusi behar da zein den gaitzaren bilakaera, kanpamentuetan ez baitago bitarteko nahikorik. Profesionalak eta baliabideak behar dira.

Badago norberaren aletxoak jartzeko beste modurik?

Bai; kontu korronte bat jarri dugu ekarpen ekonomikoak jasotzeko: ES04 3035 0009 13 00091113300. Batutakoa Enfermeros Sahara elkartearantzako izango da. Batez ere, kanpamentuetan konfinatuta daudenei janaria bermatzeko da dirua.

Pandemiak bestelako laguntzak ere etetea eragin du, ezta?

Bai, hala da. Euskal Herrian egin zen janari-bilketan jasotakoa Alacantara bidean zen, bertan itsasontzia hartu eta Saharara iristeko. Baina pandemia dela-eta oraindik trailerrak han daude, geldi, eta ez gureak bakarrik: Estatu osoan jasotakoa dago han zain. Ez dakigu noiz iritsiko den. Egoera zaila da, eta inoiz baino garrantzitsuagoa da gure aletxoak jartzea.

Noiz eta non izango da ekarpenak egiteko aukera?

Zapatu eta domeka honetan, hilak 12 eta 13, Bergarako merkatu-azokaren atzeko sarreran egongo gara, 11:30etik 13:00ak arte.

HAU BE BADOGU!

Euskaldunen presentzia Tourrean



Bitxia badirudi ere, egunotan Frantziako Tourra jokatzeko ari dira. Euskal zaleen presentzia handia egon da errepide bazterretan eta euskaldunak lan txukuna egiten ari dira tropelean:

@_mikel: "Epe motzean agian ez gara taldearekin Tourrean egongo, baina bide bazterretan euskal afizioa zain izango da laster gure txirindulariak bertan ikusteko".

@ioritzm: "Ion Izagirre erori egin da eta lepaustaia apurto du! Animo Ion!".

Moriako ezbeharra hizpide izan da

Lesbosko errefuxiatuen kanpalekuan izan den sutea *trending topic* izan da txiolariek euskaldunen artean:

@aneirazabal: "Lesboseko herritarrek #Moria-ko sarrerak itxi dituzte. Falta zena...".

@AlaitzBG: "Migratzailea izatea eta Morian egotea gutxi balitz...".

@carrerejoxemari: "Aurretik tragedia humanoa zena, are tragikoagoa bihurtu da. Humanitatearen aldeko aldarria ezinbestekoa da!".

Ez-jaiak, 'trending topic' irailan ere

Uda hasieran eta oporraldian hainbeste entzundako #ezjaiak kontzeptua berriz ere erabiliaren artean egon da asteon, irailako ospakizunei begira:

@Amaia620: "Ba al dago pandemia garaian eraikitako #ezjaiak kontzeptua baino maltzurragorik?".

@estiloliburua: "Zein izan da abuztuko hitza edo esamoldea? Gure ustez, hauxe: 'ez-jaiak'".

@ileluzueak: "Nork bultzatu gintuen ez-jaiak ospatzera?".

ITURRI ONETIK

Euskaraldia, zuzenean, Seminarixotik

Euskaraldian *ahobizi* eta *belarriprest* izateko izen-ematea abiatuko da irailaren 24an –ariguneetakoa amaituko da 27an–, eta hori iragartzeko ekitaldia egingo du Topagunea. Bergarako Seminarixotik izango da eta Goiena telebistak zuzenean emango du –tokiko Interneteko plataformek eta Euskaraldiak ere bai, haien webguneetan–. Euskal Herri mailako ekitaldia izango da, EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko agintariekin. Euskaraldiaren abestia eta bideoklipa aurkeztuko dituzte.

ALBISTE IZAN ZEN

2005-09-09

Gandiaga topagunea inauguratu zuten

Gandiaga Topagunea inauguratu zuten, lau urteko obren ostean. Arantzazuko Amaren Egunarekin bat egin zuen ekitaldiak eta jendetza batu zen, eguraldia lagun. Zinta mozketan, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Jose Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusia, Andoni Gartzia Oñatiko alkatea... frantziskotarren buruekin –Joxe Mari Arregi– batera. Egun hartan bete zen Arantzazuko basilika berriaren 50. urteurrena.





Arrasate Musikaleko ikasle gazteak, maskara jantzita. JOKIN BEREZIARTUA

Aisialdiko jarduerak ere, egoera berrira moldatuta

Arlo horretako eragileak ikasturte berriari ekiteko gogoz daude, betiere, partaideen segurtasuna bermatzeko helburuarekin. Kirol eta kultur arloetako eragile gehienek prest dituzte neurriak; Txatxilipurdik, adibidez, datorren astean jakinaraziko ditu xehetasunak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Ikasturte berriaren atarian asko hitz egin da ikastetxeek COVID-19aren testuingurura egokitzeke hartu dituzten neurriei buruz. Baina ez dira bakarrak izan, gazteentzako aisialdi aukerak eskaintzen dituzten eragileak ere esfortzu handia egiten ari baitira egoera konplexu honetara egokitzeke.

Kultur taldeak

Arrasate Musikalen 500 eta 600 ikasle artean dituzte eta aste honetan bertan hasi dira eskola presentzialekin. Ekainean hasi ziren banakako eskola presentzialak eta telematikoak uztaizten, eta orain, guzti-guztiak

presentzialak izango dira. "Ikasleren bat kutsatu eta etxean isolatuz gero, bidea aztertuko genuke klase telematikoak egiteko", azaldu du Edorta Aiausti koordinatzaileak. Eraikineraz sartzeko eta irteteko bi sarrera ezarri dituzte: ate nagusia eta Monterron aldeko sarrera. "Ikasleen erdiek sarbide bat erabiltzen dute eta beste erdiek, bestea". Hurrengo astean abiatuko dituzte talde entseguak; asko jota, dozena bat lagunekoak. Bandaren kasuan, ia 60 lagun dira, eta San Frantzisko elizan edo La Merceden entseatzeko aukera aztertzen dabilta.

Trikitixa Eskolan Maritxu Kajoi ostean hasiko dute ikas-

turtea eta jada COVID-19aren kalte ekonomikoak igarri dituzte. "Iaz, 130 ikasle inguru genituen, eta aurten, utzi dutenak eta berriak kontuan hartuta, 110 eta 115 artean izango gara", azaldu du Maixa Lizarribar irakasleak. Hona protokolo aldetik hartu dituzten neurrietako batzuk: eraikinean zehar oinez pasatzeko bideak markatu dituzte eta higieena zaintzeko gelak eta bestelakoak jarriko dituzte. Irakasleak ikasleen bila jaitziko dira, eta horiekin batera egingo dute ikasgelarainoko bidea. "Gela handiak ditugunez, ez dugu arazorik distantziak mantentzeko, eta 10 eta 12 laguneko taldeak edukiko ditugu".

Kirol taldeak

Kirol eragileen artean, Mondra da gaztetxo gehien kudeatzen dituen eragilea: 15 urtetik beherako 170 partaide inguru dituzte klubean. Klubeko hiru talde nagusiek jada hasi dituzte entrenamenduak, eta eurekin protokolo zorrotza aplikatzen ari dira. Aste honetan gazte mailakoak gehitu zaizkie, hurrengoan kadeteak, eta hala joango dira alebin mailara arte. Protokoloak honako neurri hauek jasotzen ditu: futbolariak taldeka banatuta sartuko dira instalazioetara, maskarekin eta distantziak mantenduz, zelaira sartu aurretik harmailetan eseriko dira eta etxetik aldatuta ez datozenak bertan aldatuko dira, eta behin zelaira sartzean maskara erantziko dute futbolariak; entrenatzaileak, ordea, maskara jantzita izango dute. "Ahal den heinean, kontaktu fisiko gutxiak ariketak egiten ahalegintzen gara: paseak, zirkuitu fisikoak...", azaldu du Ander Romero arduradunak.

Ointxe! saskibalo taldean, berriz, hasi dituzte federatuen entrenamenduak. Udako campusak ondo joan ziren eta orduko neurriak jarraitzen dabilta. Neurri berriak ere gehitu dituzte, eta monitoreek protokoloetako *online* formakuntza jasoko dute. Federatu gabeko 150 jokalar inguru dituzte, eta horiekin urriaren 1ean entrenatzen hasia aurreikusten dute. "Hauek ez dute lehiaketarik izango urtarilerara arte, baina urritik aurrera entrenatzen hasteko aurreikuspena dugu", azaldu du Iñaki Ogara *Arri* entrenatzaileak. Pilota taldean ere urriaren 1ean hasteko esperantza dute, eta errugbian eta aikidoan datorren astetik aurrera hasi nahi dute 16 urtetik beherakoekin.

Alde zaharrearaino aire bidezko zuntz optikoa jarriko dute urrian

Bizilagunek eta komertzioetako jabeek aspalditik dihardute zuntz optikoa jartzeko inbertsio eske, baina lortu gabe. Orain arte operadoreak ez dira prest agertu alde zaharrearaino zuntz optikoa jartzeko. Alde zaharra monumentu historiko izendatuta dago, eta, adibidez, ezin da kablerik jarri fatxadetan. Hala, zuntz optikoa ezartzeko, lurpetik egin behar zen instalazioa, eta enpresak ez dira inbertsio hori egiteko prest agertu. Baina berriki beste konponbide bat proposatu zuen Ibai-arte: aire bidezko zuntz optikoa.

Gestel enpresak emango du zerbitzua, irrati-frekuentziaz eskaintako Interneti esker. Instalazioari dagokionez, antena bat jarriko dute Kontzezinoko ur biltegian, eta bezeroak bizi diren eraikinetan telebistaren antenari lotuko dioten aparatua jarriko dute. Seinalea muturretik muturrera iristen dela azaldu dute, eta uhinek ez dituztela gorputzak zeharkatzen.

OHARRAK

Pentsiodunak

Astelehenean elkarretaratzea egingo dute, 12:00etan, Herriko Plazan.

Autodefentsa eskolak

ABAEk urriaren 5ean ekingo die doako autodefentsa feminista ikastaroei. Astelehenero egingo dituzte, 17:30etik 18:30era, La Merceden. Izena emateko, deitu 669 66 33 66 telefonora.

ARRASATEKO HIZKUNTZA ESKOLA "GELA DESPLAZATUAK"

• MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK:

IRAILAREN 1ETIK 28RA ARTE (13:00ak arte)

• MATRIKULA ON LINE EIBARKO HIZKUNTZA

ESKOLAREN WEBGUNEAN: www.eoieibarheo.hezkuntza.net

Informazio presentziala bertan jasotzeko irailak 15, 17, 22 eta 24. Ordutegia: 15:15-20:45

Informazioa telefonoz jaso nahi baduzu, aipaturiko datetan deitu telefono honetara: 688 89 17 20



Botila festa, Monterron parketik Santa Barbarara

Aurreko barikuan Monterron parkea gauzez ixteko erabakia hartu zuen Udalak, besteak beste, botila festak egiten zirela ikusita. Erabakia hartu eta gutxira, botilaz beteta agertu ziren Santa Barbarako bazterrak, eta hainbat erreakzio eragin ditu

Xabi Gorostidi ARRASATE

Udan praktika desegokien gorakada igarri ostean, Monterron parkea gauzez ixtea erabaki zuen Udalak joan den barikuan; konkretuki, 22:30etik 06:30era. Udaltzaingoaren arabera, udan "nabarmen" igo dira Monterronen egindako esku-hartzeak. 21 izan dira, guztira: zaratak, keak, maskararik gabeko pertsonak, botila festak... Iaz, esku-hartze bakarra egin zuten uda osoan; eta, aurreko eguenean, egun bakarrean, hamaika isun jarri zituzten. "Azken bi asteetan, udaltzainek 49 isun jarri dituzte osasun neurriak ez betetzeagatik, eta horietatik %50 Monterron parkean izan dira. Gogorazi nahi dugu Euskadi alarman egoeran sartu zenetik, abuztuaren 17a ezkerro, Udaltzaingoak salaketa proposamenak Jaurlaritzako Segurtasun Sailera bidali behar dituela; izan ere, Segurtasun Saila da alarma egoeran isunak ezartzen dituen

organoa. Ikusirik esku-hartzeak eta isunak egon arren bilera sozialek eta botila festek jarraitu egiten dutela, Monterron parkea ixtea erabaki dugu, neurri gehigarri bezala. Era berean, Udaltzaingoaren zaintza-lanak areagotu egingo dira inguruan", azaldu zuen Udalak, prentsa ohar bidez. Baina Monterron itxi ostean, Santa Barbarara lekualdatu dira botila festak. Domeka goizean, adibidez, botila eta lata ugari agertu ziren Santa Barbarako mahaien gunean, eta gaiak zeresana eman du herritarren artean, sare sozialetan eta politikarien artean.

Martitzenean, Arrasateko PSE-EEk oharra kaleratu zuen, gaiari buruz "arduratuta". Santa Barbaran zaintza lanak areagotuko dituztela aurreratu zuten, eta zera gehitu ere: "Arrasatear gehienak modu arduratsuan jokatzeko ari dira. Tamalgarria litzateke gutxi batzuegatik birusa herrian hedatzea".

50etik gora dira Euskaraldia besarkatu duten entitateak

Irailaren 27an agortuko zaie izena emateko epea, eta komertzio txikiei eta tabernei animatzeko dei egin diete

X.G. ARRASATE

Arrasateko Euskaraldiko lantaldea jo eta su ari da lanean, azken txanpan, ahalik eta entitate gehien batze aldera. Une honetan, 50etik gora dira izena eman dutenak, eta Jokin Etxebarria koordinatzaileak azaldu du horietako gehienak jende asko barnebiltzen duten eragileak direla. "Oraintxe bertan, 52 edo 53 entitatek emana dute izena, eta horien %90 jende askok osatutako eragileak dira. Horrek lana ondo barreiatzeko balioko digu, eta, hain zuzen, jende as-

korengana heltzeko aukera emango digu".

Hurrengo erronka enpresa txikiak, komertzioak, jatetxeak eta tabernak dira. "Hauek dira COVID-19aren krisia gehien pairatzen dutenak. Orain arte ez dugu euren atea jo, jakin badakigulako bestelako lehentasun batzuk izan dituztela orain arte. Jada bagabiltza banan-banango bisitak egiten. Horrez gain, jada izena eman duten eragile batzuen eraikinetan pankarta batzuk jarriko ditugu, Txatxilipurdiko lagunei esker".



Batu gabeko zaborrak Santa Barbarako mahaietan. GOIENA



BONU BERRIAK SALGAI

Bonu berriak erosi eta gastatzeko aukera irailaren 7tik urriaren 31ra bitartean



10€ EMAN 30€ JASO





Txikiak egiten gaitu HAUNDI

ARRASATEKO ENPRESA TXIKIAK ETA KOMERTZIOA SUSTATZEN

Informazio gehiago www.txikiakegitingaituhaundi.eus





ARRASATEKO UDALA
Ayuntamiento de Mondragón

30 euroko erosketa bonuak, berriz eskuragai

15.000 bonu zirkulazioan jartzea erabaki zuen Udalak: lehen txandan 7.859 bonu saldu ziren eta orain 7.523 bonu gehiago jarri dituzte; falta ziren 7.141 bonuak gehi EAJk jarritako beste 382. Aurrekoan bonua hartu zutenek berriz har dezakete

Xabi Gorostidi ARRASATE

Laguntzak aurrekoan bezala funtzionatu du. Herritarrek 10 euroko jarriko dituzte eta horren truke herriko saltokietan erabiltzeko 30 euroko bonua jasoko dute, hiru txarteletan banatuta: 5 euroko bat, 10 euroko bat eta 15 euroko bat. Laguntza baliatzeko beharrezkoa izango da Arrasaten erroldatuta egotea, eta familia unitateen arabera bonu bat edo bi eskura daitezke: bi pertsonako familia unitateak, bonu bat; hiru kide edo gehiagoko unitateek, bi bonu.

Arrasateko establezimenduetan soilik erabili ahal izango dira: dendak, tabernak edo zerbitzuak. Kanpainatik kanpo geratuko dira azalera handiko saltokiak, loteria eta bestelako joko establezimenduak, farmaziak, estankoak, gasolindegia eta janari dendak. Urriaren 31ra bitarte eskura daitezke bonuak, udaletxean bertan eta BAZen. "Herritarren eta merkatarien



5, 10 eta 15 euroko hiru txartelak, herritar baten eskuetan. X.G.

Emakume Txokoak aurrera egingo du egitarauarekin

Arrasateko Emakume Txokoak urritik abendura bitarteko egitaraua aurkeztu du. Lehen hiruhilekoan hainbat ekimen eta ikastaro bertan behera gelditu ziren, eta hiruhileko honetan ikastaro horiek berreskuratzeko eta berriak eskaintzeko asmoa dute. "Lanketa pertsonala eta kolektiboa uztartzen dituen jarduera sorta antolatu dugu, elkarrekin lan egiteko aukera emango diguna, giro onean, emakumeon eskubideak erdiguenean ipiniz eta geu, emakumeok, protagonista izanik", adierazi zuten aurkezpen prentsaurrekoan. Egitarau osoa ezagutu nahi izanez gero, Goiena.eus webgunean dago ikusgai.

aldetik oso harrera ona eduki dute bonuek. Herriko saltokiekin elkarlanean garatu dugu bonu kanpaina, beste hainbat laguntza lerro eta tasa salbuespen aplikatzearekin batera", azaldu dute udal iturriek.

Orain arte saldutako bonuei esker, 235.770 euroko eragin ekonomikoa sortu da, eta horren %66 -155.608 euro- Udalak finantzatu du. Bonu guztiak salduz gero, eragin ekonomikoa 450.000 eurora helduko litzateke, eta EAJk egindako ekarpenarekin 466.460 eurora.

Erosketa bonuen neurria iragartzerakoan, Arrasateko EAJk oharra atera zuen. Udaletik alderdi politiko gisa jasotzen zuten asignazioa -9.000 euro- krisia arintzera bideratuko zutela jakinarazi zuten, eta gauza bera egiteko eskatu zieten gainontzeko alderdiei ere. Handik gutxira, 500 bonu gehigarri jartzera bideratuko zutela esan zuten, eta, azkenean, 382 erosketa bonu gehigarri izango direla jakinarazi dute, 7.640 euro bideratuz. Udalean ordezkariak duten gainontzeko alderdiek ez dute halako neurririk hartu.

Merkataritza Berdearen Astea

Irailaren 10etik 19ra bitartean, eta *Ba al dago herrian erostea baino berdeagorik?* lelopean, Arrasate Txartelarekin erosketak ordaintzen dituzten herritarren artean 10 euroko erosketa-xtartel ugari zozketatuko ditu Ibai-arteak. 10 euroko erosketa-hobaria Arrasate Txartelean sartuko da eta sariak ausaz aterako dira erosketa agirian. Horrez gain, irailaren 18an, 18:00etatik aurrera, haurrentzako hiru tailer egingo dituzte, Txatxilpurdiren eskutik, jolas erraldoekin eta kaleak apainduz. Eguraldia alde izanez gero, Maiatzaren 1a plazan elkartuko dira eta, euria eginez gero, ordea, Biteri plazan.

AEKn, IRAKASLE BATEK BIK BESTE BALIO DU.
Irakasten daki eta ikas dezazun nahi du.

aek
euskara praktikoa

Zuzenean Unibertsitate Aholkularia, AEK-ko Irakaslea

EUSKARA - IKASTAROAK
Debagoieneko AEK
"Komunikazioa da gure metodoa"

EUSKARA MAILA OFIZIALAK
(A1, A2, B1, B2, C1, C2)

MINTZAPRAKTIKA TALDEAK
AUTOIKASKUNTZA

Iturriotz 21, behea, Arrasate - 943 77 03 69
arrasate@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

Bekak Arrasateko Udaleraren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz!

bertako
Igoak | ascensores

Euskal Herria hobetzeko prest?
Bertakon emakumezkoen kirola, gutxiengoa, egokitu eta inklusiozkoa babesten dugu, elkarrekin Euskal Herri hobea eraikitzeko.

OROTARIKO ZERBITZUA
100 €-tik / hileko
Arrunta 70€-tik / hileko

Garaia Berrikuntza Gunea
20.500 Arrasate
info@bertako.eus

943 903 450
www.bertako.eus



Erabiltzaileak pisua altxatzeko jarduera bat egiten. CROSSFIT ARRASATE



Gimnasioko erabiltzaileak baloi bereziekin ariketak egiten. CROSSFIT ARRASATE

Crossfit Arrasate: sasoi onean egoteko paradisua

2020eko urtarrilean ireki zituen ateak, 600 metro koadro lokalarekin eta puntako hiru irakasleren gidaritzarekin. Gero eta zale gehiago dituen kirol horretan espezialistak izateaz gain, yoga, hipopresiboak eta bestelako jarduerak ere eskaintzen dituzte

Gero eta jende gehiagok egiten duen kirola da *crossfit*-a. Zertan datzan ez badakizu, honela definitzen dute Crossfit Arrasateko adituek: "*Crossfit*-a kirola egiteko modu iraultzaile bat da. Ordubeteko saioetan, etengabe aldatzen diren mugimendu funtzionalak erabiliz entrenatzen da, intentsitate handian. Betiere, nork bere intentsitate maila ezartzen du, eta gure zentroan norberaren gaitasun fisikoen arabera moldatzen ditugu entrenamendu saioak". Ez dago zertan puntako kirolari izan

modalitate hau praktikatzeko: "Adibidez, pisua erabili behar den entrenamendu batean, bakoitzak bere mailara egokitzen den pisua hartuko du. Gainera, ariketa guztiak beste batzuekin aldatzeko aukera dago; adina dela, lesio bat dela edo ariketa egiteko edozein ezintasun dela. Beraz, pertsona batek kirola edo *crossfit*-a inoiz egin ez badu, arazorik gabe proba dezake, gure eskoletara etorritik. Gainera, hasieran, hastapen klaseetan hasiko da, non mugimendu basikoen teknika lantzen den, eraginkor-

tasuna hobetzeko eta lesioak saihesteko".

Onura ugari

Askotarikoak dira kirol iraultzaile hori praktikatzearen onurak: "*Crossfit*-aren bidez oinarritzko gaitasunak garatzen dira; besteak beste, erresistentzia kardiobaskularra, muskulu-erresistentzia, indarra, malgutasuna, potentzia, abiadura, koordinazioa, bizkortasuna, oreka eta doitasuna. Hauek guztiek gure *fitness*-a hobetzen laguntzen digute, eta, horrela, bizi kalitate

hobea edukitzeko aukerak handitzen dira".

Triatloirako lagungarri

Crossfit zaleentzako pentsatutako gimnasioa da Crossfit Arrasate, baina ez horientzako bakarrik, baita bestelako kirol jarduerak egiten dituztenentzako ere, kirol osagarria baita: "*Crossfit*-a kirol printzipal bezala hartzen dutenak daude, baita osagarri moduan hartzen dutenak ere. Izan ere, gaur egun, triatloi edo igeriketa taldeetan, adibidez, gero eta gehiago erabiltzen dute *crossfit*-a, entrenamenduen osagarri".

'Crossfit'-a eta gehiago

Crossfit-ean espezialistak izateaz gain, baina, bestelako jarduerak ere eskaintzen ditu Crossfit Arrasate gimnasioak: "Irailan hainbat eskola berrirekin hasi gara: yoga, hipopresiboak, gimnastikoak eta *barbell*-a. Azkenengo biek *crossfit*-ean egiten ditugun mugimenduen teknika hobetzeko balio dute, eta hipopresiboek

eta yogak, aldiz, malgutasuna hobetzeko eta zoru pelbikoa eta gerriko lunbarra indartzeko".

COVID-19a: neurri bereziak

Musakolan duten lokal handiak asko erraztu die COVID-19arekin lotutako segurtasun neurriak hartzea: "Ez dugu arazorik izan distantziak mantentzeko. Gimnasioaren barruan, zintaren bidez, entrenatzeko bakoitzaren zati pertsonala markatu dugu, erabiltzaileen artean distantziak mantentzeko eta maskara segurtasun osoz erantzi ahal izateko. Gainera, bakoitzak erabiltako material guztia desinfektatzen du, gimnasioa behar den maiztasunarekin desinfektatzen dugu, eta gel hidroalkoholikoak ditugu", azaldu dute.

**MAILA FISIKO
GUZTIETARA
EGOKITUTAKO
JARDUERAK
ESKANTZEN DITUZTE**

Zigarrola Kalea 1
Arrasate - 688822088



www.crossfitarrasatemon.com
crossfitarrasatemon@gmail.com

CROSSFIT ARRASATE MON.

ESKA EZAZU PROBATZEKO KLASEA DOHAINIK!



Pablo Amann bilbotarraren Amann & The Wayward Sons taldeak bihar, zapatua, eskainiko du kontzertua, Kulturaten. P.A.

Goi mailako hiru taldek borobilduko dute zikloa

Kulturate Akustikoen lehenengo asteburu "arrakastatsuen" ostean, bigarrenak ere "oso itxura ona" dauka, Karmelo Alberdi Kultura teknikariaren arabera. Hala, Murgi, Amann & The Wayward Sons eta Maren izango dira musika zikloa itxiko dutenak

Eneko Azurmendi ARRASATE

Lehen asteburuak emandakoarekin oso pozik geratu ziren antolatzaileak. "Hasieran, beldur apur bat geneukan, publikoak nola erantzun ote zuen eta neurriak beteko zituen. Gainera, areto nagusia ere ez da hain handia. Hala ere, oso erantzun ona izan zuten zaleek, eta hiru kontzertuetan 50-60 pertsona inguru batu ziren. Kontzertuei dagokienez, hirurak izan ziren oso onak, eta De la Sierra taldea sorpresa handia izan zela esango nuke. Hasiera batean, ez ziren oso ezagunak, eta kontzertu ikaragarria eman zuten. Oro har, uste dut publikoa oso gustura irten zela hiru emanaldietatik", azaldu du Alberdik.

Bakarlari izatetik, taldera

Bigarren asteburuari dagokionez, gaur, egubakoitza, Murgi taldea izango da Kulturateko areto nagusian, 20:00etan. Bakarlari ibili ondoren, taldeko proiektuan murgilduta dabil Tristtan Mour-

guy. Iaz kaleratutako *Sargia* diskoko abestiak nagusituko dira gaur, eta baita *Dual 1* eta *Dual 2* diskoetakoak ere. "*Trovadore* diskoko abestirik ez dugu joko. Nahiko gitarra klasiko eta folkarekin grabatu nuen, nahiko kantu lasaiak dira; beraz, hirukote elektriko batendako moldaketak egiteko zailak", azaldu du Mourguyk.

Halaber, eskerrak eman gura izan dizkio Arrasateko Udalari, jotzeko aukera eskaintzeagatik. "Hau da lotuta dugun emanaldi bakarra eta uste dut ez dela askorik izango", gaineratu du musikariak. Taldeari buruzko informazio gehiago, gaur argitaratu den *Puntua* aldizkariko 38. orrian.

**HIRURAK 20:00ETAN
IZANGO DIRA, DOAN,
KULTURATEKO ARETO
NAGUSIAN; EDUKIERA
KONTROLATUKO DUTE**

Bigarrena, rock amerikarra

Ordu eta leku berean izango den zapatuko emanaldia "sorpresa" izango da, Alberdiren esanetan. Amann & The Wayward Sons taldeari buruz ari da. "Ez da oso talde ezaguna, baina maila handiko musikariak dira. Bilboko Kafe Antzokian grabatutako disko bat daukate, eta soinua zoragarria da", nabarmendu du.

Rock amerikarra lantzen du, batez ere, Bilboko taldeak, baina badu beste estilo batzuen eragina ere: jazza, rock progresiboa eta psikodelia, esaterako.

Gaztetasunetik gazteengana

Maren artista gazteak borobilduko du zikloa, domekan. "Nerabeen artean oso ezaguna da, eta, agian, jende gehiegi etorriko zaigu. Pena izango litzateke batzuek kanpoan geratu behar izatea", dio Alberdik. Hil honetan *Margaritas y Lavanda* diskoa kaleratzea aurreikusten du bilbotarrak. Informazio gehiago, gaurko *Puntua*-ko 4. orrian.

"Taldearengan ilusio handia dugu, bai jokalariek eta bai nik"

UNAI IBARRA ENTRENATZAILEA

Ointxe!-ko senior mailako nesken taldea zuzenduko du

E.A. ARRASATE

Unai Ibarra izango da sortu berri den Ointxe!-ko emakumezkoen senior mailako taldea zuzenduko duena. Ilusioz hartu du erronka eta taldeari hazten laguntzeko konpromisoa hartu du.

Nola iritsi zitzaizun senior mailako emakumezkoen taldea zuzentzeko proposamena?

Hasiera batean, Beñat Barbarena zen entrenatzailea, baina lan kontuak direla-eta ezin izango du. Beraz, niri proposatu zidaten eta ilusio handiarekin onartu nuen erronka berri hau.

Nolako taldea duzu?

Talde oso gaztea da. Jokalari gehienak formakuntza kategorietatik etorritakoak dira, baina ilusio handiarekin daude, eta taldea aurrera ateratzeko gogotsu. Talde dinamikoa garelako esango nuke. Apustu handia egin da talde honen alde, eta gure esentzia teknika indibiduala eta dinamismoa izango da. **Zuretako bakarrik ez, klubarendako ere erronka handia da hau.**

Bai, noski. Beharrezkoa zen nesken senior mailako talde bat klubean, jokalari gazteentzat erreferentzia bat delako goiko taldea. Hori dela eta, helburua da urte batzuk pasa ostean ahalik eta goren egotea eta emakumezkoetan goi mailako talde bat izatea Arrasaten.

Oraingoz, Gipuzkoako Lehen Mailan hasiko zarete. Nolako maila da?

Oso fisikoa da, baina nik uste dut gure taldeak gaitasuna izango duela aurpegi emateko. Hau



Unai Ibarra, Iturripen. OINTXE!

hasiera da, eta jokalariek prest daude maila honetan daukaten onena emateko. Helburuak betetzeko dira, eta talde honek goian egoteko helburua du.

Garai zailak dira hauek. Baduzue denboraldia hasteko datarik?

Aurreko astean, irailaren 15ean hasiko ginela esaten zuten. Hala ere, Gipuzkoako Federazioak urriaren 4ra atzeratu du senior mailako kategorien hasiera. Beraz, gu data horretan zentratuko gara, denboraldia ahalik eta hoberen hasteko.

Koronabirusari lotutako protokolorik badaukazue edo oraindik ez?

Euskadiko Saskibaloi Federazioak elkarbanatu zuen lagunartekoetarako eta entrenamenduetarako. Gu, printzipioz, protokolo horrekin ari gara lanean, baina espero dugu guzak gehiago zehaztuko dituztela datozen egunetan.



Atariak

Tabernak

Bulegoak

Kristalak

Etxebizitzak

Fatxadak

Elkarte gastronomikoak

Teilatu-hodiak

686 57 67 83 Adolfo • 619 17 32 86 Maria Elena

Eskolaz kanpoko antolatzen dihardute

Elkartasuna guraso elkarteak antolatzen ditu eskolaz kanpoko jarduerak. Gaur-gaurkoz, eskola kirola ezingo da eskaini; bai, ordea, bestelako ekintzak. Egoera berrira egokitutako eskaintza prestatzen dabilta, eta baita osasun protokoloa ere

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Astelehenean hasi zuten ikasturtea gaztetxoek. Ikasturte berezia izango da, osasun egoerak eskatzen duen neurrietara egokitutakoa. Hala, eskolaz kanpoko eskaintza ere horrelakoa izango da.

Aramaion Elkartasuna guraso elkarte arduratzen da eskolaz kanpoko eskaintzak antolatzeaz. Egunotan dabilta izen-emateak jasotzen, eta, ondoren, hori guztiari antolatu beharko dute: "Bizikidetza taldeak errespetatu behar ditugu. Aramaion hiru bizikidetza talde daude: HH, LHko 1., 2. eta 3. mailak eta LHko 4., 5. eta 6. mailak", azaldu du guraso elkarteko Jone Txintxurretak.

Taldeak sortzen dituztenean, eskolaz kanpoko jardueretako arduradunekin batzartu eta protokoloa zehaztuko dute: "Oinarrian eskolako protokoloa izango duena".

Kirola ez, bestelakoak bai

Gaur-gaurkoz, Aldundiak ez du baimentzen eskola kirola egitea; bai, ordea, bestelako ekintzak. Hori horrela, pintura, robotika, ingelesa, hizkuntza musikala eta instrumentua, dantza, trikiti eta panderoa eta bertsolaritza eskainiko dituzte.

Pilota elkartea

Pilota elkarreak federatuekin bakarrik hasiko ditu entrenamenduak: "Gure asmoa betiko moduan entrenatzea izango litzateke, baina eskolarrek ez dute baimenik", dio Heriberto Arriolabengoak. Iaz, 15 bat neska-mutiko ibili ziren pilota elkarrean, eta iazkoek jarraituko dute, baina ez dakite jende gehiago egongo den edo ez. Umeek astean bi saio egin ohi dituzte.

"Asier del Campo izango da aurtengo entrenatzailea", dio Arriolabengoak, eta gaineratu du entrenatu ahal izateko CO-



Papargorri abesbatzako gaztetxoak ikuskizuna eskaintzen. ARTXIBOKO IRUDIA

ESKOLAN DITUZTEN BIZIKIDETZA TALDEAK ERRESPETATU BEHAR DITUZTE ESKOLAZ KANPOKO SAIOTAN

VID19-aren inguruko ikastaro bat egin beharko duela; horrez gain, elkarteak protokolo bat landu beharko du, eta osasun arduradun bat izendatu.

Horiek egiten dihardute elkarrean, Foru Aldundiak entrenatzeko baimena eman bitartean. Federatuek datorren astean hasiko dituzte entrenamenduak.

Musika eskola eta Papargorri

Musika eskolak datorren astean hasiko ditu eskolak. San Martin eskolako gelak erabiliko dituzte hizkuntza musikaleko eta instrumentuko eskolak emateko. Larraitz Arriolabengoak pozik dago, iazko ikasturtea zaila izan arren gaztetxoak animatu direlako eskolekin jarraitzera –kopuru zehatza asteburuan jakingo dute—. Hala ere, nabarmendu behar da 50 ikasleren bueltan ibiltzen direla musika eskolan.

Hainbat higie-neurri hartuko dituzte: sartu-irtenak leku ezberdinetatik egin; eskuak garbitu; bi kutxa izango ditu erabilitako materiala eta erabilita ez daudenak gordetzeko; eta maskara gelara sartzeko erabiliko dute, baina gelan ez.

Papargorriren kasuan, Euskal Herriko Abesbatzen Federazioak landutako protokoloaren arabera pertsona bakoitzak 2,25 metro karratuko espazioa behar duela kontuan hartuta, musika etxea izango dena erabiliko dute entseguak egiteko –estreinatu bari dago oraindik musika etxea–.

Bertso eskola eta dantza

Bertso eskolan iraila erabiliko dute eskaintza prestatzeko eta urriaren hasiko dituzte saioak. 11-12 urtetik hasi 15-16 urte bitarteko hiru talde izan zituzten iaz –15 bat neska-mutiko–; asmoa da aurrean ere horiek mantentzea.

Lagun-artean dantza taldekoek urriaren hasiko dituzte entseguak. "50 bat dantzari izaten ditugu urtero", dio zuzendaritza taldeko kide Rosa Mondragonek. Frontoian dagoen erabilera askotarikoko gela erabiltzen dute, eta horrekin jarraitzeko asmoa dute.

Oletako lapurretako gastua soberakinetik bideratuko dute

Aldundiaren 'alerta gorria' deritzon laguntza eskatuko du Udalak, abuztuko lapurretak eragindako kaltea arintzeko

A.E. ARAMAIO

Abuztu hasieran, Oletako batzar administratiboari ur edangarria ematen dion sistema guztia lapurtu zuten; bai ura edangarri bihurtzen duen sistema eta baita horri argindarra ematen zion energia-sorgailua ere. Lapurtutakoa 18.316,98 eurotan baloratu du Hidrocontrol enpresak.

Joan den astean konpondu zuten arazoa eta berriro ere ur edangarria ezarri zuten Oletan.

'Alerta gorria' laguntza

Lapurretaren berri izan eta berehala salaketa jarri zuen Udalak. Gastuari dagokionez, soberakinetik bideratuko da, eta aseguruarekin eta Foru Aldundiarekin harremanetan dago Udala gastuari aurre egiteko dirua lortzeko. Momentu honetan *alerta gorria* deritzon diru-laguntza lerrorako dokumenta-

zioa prestatzen dihardutela azaldu du alkateak.

Alokatutako energia-sorgailua

Ura edangarri bihurtzen duen makina –6.746,96 euro– berri bat jarri dute Oletan. "Momentu honetan, alokatutako energia-sorgailu batekin dabil martxan, baina asmoa da berriro lapurretak eta honek sortzen dituen arazoak ekiditeko, argindarra kablez eramatea bertara", azaldu du Altunak. Horrek "gastu handia" ekarriko luke –10.091,5 euro argindar kableak eramatea eta 33.345,18 euro obra zibila–: "Baina aukera onena dela ikusi da, hurrengo horrelakorik gertatzekotan kalteak askoz ere azkarrago konpondu ahal izango direlako, eta lapurretak ekidin ditzake, azken finean, garestiena argindar-sorgailua bera delako".

Kultura etxeko zerbitzuek arautegi berria izango dute

Ikasturtea hastearrekin batera kultura etxeko hainbat zerbitzu ere martxan jarri dituzte. Egoera berrira egokitu dituzte zerbitzuon arautegiak. Ludoteka 16:15etik 19:15era egongo da zabalik eta adinka banatutako bi txanda antolatuko dituzte. HHko ikasleek astelehenean, eguaztentean eta egubakoitzetan erabili ahal izango dute eta

LHkoek, martitzen eta eguaztentean. Gehienezko edukiera 20 umekoa izango da.

Liburutegiaren kasuan, bi txoko bereiziko dituzte: umeena eta gaztetxoena. Umeen txokoan zortzi ume eta hiru heldu egongo dira, gehienez; denak aulkietan eserita. Gazte edo nagusien txokoan 12 pertsona egongo dira, gehienez; mahai bakoitzean hiru. Horiek derrigorra izango dute maskara jantzita eramatea. Osasun neurriak errespetatzea eskatu dute.

Euskaraldiari begira bilera irekia egingo dute hilaren 16an

Euskaraldia antolatzeko bilera irekia egingo dute eguaztentean, hilaren 16an, 18:00etan, udal-etxe osoko bilkuren aretoan. Euskaraldiaren ezaugarriak gogoratuko dituzte; baita epeak eta funtzionatzeko irizpideak; eta herriko entitateak eta norbanakoak nola animatu aztertuko dute. Azaroaren 20tik abenduaren 4ra izango da ekimena.

Irakurle klub feminista urriaren 5ean jarriko dute martxan

Aramaio irakurle klub feminista urriaren 5ean hasiko du ikasturtea. Literaturaz gozatze-ko aukera eskaintzen du klubak, feminismoaren historia ezagutzeko. Interesa duenak 680 33 78 70 telefonora deitu edo *berdintasuna@gorbeialdea.eus* helbidera idatzi beharko du. Saioak presentzialak izango dira, egoerak ahalbidetzen duen heinean.



Pilotariak entrenatzen, martitzenean, Iturrigorri pilotalekuan. MIRARI ALTUBE

Eskolaz kanpoko jarduera batzuk, abian

Kirolari federatu gehienek hasi dituzte entrenamendu saioak azken asteotan eta eskola kiroleko neska-mutikoen urriaren 1ean ekitea da asmoa; Leizarra musika eskolako ikasleak ere astelehenaz geroztik hasita daude lanean

Mirari Altube ARETXABALETA

Ikastetxeek ez ezik, eskolaz kanpoko jarduera batzuek ere egunotan jarri dute abian ikasturtea. Hala, herriko kirolari asko da goeneko hasi dira denboraldi berria gertatzen, eta gaztetxoek eskola kirolean dihardutenak ere laster ekingo diote; urriaren 1ean, Aldundiak jakinarazi die-

nez elkarteei. "Kategorien araberako antolatu gura dute eta datorren asterako izango dugu guztiaren berri", adierazi du UDAko kudeatzaile Ainara Mugak, eta gaineratu: "UDAk lehen-tasuna eman dio kirola egiteari, gazteak gelditu egotea ez delako onatzen, eta protokoloa ondo zehaztu dugu horretarako".

Pilota hasita, karatea hastear

UDako pilotari batzuek astean hasi dituzte entrenamendu saioak. "Entrenatzaileak eta pilotariak bakarrik egon daitezke frontoian. Eta partiduetan ere ikuslerik ez", dio Juan Mari Errasti entrenatzaileak. Irailean bertan Gipuzkoako txapelketa jarriko dute abian eta Aretxa-



Hainbat neska-mutiko musika eskolak jasotzen. M.A.

Musika eskolan, lanean hasita

Ikasleak astelehenaz itzuli ziren Leizarra musika eskolara eta arau berrietara arazo barik ohitu dira. Hala, Arkupe kultura etxea hasi da berriro martxan hartzen, baina oraindik ez dute zehaztu beste jarduera batzuk, pintura eskolak, esaterako, noiz jarriko diren abian.

baletako gazteek eta nagusiek ere jokatu dute hori.

Karate taldeko kideek astelehenaz ekingo diote lanari; kadeteak, gazteak, 21 urtez azpikoak eta nagusiak hasiko dira entrenatzen. "Hilabete honetan kanpoan egingo ditugu saioak eta bakarkakoak izango dira, distantzia mantenduz", azaldu du Odilo Vazquez entrenatzaileak.

Ibarra futbol zelaia, martxan

Ibarra futbol zelaia ez du hartu ohiko martxa oraindik, baina

talde asko hasita daude entrenatzen: federatutako guztiak, hain zuzen ere. Era berean, eskola kiroleko kontuak antolatzen hasita daude.

Leintz Arizmendik sei talde eskola kiroleko bat horien artean izango ditu aurretik eta Ibarra futbol zelaian ohorezko kadeteen taldeak eta infantilen taldeetako batek entrenatu eta jokatu dute. "Kadeteak irailaren 21ean hasiko dira lanean, seguru asko, eta infantilak geroago", adierazi du Urtzi Amiano arduradunak.

Irailean bertan hasiko dira Basabeko biribilgunea egiten

Gipuzkoako Foru Aldundiak Otegi-Gaztañagari eman dio lanen ardura eta hamar aste iraungo dutela iragarri dute

M.A. ARETXABALETA

Gipuzkoako Foru Aldundiak hilabetea bukatu aurretik hasiko ditu Basabeko biribilgunearen lanak -Azbe ingurua-. Hala eman du aditzera, nahiz eta data zehatzik ez adierazi. GI-627 errepidearen erdiguneko "lotura konplexua sinplifikatzea" dela biribilgune horren helburua adierazi dute.

29,50 metroko biribilgunea

Basabeko bidegurutzean bat egiten dute herrirako sarrerak eta irteerak eta Urkulu aldera



Basabe inguruko bidegurutzea. M.A.

doan errepideak, besteak beste. Hain zuzen, Bide Azpiegiturako diputatu Aintzane Oiarbidek orain dela bi urte adierazi zuen biribilgune bat baino gehiago bost adarren bidegurutze bat dela, eta autobusen eta ibilgailu astunen "zirkulazioa erraztea" zela lan horien asmoa. Eraikiko duten biribilguneak 29,50 metroko kanpoko diametroa izango du, zazpi metroko eraztuna eta 15,5 metroko barnealdeko uhartea.

Otegi-Gaztañaga enpresa gipuzkoarrari esleitu diote proiektua, 196.210 eurotan. Obren iraupena hamar astea izango da, ondo bidean.

Lanek irauten duten bitartean autoen zirkulazio alternatiboa ezarriko dela jakinarazi dute, unean uneko lanen "segurtasuna bermatzeko".



NIRE USTEZ

JULEN ABASOLO

Martin Kabarririk

Agorreko Andramaixetara aurretik ez datorrela esan dau. Hemengo abelerie ikusitako, nahixau dauela dauenetan egon.

Behin, larreinek egiten ei ebizten Txikinekuen. Gari lanak auzolanetik be dexente eukenetik, Martin be, bertan ei zan lagunketan. Lan handirik egin barik, jaterako orduen gustora ikusten ei zan gizona.

Abadie be inguruen izengo zan, eta hori ikusitako, bere artien: "Ez ba! Nik eraingo jutzat lanien". Hurrengo egun baterako abadetxera ekarri ei euen zertanbaiten lagundu zeixon. Martin agertu orduko bere penak kontetan hasi ei jakon erdi negarrez: Bere seme alaba gizajuek; Maria Rosa gehixau ezinien ebixela; Aurten soluek ez dauela ezer emun... Abadie errukittute, jaten eta hogerelekoren bat be emun ei eutzen Martini.

Orduen be, Kabarririx aldera tripie osatute joan zala esaten euen, kolpeik be jo barik.

Arientzatik fan zan eta, Martin Larralderen antzera, gure Martin ez zan sekula itzuli, baina, goguen daukoun artien, geurekin egongo da.



Eskolan sartzen. KURTZEBARRI ESKOLA



Partisarekin jolasean. ARIZMENDI IKASTOLA



Umeak kanpoan. PAUSOKA HAUR ESKOLA

"Poz-pozik" itzuli dira neska-mutikoak geletara

Astean ekin diete eskolei 14 urte artekoek, eta ilusioa, lasaitasuna eta poztasuna izan direla nagusi nabarmendu dute herriko ikastetxe guztiek. Datorren astean, DBHko bigarren ziklokoen, batxilergokoek eta Lanbide Eskolakoek txanda izango da

Mirari Altube ARETXABAETA

Alaitasuna, ilusioa eta gogoia erakutsi dituztela neska-mutikoek aurpegiak lehen egunotan adierazi dute herriko ikastetxe guztietako ordezkariak. Ikasgeletara itzultzeko gogotsu zeuden, eta horrek erraztu egin du arau berrietara egokitu beharra.

Gurasoak ere, "gustura"

Egokitzapen fasea egiten dihardute Pausoka haur eskolan, eta pozik daude emaitzarekin: "Umeak oso pozik geratzen dira eta gurasoak ere gustura daude hartu ditugun neurriekin", dio Olaia Urzelai arduradunak.

Arizmendi Ikastolako Basa-beazpi gunean sekula baino go-

gotsuago sumatu dituzte haurrak, eta "besteekin egon beharra zutela" erakutsi. "Era berean, pozik gaude familien aldetik proposamen asko jaso ditugulako, eta guraso batzordearekin elkarlanean jardungo dugu", dio Iñaki Gonzalez irakasleak. Gaineratu du pedagogikoki aukera berriak ikusten dituztela Konfiantzaren Pedagogian sakontzeko.

Lagunekin egoteko gogoia

Kurtzebarri eskolako kideek ere "itzultzeko irrikan" antzeman dituzte haurrak. "Begiak zabalzabalik eta poz-pozik etorri dira. Urduritasun apur bat ere igarri dugu, baina gutxi batzuegan", dio Mikel Uribarren zuzendariak.

Ildo beretik jardun du Kurtzebarri institutuko Juan Carlos Pascual Pascu zuzendariak: "Poztasun eta urduritasun sententzioak nahasturik izan dituztela esango nuke, baina hirugarren egunerako normalizatu da. Lagunekin egoteko gogoia handia zen; beraz, pozik gaude, orokorrean".

Bigarren zikloaren –DBH 3. eta 4. mailak– hasiera atzeratzeak asko lagundu duela uste du, haiek etorri orduko "egokituta" egongo direlako. Eta arau eta "muntai berrietara" egokitzen egunez egun joango direla dio: "Ez da komeni ikasleak berriro ere etxera joan behar izatea, honekin bizitzen ikasi behar dugu".

Lanbide Eskolan, astelehenean Astelehenean hasiko dira Aretxabaeta Lanbide Eskolako gelak ikasle betetzen. Goi mailako zikloetakoak izango dira lehenengoak sartzen, eta erdi mailakoak astebete geroago iritsiko dira. Gainerako ikastetxeetan legez hainbat prebentzio neurri ezarri dituzte: maskara, 1,5 eta 2 metro arteko segurtasun distantzia eta higiene neurriak. "Ziklo batzuetako irakasgai konkretu batzuetan babes pantailak eta eskularruak erabili beharra ere gerta liteke segurtasun neurriak bermatzeko", adierazi du Joseba Beristain zuzendariak.

Talde "espezifiko, independente eta egonkorra" osatuko dituzte eskolan; hau da, lanbide-familia bakoitzeko sail espezifikoak: "Talde horietan irakasleak ere sartzen dira, eta ez dute hartu-emanik izango ikastetxean dauden bitartean, arreta berezia jarritz atsedendaldietan", jakinarazi du Beristainek. Ildo horretatik, atsedendaldiak txandakatuak izango dira. Aireztapenari garrantzi handia emango diotela gaineratu du: "Erabili beharreko hobei minutuko bost minutuz aireztatuko dira gelak, tailerrak, laborategiak eta erabilera-espazioak". Era berean, sarrera eta irteera ezberdinak izango ditu familia-profesional bakoitzak. Eta ikastetxera sartzen den orori tenperatura hartuko diote.

Zuzendariak lasaitasun mezua zabaldu gura izan du: "Segurtasun eta higiene neurri guztiak hartu dira zentroan itzulera modu presentzialean izateko berme osoarekin. Egoera aldaturiko luketen kasuak gertatuko balira, kontingentzia-plan bat garatu da egoera zehatz horiei erantzun ahal izateko".

'Itsasoko biztanleak' argazki erakusketa dago Arkupen

Iñaki Guridi (Donostia, 1975) argazkilaria eta diseinatzaile grafikoaren argazki erakusketa izango da irailean Arkupen. Donostiako Kontxako hondartzan murgiltzen diren irudiak jaso ditu Guridik, besteak beste; hain zuzen ere, urtarileko egun batean, bost graduko tenperatura-rekin bainua hartzen daudenei ateratako argazkiak dira. Erretratuetan xehetasun guztiak zaindu ditu, igerilariak islatutako sententzioa transmititzeko.

Irailaren 30a arte izango da ikusgai erakusketa aretoan. Ordutegia: astelehenean egubakoitzera, 11:00-13:00 eta 16:00-20:00; eta zapatuetan: 11:00-13:00 –domeketan, itxita–.

Talo eskaintza egin du Loramendik, sanmigelak gogoan

Talo posturik ez du jarriko aurretik Loramendi elkarteak, baina, San Migel jaietako ikurretako bat izanik, herritarrei etxera eroan gura die jateko hori. Sorta ezberdinak egin dituzte; hiru talo eta gehigarria –txistorra-dituenak, esaterako, sei euro balio du.

Eskaerak egiteko epea zabalik dago eta irailaren 19 goizean itxiko dute. Dena den, ohartarazi dute kopurua mugatua izango dela. Ordainketa eskudirutan edo kontu korronte bidez egin ahal izango da.

Eskaera egindakoekin irailaren 21ean jarriko dira harremanetan, banaketa "era antolatua eta seguruan" egiteko.

Odontologia estetikoa	Ortodontzia
Endodontzia	PADI zerbitzua
Inplantologia	Hortz protesiak

Astelehenean ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaeta • Tel.: 943 79 93 55

Real Sportingean lanari ekiteko gogoz dago Aldai

Aretxabaleko atezainak urtebeterako sinatu du Gijongo taldearekin, baina oraindik ez du haiekin elkartzeko aukerarik izan. Entrenamendu saioekin ez dira hasi, baimenik ez dutelako, eta Bigarren Mailan diharduen taldeak ez daki noiz hasiko duen liga

Mirari Altube ARETXABALETA

Oihana Aldai atezainak Real Sporting taldean jardungo du aurten. Hala jakinarazi zuen uztailen sare sozialen bitartez, eta, iraila aurrera doala, denboraldia noiz hasiko zain dago; izan ere, oraindik entrenamendu saiorik ere ez dute egin.

Arauk, erkidegoen esku

"Lehenengo Mailako liga urriaren 18an hasiko da eta gurea horren ondoren, baina zehaztu barik dago. Futbol Federazioak autonomia erkidegoen eskuetan utzi zuen arauak ezartzea, eta, ondorioz, gu zain gaude oraindik", azaldu du aretxabaletarrek. Badaki beste erkidego batzuetako taldeak abuztutik dabilzala lanean, eta horrek ezintasuna sorrarazten dio. "Joan den astean ginen hastekoak entrenamenduekin, baina atzeratu egin da kontua. Eta oraingo astean ere ez gara hasi, segurtasunez entrenatzeko baldintzak ez direla betetzen esanaz". Lanean hasteko, gainera, PCR probak egin behar dizkiete lehenengo.

Reto Iberdrola ligaren hasiera zehaztutakoan, hilabeteko aldearekin jakinarazi behar diete taldeei denboraldia prestatzen has daitezela: "Ez da justua, beste talde batzuek dagoeneko hilabete daramatelako prestatzen, eta lagunartekoak ere egin dituztelako. Ez dut ulertzen liga nazionala izanda arauak zergatik ezartzen dituzten erkidegoek. Lehenengo Mailako emakumeak ez badira kontuan hartzen, pentsa Bigarren Mailakoak". Egoera horren ondorioz oraindik ez da elkartu taldekideekin eta ezagutu ere ez ditu egiten.

Futboleko jarraitzeko "gogotsu"

Kordobako Pozoalbense taldean hasi zuen 2020a Aldaik eta konfinamenduak hantxe harrapatu zuen. Liga bertan behera geratu zen martxoan, ezustean, eta



Oihana Aldai, orain dela hilabete batzuk. OIHANA ALDAI

maiatzean talde andaluziarrari agur esan zion.

Uztailen sinatu zuen, urtebeterako, Gijongo Real Sporting taldearekin, eta "ilusio handiarekin" dago berriro jokatzeko hasteko: "Otsaileko azken aste-

burutik nago partidu bat jokatu barik, eta oso luze dabil egiten itxaronaldia". 28 urte ditu aretxabaletarrek eta oraindik asko duela emateko sentitzen du: "Sentsazioak berreskuratu eta dena emateko gogoz nago".



Maren Lezeta -lehenengoa makurtuta- taldekideekin. REAL SOCIEDAD

Maren Lezeta, Realean

Leintz Arizmendiren harrobiko Maren Lezeta gaztetxo aretxabaletarrek Realaren bigarren taldean jokatu du aurten. Abuztuaren 12an hasi zituen entrenamendu saioak eta "oso pozik" dihardu lanean orduak, "gozatzen eta ikasten".

Kiroldegiko jardueretarako izen-emate epea zabalik dago

Astelehenean jarriko dute abian ikasturtea Ibarra kiroldegian eta ordu gehiagoz egongo da irekita

M.A. ARETXABALETA

Orduetegi luzeagoarekin itzuliko da Ibarra kiroldegira astelehenean, irailaren 14tik, aurrera: astelehenean egubakoitzera bitartean, 07:00etatik 21:30era; zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; eta domeketan, 09:00etatik 14:00etara. Irailaren 26an, ostera, itxita egongo da.

Edukiera zaindu nahian eta saio artean garbiketa lanak egiteko, saio batzuen iraupen denbora laburtu egin dute. Hala, ordu tarteak finkatu dituzte, eta

horiek errespetatu egin behar direla gogorarazi dute.

Jardueri astelehenean ekingo diete eta izena emateko epea zabalik dago. Lehorrekoen artean berriak ere badaudela iragarri dute; *core training* eta *gazte fit* -12 eta 16 urte artekoendako-, esaterako. Taldea osatzeko gutxieneko kopurua zortzi pertsonakoa izango da aretoko jardueretan eta seikoa uretakoetan.

Izena emateko eta argibide gehiagorako, kiroldegira bertara jo behar da: info@kiroldegia.eus eta 943 03 98 42.

GORA ETA BEHERA




Han eta hemen botata utzitako kartutxoak

Mendi bueltatxoan egitera joan eta poltsa bete kartutxo jaso zuten herritar batzuek joan den astean Bolinaga eta Mendiola aldeko bazterretan. Ehiza sasoi da eta ehiztariak han eta hemen dabilza azken asteotan, baina bazterrak garbi eta txukun uztea dagokie gero.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo [688 69 00 07](tel:688690007).



GARI ITURBE

Kurtzebarriko egunik ez du ospatuko aurten Murruxok

Irailako bigarren domekan ospatu izan du Murruxiko mendizale elkarteak Kurtzebarri mendiko eguna eta herritar asko elkartu izan da han. Aurten, hain zuzen ere, 92 urte beteko dira gurutzeari jarri zutela mendi tontorrean. Pandemiak ezarritako egoera bereziagatik, baina, inolako ospakizunik ez egitea erabaki dute elkarteak kideek.

Kanpaien mundua ezagutzeko, bisita gidatua Areantzara

Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako *Ezkituko altxorrek* egitarauaren barruan, kanpaien mundua ezagutzera joko dute Areantza auzora, bihar, irailak 12, 12:00etan. Kanpai-jole eskolakoak izango dituzte gidari eta kanpaien nondik norako guztiak erakutsiko dizkiete. Bisitan parte hartzeko, izena eman behar da aurretik (943 71 89 11).

Bidaietako esperientziak jendaurrean kontatzen

Errusiako San Petersburgo eta Mosku hirien eta AEBetako parke nazionalen gainean gehiago jakiteko aukera izango da Eskoriatzan izango den Ostegun Bidaiarietan. Lehenengo kontakizuna irailaren 17an izango da, 19:00etan, Zaldibar antzokian

Imanol Beloki ESKORIATZA

Barnealdean, mendialdean, kostaldean edo basamortuan egindakoak; uda aldera edo neguan egindakoak; bidaiak exotikoak; munduaren beste puntara kirola egitera joandakoak... mota guztietako aurkezpenak izan dira azken urteotan, Eskoriatzako Ostegun Bidaiariak egitasmoaren sei edizioetan. Hala, aurten ere ez dute hutsik egingo herriko zenbait lagunek egindako bidaien kontakizunek, eta horiek entzuteko aukera izango da Zaldibar antzokian.

Kontakizuna egiten duenak erabakitzen du zein modutara egin aurkezpena. Hau da, batzuek ikus-entzunezko bat erabiliz egiten dute; beste batzuek, aldiz, argazkiak jarritz; eta egin izan dute zenbaitek oholtzara igo eta, soilik, hitzen bidez bidaiak kontatu. Esperientzia bat ezagutzeaz batera, bertaratutakoekin interakzioa ere bilatzen da, eta, horretarako, beti izaten da gal-



Xabi Arkauz eta Maite Santamaria, Moskuko San Basilio katedralean. MAITE SANTAMARIA

deren gaineko tartea. Saioaren amaieran edo saio osoan zehar izan ohi dena.

Errusiara bidaiak

Lehenengo bidaiaren kontakizuneko protagonistak Maite

Santamaria eta Xabier Arkauz eskoriatzarrak izango dira. Irailaren 17an, 19:00etan, hasiko dira, Zaldibar antzokian, iaz egin zuten bidaiak kontatzen. Hain zuzen ere, Errusiako bi hiri nagusi bisitatu zituzten:

San Petersburgo eta Mosku. Aurkezpenean zenbait zehetasun emango dituzten arren, honako hau aurreratu gura izan dute: "Hasieran broma bezala hasi zenak... azkenean Errusiara eraman gintuen. Nahiz eta munduko herrialderik handiena izan, bederatzi egun baino ez genituen pasatu bertan San Petersburgo eta Mosku ezagutzen. Udako oporrak San Petersburgon hasi genituen, europar ukitua duen hirian. Ia 90 urte atzera eraman gintuen bidaiaren murgildu ostean, Moskura heldu ginen, antzinako sobietar hiriburura. Bertan, errusiar kultura ezagutzeko aukera izan genuen, komunismo garaira eraman gintuzten txokoetan murgilduz".

AEBetako parke nazionalak

Hurrengo hitzordua irailaren 24an izango da, ordu eta leku berean. Orduan, baina, Juan Miguel Pagalday eta Maria Isabel Ruiz de Eguino eskoriatzarrek AEBetan egin zuten oporrak kontatuko dute jendaurrean. "Ameriketako Estatu Batuak entzun eta etxe-orratzak edo hiri erraldoiak datozkigu burura, baina bidaiak hartan, batez ere, mendebaleko parke nazionalak ezagutu genituen: munduko parke nazional zaharrena den Yellowstone; Arizona estatuan Colorado ibaiak zulatutako Arroila Handia (Grand Canyon); Yosemite, milaka urte dituzten sekoiak dituen... Guztira, be-

deratzi estatu zeharkatu genituen, Montanako Bozeman hirian hasi eta San Frantziskora heldu arte".

Hirugarren bidaiak baten gainekoa egiteko asmoa ere badu Eskoriatzako Kultura Sailak, eta, izatekotan, urriaren 1ean izango litzateke.

Zaldibar antzokiko neurriak

Zaldibar antzokian egindako azkeneko emanaldia martxoaren 6an izan zen, Nhil taldearen aurkezpen kontzertua. Orduetik ez da ekitaldirik izan bertan, eta, protokoloa diseinatuta, zenbait neurri hartu dira aretoan segurtasuna bermatzeko: alde aurreko salmenta sustatuko dute ekitaldiren bat balego. Bi ate izanda, sarrerarako eta irteerarako desberdina ezarriko da, pilaketak sortzeko arriskua murrizteko. Antzokiaren edukiera 137 pertsonakoa da, normalean, baina, %60koa ezarrita, 82 pertsona sar daitezke. Butakak, berriz, zenbaituta daude, eta nahiz eta distantzia soziala mantentzeko jarleku batetik bestera tartea egongo den -1,5 metro-, batzuk elkarren ondoan egongo dira bizikidetzaren unitateentzat, adierazi dute Eskoriatzako Udaletik.

EGUENETAN

19:00ETAN IZANGO DIRA BIDAIEN KONTAKIZUNAK, ZALDIBAR ANTZOKIAN

Ohiturak aldatzeko ariketara hamaika entitate batu dira

Euskaraldiaren bigarren edizioan izena emateko azken eguna irailaren 27a izango dute herriko entitateek

I.B. ESKORIATZA

2018an, Euskaraldiaren lehenengo edizioan, pertsonalki hartu zuten parte herritarrek, eurek erabakita *ahobizi* edo *belarriprest* izan. Hala, Euskaraldiaren bigarren edizioa ere martxan da, eta elkartei eta entitatei egingo zaie dei parte hartzeko.

Bigarren edizioaren berrikuntza nabarmenena ariguneak dira; hau da, euskaraz eroso edo lasai aritzeko guneak. Horretarako, taldeko kide guztiek euskara ulertzea beharrezkoa izango dute; gutxienez, *belarriprest*

izan beharko dute kide guztiek. Hala ere, ariketan parte hartzea borondatezkoa izango da. Ariguneetako kideek taldean egingo dute hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa, azaroaren 20an hasi eta abenduaren 4ra bitartean; eta batzuk *ahobizi* izango dira eta besteak, berriz, *belarriprest*.

Herriko zenbait entitate da goeneko animatu dira Eskoriatzan Euskaraldiaren bigarren ediziora begirako ariketan izena ematera. Hala ere, oraindik eman ez duenak aukera izango du

horretarako irailaren 27ra bitartean.

Hamaikak eman dute izena

Eskoriatzako Euskaraldiko batzordekideek lehentasunez tratatu dituzte herriko kultura eta kirol elkarteak, nahiz ikastetxeak, eta, momentuz, herriko hamaika entitatek eman dute izena. Honekin batera, norbanakoei izena emateko epea irailaren 24an hasiko da; izan ere, arigune batean egon edo, izena eman beharko da.

Parte hartzeko deia entitateei

"Martxoaren 17an egin behar genuen lehenengo bilera presentziala, baina egoerak behartuta bertan behera geratu behar izan zen eta bideo bat prestatu genuen aurtengo edizioaren berri emateko. Ondoren, ekainean

eta uztailean bi bilera presentzial egin genituen, bakoitzera 3-4 talde gonbidatuta, eta zuzenean azaldu zitzaizkien aurtengo zer izango den. Han irteerako zalantzak argitzeko beste ikus-entzunezko bat egin genuen batzordeko zenbait kidek, eta orain, elkarteetatik haratago, herriko zerbitzu, enpresa, denda eta tabernetara eskutitz bidez iritsiko gara. Hala, aste honetan 70 bat eskutitz bidaliko ditugu, olatu berria har dezaten", adierazi dute Eskoriatzako Euskaraldiko batzordekideek.

Zalantzarik izanez gero

Edozein zalantza edo argibide gura duenak *eskoriatza@euskaraldia.eus* helbidera idatzi dezake, edo, bestela, 636 78 59 71 telefono zenbakira *whatsapp* bat bidali.

San Pedroko eta Intxaurtxuetako jaiak ez dira egingo

Iaz San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako jaiak berreskuratuta eta balorazio bikaina eginda, aurten ere jaiak antolatzeko gogoz zeuden bi auzoetako jai batzordeetako kideak, baina ez dira egingo. Egungo egoera kontuan hartuta, eta ekitaldien segurtasuna bermatzerik ez dagoela ikusten dutela adieraziz, jaiak bertan behera utzi dituzte.

Jaiak ez egin arren, auzoetako jaietara begirako kamisetak egin dituzte, eta zenbait egunez horiek banatzen aritu dira. Gaur ere, kamisetak eskatuta dituztenek jasotzeko aukera izango dute. Horretarako, 18:30etik 20:00etara bitartean, Intxaurtxueta 9 Behea atarira joan beharko da.



Iñaki Encina piano-jole eta orkestra zuzendaria pianoaren aurrean, lanean. IÑAKI ENCINA OYON

Musika klasikoaren magia Zaldibarren

Martxoan bertan behera geratutako Iñaki Encina piano-jole eta orkestra zuzendari eskoriatzarraren eta Adriana Gonzalez soprano guatemalarraren kontzertua irailaren 20an izango da. Gainera, bi saio egingo dira: bata 17:30ean eta bestea 20:00etan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Martxoaren 24rako programatuta zegoen Iñaki Encina piano-jotzaile eskoriatzarraren eta Adriana Gonzalez soprano gazte guatemalarraren kontzertua, baina alarma egoeratik bertan behera geratu zen. Hala, irailaren 20an, domekan, egingo da kontzertua, Zaldibar antzokian. Oraingoan, baina, bi saio egingo dira: bata 17:30ean eta bestea 20:00etan. Bi artistek grabatu berri duten *Melodies Dassaut & Covatti* lana eskainiko dute, ordubete inguru iraungo duen emanaldian.

Maila handiko musikariak

Iñaki Encina eskoriatzarrak orkestra zuzendari gisa ospe handia du Frantziako panorama lirikoan, eta zuzendari-lana eta piano-jole profesioa uztartzen ditu. Berarekin batera Adriana Gonzalez Guatemalako sopranoa izango da oholtza gainean kontzertua eskaintzen. Bi musikari handiek Eskoriatzan aurkez-

tuko duten diskoak Lied eta ahots-errezitaldiko *Preis der Deutschen Schallplatten Kristin* Alemaniako kritika diskografikoaren saria jaso berri du, eta lorpen horregatik oso pozik agertu da Encina: "Alemaniako saria ederra izan da, errekonozimendu garrantzitsua da. Izan ere, 151 musika kritikok ematen dute saria, eta gure kategorian, gainera, maila handiko zenbait musikari handi zeuden; besteak beste, Matthias Goerne, Veronique Gens, Barbara Hannigan eta Franco Fagioli. Hori horrela, Eskoriatzan eskainiko dugun kontzerturako gogoz gaude. Hilaren 20an emango ditugun bi saioez gainera, irailaren 22an

**IRAILAREN 20AN,
DOMEKAN, 17:30EAN
ETA 20:00ETAN
IZANGO DIRA
KONTZERTUAK**

Gasteizko Antzoki Zaharrea izango gara kontzertua ematen".

Grabatu berri duten *Melodies Dassaut & Covatti* diskoa Eskoriatzan aurkezteko tartea hartuko du Encinak, eta, besteak beste, Robert Dussauten, Isaac Albenizen, Helene Covattiren, Robert Dussauten eta Jesus Guridiren lanak joko dituzte. XX. mende hasierako piezak izango dira entzungai, maila handikoak; inpresionista eta post-erromantikoa eta testu gozoekin.

Saiotarako sarrerak

Martxoko kontzerturako sarrerak erosi eta itzuli ez dituztenek bihartik, irailaren 8tik, irailaren 14ra arte aldatu beharko dituzte Manuel Muñoz kiroldegian, eta zein saiotara joan nahi duten aukeratu beharko dute. Kontzertura joan nahi ez dutenek, bestalde, dirua hartu dezakete. Horrekin batera, edukiera bete arte gelditzen diren sarrerak irailaren 15ean jarriko dituzte salgai, kiroldegian.



Lorea Erzilla irakaslea, kantuaren bideoklipeko irudi batean. JOSE ARANA GUNEA

Lorea Erzilla irakasleari kantua egin diote guraso musikariek

Imanol Intxaustik, David Bañaresek, Juan Sangrek, Josu Txintxurretak eta Inaxio Herrerak egin dute kantua

I.B. ESKORIATZA

Arizmendiko Jose Arana guneko bost guraso musikariek Lorea Erzilla guneko arduradunari eta egoitzari baita eskerrak emateko kantua egin, eta bideoklip estiloan argitaratu dute. Abestia Imanol Intxausti, David Bañarese, Juan Sangre, Josu Txintxurretaren eta Inaxio Herreraren artean egin dute, eta ikus-entzunezkoa, berriz, Txintxurretak berak editatu du. Hala ere, adierazi dute guraso guztiak eta haur guztiak ere inplikatu zirela.

Agurtzeko kantua

Ikus-entzunezkoa osatu duten gurasoen seme-alabak Arizmendiko Jose Arana gunetik Almeria pasatzen dira, Lehen Hezkuntzara, eta *Esker+onez+zuratzat* izenpean argitaratu berri dute lana. "Bost guraso musikari izanda, ideia polita iruditu zitzaigun Lorea Erzilla ira-

kasleari eta, orokorrean, gureari kantua egitea. Horretarako, abestiaren letra egin, irudiekin osatu, eta lanaren emaitzarekin gustura geratu gara. Hala ere, kantuak baino garrantzi handiagoa du mezuak", adierazi du kantuaren sortzaileetako batek.

Maitasunez egina

Abestiaren letrarekin argi utzi dute Lorea Erzilla irakaslearen lana miresten dutela Jose Arana haurren gurasoek: *Pasarte onak gogora ekarriz, agurtzen garen honetan, momentu gogor eta ilunak aldiz, utziaz alde batera!, txoko honetan eman dizkiguzu bizitzako ikasgaiak, hemendik kanpo ere irakasten, lehen bezala orain eta gero! Kantutxu hau eskertzeko, zure lana, ekimen eta jarrera, goxotasun eta irribarrez, ama baten maitasunez...*

Ekitaldi informatiboa antolatu du Gipuzkoako Senideak elkarteak

Zapatuan, Gipuzkoako Senideak elkarteak egoitza publiko eta itunduetako egoiliarren senideengandik hurbilago egoteko egiten duen jardueraren barruan sartzen den ekitaldia gauzatuko du, 11:00etan hasita.

Lehenengo, prentsurrekoak egingo dute, Fernando Eskoriatza plazan. Gero, egoitzetako langileek eta zerbitzuak ustiatzen

dituzten enpresetan ordezkaturako dagoen GFak duten langatazka konpontzeko eskaera egingo dute, eta 16:00etan, mahai-ingurua egingo da.

Ekitaldi informatiboa izango da, eta, aldi berean, Gipuzkoako lurralde historikoan egunerokotasunean sortzen diren gaiei buruzko zalantzak argitzeko balioko duela hitzorduak adierazi dute antolatzaileek. Hala, herriko elkarte eta erakunde guztiak parte hartzera deitu gura dituzte: "Guztioi eragiten digulako".

Aisialdiko jarduera asko kolokan, nola egin pentsatzen

Eskolaz kanpoko jarduerak neurriak hartu beharko dituzte haurren segurtasuna bermatzeko

I.B. ESKORIATZA

Eskolatik irteetan jarduera ugari izaten dituzte haurrek. Ingelesa dela, kirola, edo bestelako jarduerak. Horiek ere, ikaste-txeetan moduan, zenbait erabaki hartu dituzte, eta aurtengo ikasturtea beste modu batean planteatuko dute; edukiera kontuan izanda, talde gehiago osatuta, desinfekzioari garrantzia emanda... betiere, segurtasuna bermatuta egongo den ikasturtea eskaintzeko.

Eskoriatzako haurren aisialdiko gune azpimarragarriena-tako bat Tortolis ludoteka da. Oraindik ez dute hasi ikasturtea, baina, urtero moduan, irailaren amaieran ate irekiak egin, eta urrian zabalduko dituzte ateak. Egoera berrira egokitzeko txandakatzek eginez funtzionatuko dute, eta, protokoloa oraindik prestatzen ari diren aren, hainbat erabaki garbi dituzte. Txanda itxiak egingo dituzte, desinfekzioari garrantzia emango diote eta kanpo ekintzak sustatuko dituzte, besteak beste.

Buztinatekoak, gertu

Eskoriatzako Buztinate Taldeko kideek ere urrian hasi gura dute

ikasturtea, haurren zein helduen taldeekin. Saioak eguaztenero izango dituzte: haurrek 16:45etik 17:45era eta helduek, berriz, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Hala ere, ez dakite oraindik zenbat parte hartzaile izango diren: "Iaz izan genuen partaide kopuru bera badugu, ez dugu arazorik izango saioak emateko. Agian, helduen taldean kome-niko da bi taldetan banatzea, baina urrira arte ez dugu jakingo. Zubiatek bi sarrera ditu, eta badugu espazioa segurtasun neurriak ondo errespetatzeko. Hala, izen-ematea ireki berri, herritarrek animatu nahi ditugu buztinaz goatzera", adierazi du Olatz Pagaldayk, Buztinate buztzingintza elkartearen kidea.

Kiroldegiko igeriketa saioak

Manuel Muñoz kiroldegiak, bestealde, haurrentzako igeriketa ikastaroak eskaintzen ditu, eta aurten ere eskainiko ditu. Urriaren lehen hasiko dira, eta, sei laguneko taldeetan banatuta, 45 minutuko saioak izango dituzte. Garbitasun neurriak kontutan izanda, talde gehiago ere jarri dituzte, eta ikastaroen iraupena, berriz, jaitzi.



RAMON FERRER

Longas Trail proban bigarrena

Josu Galvez eskoriatzarra bigarren postuan sailkatu zen joan den zapatuan Zaragozan egindako Longas Trail lasterketan. *No hay pitera, subida al cielo de las Cinco Villas* izeneko lasterketak 18 kilometro eta 1.000 metroko desnibel positiboa du, eta pozik agertu da Galvez, sei hilabetean lasterketarik egin barik lehen aldiz proba hori egin eta lortutako emaitzarekin.

Hiru Handiak prestatzeko, 'Leintzeko bostak'

Makatzgain, Kurtzebarri, Udalatx, Orixol eta Jarindo; bost gailur horien arteko ibilbidea egin dute Beñat Agirreurreta eta Asier Urizar gatzagarrek, Hiru Handiak proba prestatzeko. Hala ere, aste honetan adierazi dute bertan behera geratu dela

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Asier Urizar eta Beñat Agirreurreta gatzagarrek *Leintzeko bostak* izenpean ibilbide ederra egin dute oporraldian, urriaren 17an egitekoa zen 22. Hiru Handiak mendi lasterketa proba berrira entrenamendu gisa. Aspaldidanik egiteko gogoak zeukaten erroka gauzatuta, entrenatzen jarraitzen dute.

05:30ean Leintz Gatzagatik irtenda, honako zirkular hau egin zuten bi mendizaleek: Gatzaga-Makatzgain-Kurtzebarri-Urkulu-Larriño-Bedoña-Kurtzetxiki-Arrasate-Udala-Udalatx-Besaide-Tellamendi-Zabalaundi-Orixol-Kruzeta-Jarindo-Gatzaga. Guztira, zortzi ordu eta 45 minutuko mendi buelta egin zuten, 56 kilometro gauzatu, 3.200eko desnibel positiboarekin. Hain zuzen, *Leintzeko bostak* izenpean batailatuta egingo dute bidea.

Hiru Handiak proba berrira

Hiru Handiak mendi lasterketa egin gura zuen Beñat Agirreurretak, eta proba hori prestatzeko aspaldi egin nahi zuen Debagoienan dauden Makatzgain, Kurtzebarri, Udalatx, Orixol eta Jarindo arteko ibilbidea, entrenamendu gisa. "Gure bailaran ditugun inguruetakoa



Beñat Agirreurreta eta Asier Urizar mendian gora. BEÑAT AGIRREURRETA

zenbait tontorretara igo gara; paisaiak gozatu, eta nekatu arren, ibilbide ederra egin dugu entrenamendu gisa". Urriaren 17an zen egitekoak Hiru Handiak mendi lasterketa-Gorbeia (1.431 metro), Anboto (1.331 metro) eta Aizkorri (1.528 metro) tontorrek zeharkatzean dituen proba-, baina bertan behera geratu da aste honetan. Segurtasun plana diseinatzen aritu diren arren, 1.000 pertsona inguru batzen dira lasterketan, eta irteerarako eta anoa postuetan dago arazo nagusia. Hala,

segurtasuna ezin dutenez bermatu, ez da egingo.

Urizarrek ezin bukatu

"Nirekin batera Asier Urizar etorri zen laguntza eskaintzera. Berak ez zeukan asmorik Hiru Handiak egiteko, baina bere laguntza ezinbestekoa izan da. Hala ere, Besaide inguruan orkatila bihurritu zuen, eta 30 kilometroren faltan utzi egin behar izan zuen bidea, pena handiz. Hala ere, halakoetan hobeto da zuzentzeko jokatzeko, lesio gogor bat ez sufritzeko".

Sorpresa Andramaixetan

Andramari egunez meza izan zen, martitzenean, Dorleta Santutegian. Beste hitzordurik ez dute antolatuta jaietara begira; hala ere, sorpresa gisa, joan den zapatuan, herri kirolak izan zituzten San Migel plazan. Bertakoentzat soilik izateko asmoz, ez zuten hitzorduaren berri eman, eta herritar askok sorpresaz hartu zutela ekitaldia adierazi dute udal ordezkariak.



GARAZI OROBENGOA

Eskolaz kanpokoak ere martxan, "oso gogotsu"

Musika eskolak, futbolak, eskubaloiak, saskibaloiak, igeriketa taldeak eta pilota sailak abiatu dute ikasturte edo denboraldia, normaltasun berrira egokituta; egoera zaila bizi dute bereziki eskubaloiak eta saskibaloiak, Labegaraietako kiroldegia obretan dago-eta

Jokin Bereziartua BERGARA

Hezkuntza komunitatearen gehiengoak astelehenean ekin zion ikasturte berriari, normaltasun berrira egokituta (Ikus 4. orria). Hala ere, herritar gehien batu ohi duten eskolaz kanpoko jarduerak ere abiatu dira: "Ilusioz, baina kezka". Musika eskolan, esaterako, martitzenean hasi ziren. "Aurkezpena eta instrumentuen araberako ordutegien banaketa presentziala izan da orain arte, baina aurten telefono bidez egin dugu", zehaztu du eskolako zuzendari Marije Ugaldek. COVID-19ari aurre egiteko ondo prestatuta daudela dio: "Uztailean dena ondo antolatuta utzi genuen eta irailerako dena ondo prest. Oso gogotsu gaudu ikasturteari ekiteko".

Gainera, klase asko partikularrak izanda eta gelak handiak direnez, neurriak zorrotz betetzea bermatuta dute: "Gela guztietan ditugu leiho handiak aireztatze-ko, pasillo eta sarrera zabalak ditugu... Zorte handia dugu alde horretatik". Gainera, herriko bandak eta orkestrak orain Zabalotegin entseatzeko dutenez, gela hori erabili dezakete eskola barruko talde handiaren entseguetarako, eta positiborik balego ere gertu dute isolamendu gela: "Ea ez dugun erabili beharrik".



Martitzen arratsaldean hasi zuten ikasturtea musika eskolan. BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

Ikasle kopuruan aldaketa gutxi

Matrikulazio epea irailaren 25era arte dago zabalik, eta bi modu daude: 943 76 57 80 telefono zenbakira deituta edota *bme.e.telefonica.net* helbidera idatzita. Ugaldek dioenez, ez dute jaitsiera handirik espero matrikulazioetan: "Gaur-gaurkoz, 550 bat ikasle gara eta ez gaude beste urte batzuetako kopurutik urrun". Hori bai, erabateko inognita dena da ea noiz helduko diren eskolaz kanpoko emanaldiak. "Entseguak dira gero egingen den lana kaleratzeko, baina,

oraingoz, erabatekoa da ezjakintasuna. Ea gauzak ez diren gehiago okertzen...", dio Ugaldek.

Futbola: 300 jokalaria, 16 talde

Kirol jardueretan ere hainbat bergarar dabilta urtero. BKEko futbol sailak, adibidez, 300 jokalaria federatu baino gehiago izango ditu 2020-2021 denboraldian, 16 taldetan banatuta -horietatik bost emakumezkoak dira- eta futbol eskola kontatu gabe. "Orain artekoak entrenamendu saio lasaiak izan dira, erritmoa hartzen hastekoak. Neurri berrie-

tara ohitzeko ere balio izan dute: tenperatura kontrola, distantziak... Aldagelak ezin erabiltzea da arazo handiena, eta lan saioen iraupena ere moztu egingo dugu jokalaria pilaketak ekiditeko", dio elkarteko presidente Iosu Elorzak. Aste honetan Euskal Ligako eta gainontzeko Ohorezko taldeak itzuli dira eta hurrengo asteetan hasiko dira beste guztiak. Infantilak, alebina eta futbol eskolakoak noiz hasiko diren zehazteke dago.

Pandemiaz gain, kiroldegi barik

BKEko eskubaloia eta saskibaloia sailekoen egoera askoz konplikatuagoa da: pandemiari gehitu behar zaio gutxienez urtarrilera arte kiroldegi barik egongo direla. Izan ere, Labegaraietako kiroldegia eraberritzeko lanen amaiera data 2021eko urtarrilerako dago zehaztuta, baldin eta ez atzerapenik ez badago. Eskubaloikoak martitzenean hasi ziren entrenatzen, Martinez de Irala ikastetxeko gimnasioan. "Oso txikia da gimnasioa, eta Labegaraietan eskura genituen hainbat gauza igartzen ditugu faltan. Baina hau da duguna eta aurrera egin beharko dugu. Ez dakigu liga noiz hasiko den eta oraindik zehaztu gabe dago zein kantzatan lehiatuko garen; hasiera oso gogorra izango da", dio Josetxo Muniategik. 120 bat jokalarirekin abiatuko du ezohiko denboraldia, emakumezko hiru talderekin eta gizonezko bostekin.

Saskibaloikoak, berriz, Mariaren Lagundian hasi dira entrenatzen. Hamar talde dira, emakumezko bost eta gizonezko bost; 110 bat jokalaria. "Dena dago airean, hartzen dugun edozein erabaki alda daiteke. Pandemia min handia ari da egiten", dio Marian Mellado arduradunak.

Ura sentitu nahi duten 85 igerilari Martxotik uretan entrenatu gabe egon ostean, eguaztenean bueltatu ziren igeriketa taldekoak. "Euskadiko txapelketarako egin genuen lan guztia ezerezean utzi zuen birusak; uretan konstantea izan beharra dago, bestela behar galtzen da-eta sasoia. Kadeteak baino gazteagoak dira gehiengo gurean eta eurak ere entrenatu ahal izateko lanean ari gara; izan ere, gazteenak dira kirola egiteko behar handien dutenak euren garapenerako", dio Xabi Labaka entrenatzaileak. 85 igerilari dira guztira, eta ez dute lehiatzeko datarik: "Arduradunaren arabera, ez da lehiaketarik aurreikusten urtarrilera arte; lehiaketak ematen digu entrenatzeko pizgarria, baina hau da egoera".

Pilotan ere "hainbat buruhauste"

Irailaren 3an hasi ziren federatutako pilotariak entrenatzen, kadete, gazte eta senior mailetan. Infantilekin eta gazteagoekin ez dute zehaztuta zer egin, Diputazioaren zain daudelako. 27 pilotari dira taldean. "Hainbat protokolarekin aritu gara eta arduradun bat izendatu dugu positiborik izango balitz haren-gana jotzeko... Egoera ez da erraza", dio zuzendaritzako Julen Aranburuk. Gaur jokaturako den Soralue txapelketako finalerako ere "hainbat buruhauste" dituzte: "Elkarteko kide batzuk mobilizatu beharko ditugu dena ondo antolatzeko".

MAILA GAZTEENETAN DIPUTAZIOAK ZER ESANGO ZAIN DAUDE HERRIKO KIROL TALDE GARRANTZITSUENAK

Jabekuntza eskola: bi ikastaro berri emakumeak ahalduzko

Irailan eta urrian izango dira autoestimua feminista eta 'Nire barneko haurra besarkatzen' izeneko tailerrak

J.B. BERGARA

Emakumeen parte-hartze soziala eta politikoa sustatzea helburu duen jabekuntza eskolaren hirugarren aldia gertu dauka Udaleko Berdintasun Sailak: "Emakumeon banakako zein

taldekako jabekuntza bilatzen dugu, eta ahalduzko prozesuen bitartez Bergara justu, anitz eta osoagoa lortzea". Ikastaro berri bi antolatu dituzte irailerako eta urrirako: irailaren 21ean hasiko den autoestimua feminis-

ta eta urriaren 17an eta 18an izango den *Nire barneko haurra besarkatzen* izeneko. Doakoak dira, emakumei zuzenduta, eta matrikulatzeko epea ikastaroa hasi baino bost egun lehenago bukatuko da. Saioren hizkuntza izena emandakoan arabera zehaztuko da; beharko balitz, zaintza zerbitzua jarriko litzateke.

Informazioa eskatzeko edo izena emateko bi bide daude: 943 77 91 00 telefono zenbakira deituta edo *berdintasuna@bergara.eus* helbidera idatzita.

OHARRAK

Aisa: atzeritarrendako euskara ikastaroa

60 orduko ikastaro berezi bat prestatu dute, 16 urtetik gorakoiei begira. Izena eman daiteke irailaren 28ra arte: 943 76 44 53.

Bisita gidatuak hilaren 15era arte luzatu dituzte

Laboratorium museoen, hiri monumentalaren eta lorategi historikoen bisitak egin daitezke oraindik, 11:00etan eta 12:30ean. Izena emateko: 943 76 90 03 edo *turismoa@bergara.eus*.

'Bautista leprosua' izeneko bisita gidatua

Bihar, 23:00etan, Bergarako kronika beltzaz gozatzeko aukera egongo da, Ugutz Basauriren ahotik. Aldez aurretik txanda hartu behar da honako telefono zenbaki honetan: 695 75 34 30.



Eguaztanean argazkia atera zuten Euskaraldiarekin bat egin duten Bergarako entitateek pilotalekuan. JONE OLABARRIA

Aurtengo Euskaraldiaren alde, entitateen argazkia

Ehun pertsonatik gora batu ziren Euskaraldiarekin bat egiteko argazki erraldoian, eguaztanean, herriko pilotalekuan. "Emandako babesak islatzea eta falta diren entitateak xaxatzea" zuen helburu ekitaldiak; irailaren 27ra arte eman daiteke izena

Aitziber Aranburuzabala BERGARA

Azaroaren 20an hasi eta abenduaren 4a bitartean egingo dute Euskaraldia. Arigune izango diren entitateetan jarri nahi izan dute fokua aurtan eta prestateta lanetan murgilduta ari dira herri guztietan. Euskal Herrian 2.000 entitatek eman dute izena; Bergaran dagoeneko 150 dira, eta antolatzaileak pozik dira orain arteko erantzunarekin. Hala azaldu du Euskaraldiko Bergarako dinamizatzailer Asier Kortabarriak: "150 entitatek gora daude herrian Euskaraldirako izena emanda, eta 300 bat arigune sortu dira, gutxienez. Jende askok egin du batzordeetan lan, hainbat taldeetan banatuta; egoerak ez du askorik samurtu, eta pozgarria da egindako lanak fruitua eman duela ikustea. Pilotalekuan egin dugun ekitaldiaren helburuak izan dira, batetik, dagoeneko babesak eman duten herriko entitateak islatzea, eta, bestetik, beste entitate batzuk bat egitera xaxatzea".

Gorka Artola alkatearentzako garrantzitsua da bigarren Euskaraldiarekin bat egitea. "Uste dut lehenengo Euskaraldiak argi erakutsi zuela hizkuntza ohiturak aldatzen saiatzeak eragin nabarmena duela, eta pauso handiak eman direla bertako euskara erabileran. Uste dut Euskaraldia garrantzitsua dela, pandemiak sortu duen testuinguruan, bereziki, erdarak indar handia duen tokietan euskarak presentzia handiagoa izateko. Bergaran Euskaraldiak egoera moldatzen jakin izan duela esango nuke, dinamizazio potentzia izan du, eta espero dut irail bukaera bitartean parte hartzaileak areagotzea eta horrek gero ere erantzuna izatea".

PROFIL ASKOTARIKO 150 ENTITATEK BAINO GEHIAGOK EMAN DUTE IZENA, ORAINGOZ, EUSKARALDIAN

Askotariko profiletakoak

Izena eman dutenen artean ez dago profil zehatz bat, herrian dauden entitate mota guztietakoak batu direla dio Kortabarriak: "Horien artean daude ikastetxeak, kirol entitateak, askotariko elkarteak, dendak, tabernak, zerbitzu emaileak...".

Begarako Musika Eskolako zuzendari Marije Ugalde ekital-

dian izan zen. "Gure eskola, orokorrean, euskalduna da, baina ikasgeletatik kanpo ere erabilera sustatzen saiatu behar dugu. Horretan eragin nahi dugu Euskaraldiarekin bat eginda". Maitane Azkarate izan zen Belkar merkatari elkarteko ordezkaria eta berretsi egin du Euskaraldiarekin bat egitearen garrantzia: "Herriko komertzioak euskararekin bat izan gara beti; denda gehienetan jarduten dugu euskaraz, eta ele bitan egiten ditugu elkartearen batzarrak".

Lokatza txirringulari elkartearen historikoki klub euskalduna dela dio elkarteko presidentea Jon Unamunok, eta horregatik ez dutela zalantzarik izan Euskaraldiarekin bat egiteko proposamenari baiezkoa emateko: "Entrenatzaileek txirringulariei euskaraz egiten diete eta txirringularien artean ere hala da, orokorrean. Zuzendaritza barruan euskaraz funtzionatzen dugu, baina, autokritika moduan doa, garai batekoak, akaso, euskaraz gehiago egiten zutela".

Herriko enpresetan ere euskaraz jarduten dutela gaineratu du Enpresarean-eko ordezkari Juan Bautista Aierbek: "Ditugun hamasei enpresa txikietan eta baita sei enpresa handiagoetan ere euskara da, gehienbat, erabiltzen den hizkuntza, nahiz eta euskaraz jarduten ez duten bi enpresa integratu diren gure taldera. Elkarteko enpresa bakoitzak euskararekiko bere helburuak finkatu ditu, eta guk, elkarte moduan, euskarari helitzen jarraitzeko asmoa dugu".

Izen ematea, irailaren 27ra arte

Entitateei azken bultzada emateko ahaleginetan ari da herriko batzordea, eta norbanakoen kanpainari helduko diote gero.



NIRE USTEZ

MIGUEL LAZPIUR

Zeinek isurtzen du CO2 gehiago?

Alemaniar zientzialarien ikerketa berri batek dio auto elektriko batek diesel batek baino CO2 gehiago isuri dezakeela bere bizitzan zehar.

Ikerketa CO2-an zentratu da, partikula finak eta nitrogeno oxidoak aparte utziz (NOx eta NO2); auto elektrikoak ez ditu bi kutsatzaile horiek igortzen.

Berotegi-efektuko gasaren kutsatzaile nagusia da CO2a, eta baita beroketa globalaren arduraduna ere.

Ikerketaren arabera, Tesla Model 3 Long Range batek 170 ZPko Mercedes C220d Blue Tec diesel batek baino %11 eta %28 CO2 inguru gehiago isurtzen du bizitzan zehar.

Bi faktorek eragiten dute ibilgailu baten kutsadura: lehenik eta behin, nondik datorren energia. Bigarrenik, autoaren eta baterien fabrikazioan kutsatzen dena. Bi puntu horietan, asko baldintzatzen dute zein herrialdeetan egiten diren eta non erabiltzen den autoa.

Frantziar auto elektriko batek 13 g/km CO2 isuriko luke, 58 g/km Espainian, 95 g/km Alemanian eta 170 g/km Polonian, erregai fosil gehiago erabiltzen diren arabera.

Txinan, 136 g CO2 isurtzen dira kilometro bakoitzeko. Honek hiri handietako kutsadura murriztu dezake, baina, elektrizitatea sortzen den lekua kutsatzen da. Guztioi eragiten digu.

GLOBAL STUDIES

Ingeleseko eskolak: maila guztiak eta 3 urtetik aurrera
Irakasgai guztietarako laguntza eskolak

Beste hizkuntzak: alemana, frantsesa...

San Lorenzo 23, beheka 1 - BERGARA • Tel.: 943 22 93 24 - 605 76 32 72
global_studies_academy@yahoo.es

Ortutik kalera, murriztua, lekualdatua eta lehiaketa gabeko azoka izanda ere

Jairik egongo ez den arren, bertako ekoizleei laguntzeko asmoz azoka txiki bat antolatu du Udalak zapatu goizerako, hamar ekoizlerekin; Fraiskozurin egingo da eta ez da sanmartinetako azokaren bereizgarri ziren fruta, barazki edota gazta lehiaketarik egingo

Jokin Bereziartua BERGARA

Sanmartinetako azoka handirik ez da egongo bihar, baina egongo da bertako eta sasoiko produktuak erosteko aukera. Izan ere, araudiak baimentzen duenez, azoka mugatu bat egitea erabaki zuen Udalak, eta herriko, bailarako zein gertuko hamar ekoizle gonbidatu dituzte udako produktuak salgai jar ditzaten. Fraiskozurin egingo da azoka, 09:30etik 14:00etara, normaltasun berrira egokitutako neurriekin; zirkuitu bat zehaztuko dute,

segurtasun distantzia ahalik eta ondoen errespetatu daitezten.

Hamar ekoizletatik laurekin egongo da GOIENA, biharko azoka berezirako prestaketak nola joan diren galdetzeko: Ane Gorosabel, Amaia Laskurain eta Txomin Alberdi, Joxe Lonbide eta Tomas Larrañaga.

Gorosabel: saltzeko itxaropentsu

Ane Gorosabel arrasatearrak dio uzta ona izan dutela Bergarako Elkoro baserrian: "Uda lehorra izan dugu, bero han-

diarekin eta ur gutxirekin. Horrek ekarri du, adibidez, lekak ohi baino lehenago lehorteza eta kalabazak beste urte batzuetakoak baino txikiagoak izatea. Baina, orokorrean, ondo joan da". Udako askotariko barazkiak eramango ditu bihar Fraiskozurira: tomateak, piperrak -morroiak, italiarrak, piperrak eta landetakoak, besteak beste- erremolatxa, berenjenak, patatak, tipula, potxak, arrautzak, zukuak... Sanmartinetako ohiko azoka ona izan

ohi da baserriar gaztearendako: "Oxirondoko plazan jende asko elkartu ohi zen, eta giro polita sortu. Herritarrei gustatzen zaie gertuko ekoizleekin egotea eta bertako produktuak erostea. Bizi dugun egoera ikusita, azoka murriztua izango dela eta beste leku batean izango dela jakinda, ikusteke dago salmenta aldetik nola joango den... Hala ere, baikorrak gara eta badugu itxaropena ondo saltzeko; bizi dugun garai ero honetan balio handia hartu dute gertuko erosketek".

Konfinamendua baserrian "eramangarriagoa" egin zaiela dio Gorosabelek: "Pisu batean sartuta egon behar izan duten alderatuta askoz hobeto egongo gara baserrian, zalantzarik gabe; gure lana ez da gelditu eta ahalbidetu digu, behintzat, aire librean ordu asko egitea. Lanerako denbora gehiago izan dut eta pertsonalki ondo eroan dut". Salmentetan aldaketak egin behar izan dituzte eta biharkoa moduko azokak "oso garrantzitsuak" dira euren dako. "Azken hilabeteetan askotan hitz egin da bertakoaren eta

sasoikoaren garrantziaz kontzientziatu garela, baina hori ere ikusteke dago; ea bizitakoa ez dugun ahazten...", gaineratu du ekoizle arrasatearrak.

Lonbide: saria frutetan, iaz

Aretxabaletako Joxe Lonbideren arabera, ona izan da aurtengo uzta. "Gauak hotzak izan dira eta honetan eta horrek kalte apur bat egin dio uztari. Hala ere, zapatuko [biharko] azokarako askotariko produktuak ditut gertu". Tomateak, askotariko piperrak, berenjenak, dozena erdi meloi, lekak, kalabazinak, zerbak eta askotariko frutak eramango ditu. 30 urtetik gora daroatza Lonbidek sanmartinetako azokara joaten, baina aurtengo egoeraren antzekorik ez du bizi izan.

Bergarako azoka nolakoa den galdetuta, honako hau dio: "Azken urteetan beharantz zihona nabarmen, orokorrean azoka guztiakin gertatzen den bezala". Horrez gain, lehiaketarik ez egotea ere penaz hartu du Lonbidek; ezin da ahaztu iazko azokako fruten lehiaketan hirugarren saria eskuratu zuela.



mascarillasbergara.com

Indartu zure enpresaren marka

Maskara berrerabilgarriak eta pertsonalizatuak

Egizu zure eskaera. 678 43 31 03

Gu ere bergararrekin!



- AHOLKULARITZA FISKALA
- AHOLKULARITZA LABORALA
- KONTABILITATEAK
- ERRENTA AITORPENAK

- USUFUKTU DOHAINTZAK
- HAINBAT ZERBITZU
- GESTORETZA

Gu ere bergararrekin!

Ibargarai 18, behea - BERGARA • Tel.: 943 76 12 28
Faxa: 943 76 38 36 • lauki@asesorialauki.com



Tomas Larrañaga, Lapatza baserriko ortuan, abuztuaren 31n; biharko azokan udako hainbat produktu izango ditu. AITOR AGIRIANO

Larrañaga: Bergarara itzulera

Antzuolako Lapatza baserriko Tomas Larrañaga aspaldiko partez itzuliko da sanmartinetako azokara. "Lehenago, urtero joaten ginen, eta urte batzuetan joateri utzi genion. Lehiaketarik

ez da egingo, erakusketa eta salmentarako bakarrik izango da. Baina kalean egongo gara berriro, hori ona da". Uztaz galdetuta, tomatearekin gertatutakoa jarri du adibide gisa Larrañagak: "Udaberria oso freskoa

eta umela egin zuen; kanpoan ez dago tomate askorik, baina berotegietan ondo joan da azken hilabetera arte. Izan ere, azken hilabetean bero larregi egin du eta tomate batzuk erre edo ego-si egin dira. Tomate ona dago,

baina uste dut beste urte batzuetan hobeak egon izan direla".

Askotariko gaztak Antzuolatik

Antzuolan duten gaztandegian dihardute buru-belarri Amaia Laskurainek eta Txomin Alberdik. Diote COVID-19ak ez duela eragin handirik izan ekoizpenean. Salmentetan, baina, eragin zuzena izan du birusak: "Azoka berezietan saltzen genuen orain arte, baina orain ez direnez egingen, beste modu batzuk bilatu behar izan ditugu. Horregatik, Bergarako, Oñatiko eta Antzuolako ohiko azoketan egoten gara, eta baita Biolurrek antolatzen dituen azoka ekologikoetan ere".

Hiru gazta mota eramango dituzte Fraiskozurira bihar: gazta ondua, hainbat zapore dituzten gazta laktikoak eta mami biguna duten gaztak; gazta urdina eta beste indartsuagoak bukatu egin zaizkiela diote. Iazkoa izan zen sanmartinetako lehen azoka eta oroitzapen ona gordetzen dute: "Iazkoa ona izan zen guretako. Gaztandegia Antzuolan izanda jendeak ezagutzen gaitu eta horrek beti errazten du salmenta".

Gertuko hamar ekoizleren gutziak salgai

Bertako ekoizleen lanari balioa emateko eta, ahal den heinean, laguntzeko, Udalak azoka murriztua antolatzen du. Fraiskozurin egingo dute, normaltasun berrira egokitutako neurriekin. Gertuko hamar ekoizle izango dira bihar Fraiskozuri plaza ondoko errepidean egingo den azokan: Mari Carmen Etxeberria, Ane Gorosabel, Gaizka Olabarrieta, Josebe Blanco, Ezoz Etxeberria, Amaia Laskurain eta Txomin Alberdi, Urtza Sarrionandia, Jon Ruiz de Egin, Tomas Larrañaga eta Joxe Lonbide. Hamar horietatik, zortzik barazkiak eta frutak jarriko dituzte eta beste bi askotariko gaztak saltzera joango dira: Amaia Laskurain eta Txomin Alberdi eta Josebe Blanco.

Alberto Gorosabel Mendizabal eta Andrea Gorosabel Badiola doktoreak



RPS: 258/18

943 76 56 88 • 618 95 90 17
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA
www.gorosabeldental.com

- Ortodontzia. Odontopediatria. PADI (Osakidetza).
- Estetika eta hortzen zuritzea TEKNIKA BEREZiarekin.
- ESKANER DIGITALA diagnostiko zehatzak egiteko.
- AHO eta INPLANTEEN KIRURGIA punta-puntako teknologiarekin.
- PRGF (PLASMA).
- SEDAZIOarekin, nahi baduzu, kirurgia eta gainontzeko tratamenduak.

Guz ere bergararrekin!

1990. URTETIK ZUEKIN BERGARAN. ESKERRIK ASKO DENOI!



INDUSTRIAS **FEGAR, S.A.**

www.fegar.com



Guz ere bergararrekin!



Sanmartinetako ekitaldi maitatuenetakoa, balkoi eta leihoetatik aurten

Indarrean dagoen legediak ez du danborrada gisako ekitaldirik egitea baimentzen; hortaz, Udalaren Youtubeko kanaletik jo beharko dute aurten danborra herritarrek

Jone Olabarria BERGARA

Euriak zapuztu nahi izan bazuen ere, inoizko danborradarik jendetsuena izan zen iazkoa Bergaran: guztira, 700 lagun inguruk hartu zuten parte 2019an. Hainbat urtez gainbeheran egon zen danborrada bereziko indartsua izan da azken urteetan, talde berrien inkorporazioarekin eta herriko gazteen parte hartze oso handiarekin.

Aurten, baina, indarrean dagoen araudiak ez du baimentzen danborraden gisako ikuskiziu-

nik, eta, hortaz, aurtengo sanmartinetarako beste irtenbide bat proposatu du Udalak: irailaren 15ean, bi makila hartu eta bakoitzak bere balkoi edo leihotik *San Martin martxa* jotzeko gonbita egin du Bergarako Udalak, indarrean dagoen araudira egokitzeko eta, beste urte batez, kalean ezin bada ere danbor hotsek herriko kaleak bete ditzaten.

Bergarako Udalak Youtube plataformako kanaletik eskainiko du martxa eta bertatik jarraitu ahalko da: nagusien

danborradari dagokiona irailaren 15ean, 22:30ean, eta hurrena hilaren 16an, 17:00etan.

Danborradaren moldaketak

Udal biltegitik irten eta San Martin plazaraino danbor hotsak protagonista diren bitartean, behin plazan, Miguel Gonzalez Bastidaren *Nagasaki* martxak protagonismoa hartu eta San Martinen gurutziltzaketaren errepresentazioa egin ohi da.

2012. urtean, San Martin Agirrerren kanonizazioaren 150 urteurrena zela eta, zenbait alda-



Euripean izan bazen ere, orain arteko jendetsuena izan zen iazko danborrada. i.s.

keta egin ziren danborradan eta baita osteko errepresentazioan ere. Urte hartan, gainera, 50 urte bete ziren Fernando Azkargortak eta Simon Arrietak San Martinen omenez Surrako gurutzea egin zutela.

Kaleen sonorizazioa hobetzeaz gain, urte hartatik aurrera gurutziltzaketaren errepresentazio luzeagoa eta landuagoa egin zen. Izan ere, Gonzalez Bastidak 1967. urtean sorturiko *Nagasaki* pieza hura dantza modura sortua izan bazen ere, gutxitan ikusi zuten herritarrek hala, eta bide

horretan berreskuratu nahi izan zuten Valen Moñuxek, gurutziltzatearen arduradun eszenografikoak, eta herritar talde zabal batek.

Japoniar inspirazioa

Koreografiak eta eszenifikazioak 2012tik hainbat moldaketa jasan dituen arren, japoniar inspirazioarekin sortua izan zen. Bandaren laguntzarekin, geishek eta japoniar gorteko soldaduek hartzen dute protagonismoa bertan. Koreografiari dagokionez, aurpegiaren espresioari eta

Bergara ●
metagra
 México ● Group

Gu ere bergararrekin!

Estanpa, mendeurreneko protagonista

Bergarako herriak halako ikuskizunak antolatzen izan dituen eta egun ere baduen tradizioari jarraiki, San Martin martiriaren heriotzaren laugarren mendeurrena ospatzeko San Martinen estanpak egin zituzten udal pilotalekuan, 1997. urtean. San Martinen bizitzaren eta heriotzaren antzeztutako pieza hura, guztira, 4.000 lagunek ikusi zuten, lau saiotan banatuta, baita ETBk egindako saio berezi batean.

Herritarrek protagonista

Bi ordu iraun zuten emanaldietan 400 herritarrek baino gehiagok hartu zuten parte; 110 musikarik, 150 abeslarik eta 170 aktorek. 1957an estreinatutako Euskal Estanpetarako Miguel Gonzalez Bastidak idatzitako *San Martinen Estanpa* partituran oinarrituta zegoen, musika herrikoiarekin eta bergarako hainbat ohitura tartekatuz. Alfredo Gonzalez Chirlaque eta Valen Moñux izan ziren musika eta eszena arduradunak orduko hartan.



1997. urteko *San Martinen Estanpa*-ren uneetako bat. 'BERRIGARA'

Japoniara bidaiatik idatzia

San Martinen Estanpa (1997-02-01) ikuskizunerako idatzi zuen Miguel Angel Elkorobezibarrek *San Martin: Gurutzebidea eta Bidegurutzea* 1997-1997 liburua.

26 martirien gurutziltzaketaren laugarren mendeurreneko ospakizunekin batera egileak 1996ko azaroan San Martin gurutziltzatu zuten Nagasakiko Nishizaka mendixkan dagoen 26

Martirien Museoa bisitatu ostean egin zuten liburuxka.

Omenaldi ugari

Bergaran egindako omenaldi eta ekitaldiez gain, Beasainen ere izan zuten gogoan mendeurren hura; Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertu berezia eskaini zuen 1997an, eta haren omenezko kirol jarduerak ere egin zituzten. Nagasakin bereziki jendetsuak izan ziren mendeurren ekitaldiak: lau mila pertsonatik gora batu ziren Nishizaka mendixkan.

eskuen mugimenduari garrantzia eman nahi izan zioten emanaldia sortzeko orduan.

Bergaran ala Beasainen?

Bergarrek herriko figura modura hartu zuten aspaldi San Martin Agirre, baina litekeena da gurutziltzatu hil zen San Martin hura ez izatea Agirrekoa, baizik eta Loinazkoa, eta ez izatea bergararra, baizik eta beasainarra. Izan ere, San Martinen bizitzaren lehen lekukotza zehatzak ikasle garaikoak dira, eta horri esker dakigu Madrilgo Alcalako Unibertsitatean ikasi zuela.

Bere jaiotzaren datuak, baina, ez dira guztiz argiak. Bergaran zabalduak teoriaren arabera, Martin Agirre Arrijola 1567ko irailaren 11n jaio zen, Bergarako Kokote auzoko Zabaleta-Txiki baserrian. Beasaindarrek, ordea, Martin Loinaz Amunabarro 1566ko uztailaren 16an Beasaingo Amunabarro baserrian jaio zela uste dute.

Egun lehiarik ez dagoen arren, antzina garrantzi handiko kontua zen. Hala, 1928. urtean, San Martin Agirrerren omenezko prozesioa debekatu zuen apez-

pikuak, beasaindarren alde eginda. Herritarrek, baina, prozesioarekin jarraitzea erabaki zuten, nahiz eta apaizik ez zen izan bertan.

Martin Igokundekoa

Jaiotza-lekua zehazki jakin gabe, argia omen zen, eta, 17 urte zituela, Alcalá de Henaresera joan zen, apaiz ikasketak egitera. Hala, 1585an abitua jantzi eta Guadalarako komentu batean sartu zen, eta Martin Agirre Igokundekoa izena hartu zuen. Geroago, Alcalako Unibertsitatean itzuli zen, Filosofia ikasketak bukatuz, eta, ostean, lau eman zituen Madrilgo San Bernardino komentuan, Teologia ikasten.

Gurutzean hil zutenekoa

1596ko ekainean iritsi zen Nagasakira (Japonia). Urte hartako abenduan San Martin zegoen komentura sartu, eta Meakora eraman zuten. Meakotik Nagasakira oinez joanarazi zituzten kondenatu guztiak. Otsailaren 5ean, Nagasakiko mendi tontorrera eraman, eta, guztira, 26 martiri gurutziltzatu eta gorputzean lantzak sartuta hil zituzten.

ESTELLA
FARMACIA-ORTOPEDIA SEKZ.
Matxiategi 5 • Bergara • 943 76 19 63

Gu ere bergararrekin!

RF8: 227/18.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

Gu ere bergararrekin!

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Dantza askatua, Moises Azpiazu gogoan hartzeko

Moises Azpiazu dantza txapelketak urteurren borobila izango du aurten, hogeita hamabosgarrena; Azpiazu izan zen dantza askatuaren sustatzaile nagusia Bergaran, eta 1985. urtean egin zuten lehenengoz haren omenezko txapelketa, hil eta bi urtera



Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo, iazko txapelketan. BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

Eneko Azurmendi BERGARA Seminararioan egingo dute, gaur, egubakoitza, bikote nagusien dantza askatu txapelketa. 19:30ean hasiko da saioa eta hamalau bikotek hartuko dute parte; tartean, Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo bergararrek.

Orain arte, Zarautzen eta Donostian izan dituzten bi txapelketetan bigarren sailkatu dira, eta orain, etxean aritzeko gogoz daude. "Txapelketa herrian izateak beti dakartza urduritasunak, baina ez dago aitzakiarik, eta helburua da orain arte eman dugun maila ematea. Izan ere, bi txapelketen ostean, lasaitu egin gara, ikusi dugu biok nola

gauden, eta hori ere inportantea da", nabarmendu du Galarragak.

Adierazi duenez, urte arraroa izaten ari da aurtengoa. "Normalean, uda hasieran hasten ditugu txapelketak. Beraz, oraindik probatzen eta sentsazioak berreskuratzen ari gara, baina gustura gaude egindakoarekin".

Moises Azpiazu dantza taldeko Maite Lazkanok ere indartsu ikusten du etxeko bikotea. "Oso ondo daude, gogotsu eta gogor. Ilusio handiarekin ikusten ditut, eta azken urteetako maila ederra mantentzen dute", dio.

Maskara, dantzatzean izan ezik Esan moduan, hamalau parte-hartzaile izango dira gaur, eta antolatzaileak oso pozik azaldu dira kopuru horrekin. "Azkenaldian dabilen dantzari kopurua kontuan izanda, oso egokia da", dio Lazkanok.

Pandemia dela eta, gainera, dantzariak maskara jantzita izan beharko dute une oro, dantza egiten duten unean izan ezik. Oholtzara ere maskara jantzita igo beharko dute, eta dantza egiten hasi aurretik zorro batean gorde beharko dute.

"Dantzari gisa dotorea zen"

Moises Azpiazu gogora ekarri du Lazkanok. "Ume-umetatik dantzan ikasten hasi zen, eta baita dantza soltean dantzari gisa sendotu ere. Urteen poderioz, dantza irakasten hasi zen, eta izugarritzko ikasle kopurua izan zuen, 1971tik 1983ra arte, gutxi gorabehera. Arrakasta handia izan zuen eta bikote pila bat atera zituen aurrera. Bereziki fandangoaren eta arin-arinaren espezializazioa landu zuen", azaldu du.

Hori dela eta, hura hil eta bi urtera, 1985ean, haren omenezko dantza askatu txapelketa sortu zuten, aurten hogeita hamabost urte beteko dituen. "Dantza soltearen sustatzailea izan zen Bergaran. Garai hartan, txikien mailako txapelketak bakarrik egiten ziren, baina, hari esker, nagusi mailako txapelketak ere egiten hasi ziren". Gaur egun ere biak egiten dira, Pentekosteetan eta San Martinetan.

Azpiazuren izaeran konstantzia, ilusioa, pasioa eta zorrotasuna nabarmendu ditu Lazkanok, eta, dantzatzeako moduari dagokionez, berriz, dotorezia.

TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku
Fabrikako preziotan

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelehenetik
larunbatera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara zabalik

Gu ere
bergararrekini!

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain

ALFONBRAK

Boluko frontoira itzuliko dira kontzertu formatuan

Bandak irailaren 20an emango du pandemiako lehen zuzeneko, eserita, eta San Martin jaietako ohiko doinurik ez da faltako; ikasturtea Zabalotegin entseatzeko hasi dute, eta areto itxietan jo nahiko lukete: "Frogatuta geratu da leku itxietako kontzertuak seguruak direla"

Jokin Bereziartua BERGARA

San Martin jaietako klasiko bat izaten zen bandaren kontzertua. Jairik ez da egongo aurten, baina, Udalak kultura sortzaileak babesteko hartu duen erabakiaren barruan, bandak kontzertu berezia eskainiko du irailaren 20an. Berezia izango da, besteak beste, Boluko frontoian joko dutelako, orain arte sekula jo ez duten tokian. "Zuzendari hasi nintzenez asmoetako bat bazen kontzertuak leku berrietan ere ematea, eta Boluko frontoia aukera moduan aurreikusita genuen. Orain, derrigortuta goaz, hobe da eta kalean jotzea. Leku irekia da Boluko frontoia, baina esta-



Normaltasun berrira egokitutako bandaren entsegua, Zabalotegin. BERGARAKO BANDA

lita dagoena", dio bandako zuzendari Enrike Txurrukak. Hala ere, leku itxietan ere jo nahiko lukete udazkenara begira: "Orkestra profesionalen txostenetan frogatuta geratu da instrumentu bati putz egiteak arrisku txikia goa duela berba egiteak baino. Frogatuta dago, beraz, neurriak hartuta areto barruko emanaldiak ere seguruak direla".

'San Martin estanpak' zuzenean

Irailaren 20ko kontzertuak sanmartinetako kutsu nabarmena izango du: "Konpositore handiak izan ditugu Bergaran eta badiugu egun bereziatarako propio sortutako obrak. *San Martin estanpak* eta halako pieza ederrak ez jotzea pena litzateke; irailaren 20ko kontzertuan doinu horiek ez dira faltako". Martxotik kontzerturik emateke, ekainaren 28an kalejira egin zuten, geldialdi batzuekin. Uztailean kontzertua eman behar zuten Espoioian Santa Marinako ez-jaien barruan eta Antzuolan ere kalejira egin behar zuten, baina bandako kide baten gertuko batek positibo eman ostean bertan behera utzi behar izan zuten.

Entseguak normaltasun berrian

Ekainean musika eskolako ohiko lokalean entseatzeko aritu ziren, baina, 60 lagundik gora direnez eta bertan normaltasun berriak eskatzen dituen neurriak beteta sartzen ez zirenez, Zabalotegin entseatzeko dute. "Ekaineko entseguak bi taldetan egin genituen, baina hori ez zen funtzionatzeko modua. Honek luze joko duenez, irailarako eskatu genion Udalari Zabalotegi", esan du Txurrukak. Martitzenetan eta eguenean entseatzeko dute, 21:00etan.

Urte zaila, baina Txurruka "pozik"

"Pozik" dago Txurruka zuzendari gisa egindako lehen urtearekin: "Urte zaila ari da izaten, baina pozik nago etxe barruan eta kalean jaso dudana feedbackarekin. Orain arteko ildoari eutsi diot musikari dagokionez; Gabonetako eta Aratusteetako kontzertuak urteko bi zita garrantzitsuenetakoak dira, eta lan txukuna egin genuen". Dena ondo zihon COVID-19a agertu arte, eta, dienez, orain metroarekin distantziak neurtzen jardun behar izaten du: "Denetarik egin beharra dago".



Ordutegia: 08:30 - 20:30 | Ibargai ibilbidea 11 | Tel.: 943 76 28 92



Eskolaz kanpoko ekintzak ere, martxa berreskuratzen

Zumarragako eta Bergarako musika eskolek asteon hasi dituzte ikasturte berriko aurrez aurreko eskolak Antzuolan. Oinarin dantza taldeak oraingoz ez hastea erabaki du. Kirol arloan, eskola kirolari buruzko Aldundiaren erabakiaren zain daude taldeak

Jone Olabarria ANTZUOLA

Asteon eskolara itzuli ostean, ezohiko normalitatezko beste pauso bat egin dute herriko umeek. Eskolaz kanpoko ekintzak berreskuratzeko asmotan, Antzuolako zenbait eskola eta elkarte hasi dira lanean eta beste hainbat erabakien esperoan daude ikasturteari ekiteko.

Kirola, erabakien zain

Kirol arloko eskolaz kanpoko ekintzei dagokienez, federatu gabeko edota lizentziarik ez duten haurrek ezin dituzte, oraingoz, entrenamendu saioak berreskuratu. Gipuzkoako Foru Aldundiak zehaztu duenez, dena ondo bidean, urriaren 1erako aurreikusten dute entrenamenduetara buelta, baina urtarrilerara arte ez dira hasiko lehiaketak.

Egoera horretan, ikasturte berria ezin hasita daude Antzuolan eskaintzen diren zenbait kirol ekintza. Gimnasia erritmiakoaren kasuan, 10 urtera arte aritzen dira neska-mutikoak Antzuolan, eta gero, Bergaran hasten dira entrenatzen; hortaz, denak eskola kirolaren baitan sartzen dira. Ariznoa elkartetik azaldu dutenez, asmoa urrirako hastea den arren, oraindik dena antolatzeko bilerak egiten dabilta, baita Aldundiaren menpe.

Antzuola kirol elkarteko futbol sailaren kasuan, egoera berean daude eskola kirolean dabiltzan umeak, nahiz eta kadete mailatik gorakoek entrenamendu saioetara bueltatzeko baimena duten. Hala ere, txapelketen itzulera ez dakitenez noiz izango den, oraindik ez dira prestaketa saioetara itzuli maila horretan.

Olaran pilota elkarteko umeak errendimenduzko alebin eta infantil mailetatik aurrera hasiko dira entrenamendu saioetan, hilaren 15etik aurrera. Gurasoekin bilerak egiten dabiltzan arren, taldeak murriztu



Hainbat haur eguaztanean hizkuntza musikaleko eskola batean, Olaranen. B.M.E.

ALDUNDIAK URRIAREN 1ERAKO AURREIKUSTEN DU ESCOLA KIROL ENTRENAMENDUEN ITZULERA

eta zortzi umeko taldeetan egingo dituzte entrenamendu saioak. Eskola kirolaren baitan dauden pilotari txikiak ezingo dira oraingoz frontoira itzuli, baina seguruak diren zenbait ekintza egitea aurreikusten dute hauekin.

Musika arloa, martxan

Antzuolaren kasuan, bi musika eskolaren artean banatzen dute herriko haurren hezkuntza musikala. Bergarako Musika Eskolak piano, gitarra, saxofoi, klarinete eta tronboi eskolak ematen ditu, baita hizkuntza musikala eta ahots teknika. Martitzenean hasi zituzten eskolak, Olaranen, eta, bertako zuzendari Marije Ugaldek azaldu duenez, Eusko Jaurlaritzatik zehaztu dieten protokoloa jarraituko dute. Ikasle guztiak 7 urtetik gorakoak direnez, maskara jarrita hartuko dituzte

eskolak, soilik instrumentua jotzeko unean kenduz, beharrezkoa den kasuetan.

Trikiti eta pandero ikasketei dagokienez, Zumarragako Secundino Esnaola Musika Ikastetxearen ardura da horien eskolak ematea Antzuolan. Astelehenean itzuli ziren berriz ere aurrez aurre ikasleak Olango hirugarren solairura. 8 urtetik gorako umeak dira bertan aritzen direnak, eta, hortaz, maskara jantzita eraman beharko dute une oro. Eskolak banakakoak dira eta haurrek eraikin kanpoan itxaron beharko dute sartzeko. Irakasleak lagunduko ditu sarrerira-irteerara eta gurasoak ezin izango dira sartu.

Dantza, oraingoz, geratuta

Oinarin dantza taldeko kide eta irakasleek, berriz, eskolekin ez hastea erabaki dute oraingoz. Izan ere, hezkuntza zentroetan eskolak hasi berritan, egoera aztertu nahi dute eta erabakia berrikusteko asmoa dutela azaldu dute: "Hilero elkartekoak gara, egoeraren arabera aztertu eta ikasleak noiz eta zer baldintzatan hasiko diren aztertze".



Arrolako kideak, uztailean egindako irteeretako batean. ARROLA ME

Pirinioetako irteerarik gabe ere, hainbat ekintza irailean zehar

Antzuolarren naturgune kuttunak bistartzeko argazki lehiaketa abiarazi du Arrola mendizale elkarteak

J.O. ANTZUOLA

COVID-19 dela-eta aurten ez dute egingo dagoeneko ohikoa den udazkeneko Pirinioetara irteera. Hala ere, datozen asteetara begira zenbait ekintza antolatuko dituzte Arrola mendizale elkarteko kideek.

Ogeiturri eta Kurtzebarri

Irailaren 19an Ogeiturri ingurua garbitzera joango direla jakinarazi dute Arrolatik, eta iturriari plaka bat jarriko diotela. Era berean, irailaren 26an Aretxabaletan Kurtzebarri bira egingo dute, egun osorako.

Lehiaketa, abian

Aurtengo nobedade gisa, *Gure naturgune gogokoena* izeneko ekimena abiatu dute. Bakoitzaren naturgune gogokoena aukeratu, bi argazki atera eta testu erakargarri batekin bidali behar da, arrolamt@gmail.com helbidera.

Arrolatik jakinarazi dutenez, testua nahieran idatz daiteke; olerki, prosa edo bertso modura, besteak beste. Aurkezteko epe-muga irailaren 30a izango da eta jasotako lan guztiak landetxe batean asteburu bat pasatzeko zozketan sartuko dira.



PENTSIODUN MUGIMENDUA

Opor ostean ere mobilizazioak

Astelehenero egin ohi duten moduan elkartu ziren herriko pentsiodunak eta erretiratuak euren eskubideak eta bizitza duina aldarrikatzeko, joan den astelehenean, hilak 7. Abuztuan zehar geldialdixoa egin eta gero, opor osteko lehen elkarretaratzean 25 erretiratu eta pentsiodun inguru batu ziren Antzuolako herriko plazan.



Eskolako obrak direla eta, gazte txokoa zegoen tokian dago une honetan Antzuolako haur eskola. JONE OLABARRIA

Ikasturtea hasi du haur eskolak, hiru umerekin

Haur eskola zabalik mantendu ahal izateko gutxieneko haur kopurua da. Udalak eta bertako hezitzaileek aurten "esfortzu berezia" egin behar izan dute Antzuolak zentroa irekita mantendu ahal izateko. "Bereziki garrantzitsutzat" jo dute

Jone Olabarria ANTZUOLA

Astelehenean hasi zuten ikasturte berria Antzuolako haur eskolan. Koronabirusak baldintzatutako urtea izateaz gain, ikasturtea martxan jartzeko zailtasunak izan dituzte. Izan ere, 2020-2021 ikasturtean, oraingoz, hiru haur daude matrikulatuta, eta horixe da, hain zuzen ere, haur eskola zabalik mantentzeko gutxieneko ikasle kopurua.

Elkarlanean egindakoa

Aurrematrikula sasoi konfinamenduarekin batera etorri zela azaldu du haur eskolako hezitzaile Vanessa Tamayok, eta orduan bi umek baino ez zuten izena eman ikasturte berriko. Egoera hartan, eta ikasturte berriari haur eskola itxita egoteko arriskuarekin, Udalarekin batzea erabaki zuten. Elkarlanean "esfortzu berezia" egin zutela azaldu dute, eta, azkenean, zalantzan zegoen beste familia antzuolar bat ere

animatu da euren haurra matrikulatzera.

Herriarentzat "ezinbestekoa"

Antzuolako alkate Beñardo Kortabarrak azaldu duenez, herriarentzat "oso garrantzitsua" da haur eskola zabalik mantentzea: "Haur eskola zerbitzua ezinbestekoa da herrian. Zenbat eta zerbitzu gehiago eskaini, orduan eta erosoagoa izango da antzuolarrentzat; bestela, zerbitzu gehiago eskaintzen dituzten alboko herrietara lekualdatzeko arriskua ere badago eta".

Antzuolako haur eskolak hiru hezitzaile finko ditu, baina, azken bi ikasturteetako ume kopurua dela eta, iaz ere hiru haurrekin hasi zuten ikasturtea,

PLAZEN %75 BETE ARTE HAURRAK MATRIKULATZEKO AUKERA EGONGO DA HAUR ESKOLAN

une honetan, bi hezitzaile daude. Hala, arreta "guztiz pertsonalizatua" dela azaldu dute.

Azken urteetako tendentzia

2005. urteko urtarrilean ireki zituen ateak herriko haur eskolak, bost umerekin. Ordutik aurrera matrikulazioak gora egin, eta 2010. urtean 20 haur zeuden matrikulatuta, eta itxarrote-zerrenda ere bazegoen. Azken urteetan, baina, behera egin du matrikulazioak, eta azken bi ikasturteetan gutxieneko kopuruarekin hasi dute ikasturtea. Hala ere, datozen hilabeteetan pare bat ikasle gehiago espero dituztela azaldu du Tamayok.

Matrikula zabalik

Guztira, 21 umerendako lekua du haur eskolak, baina COVID-19ak eraginda %75eko edukiera dago onartua. Haur eskolatik gogorarazi dute kopuru horretara iritsi arte matrikula zioa zabalik egongo dela eta edozein unetan eman daitekeela izena.

Pilotalekua eta eskolako patioa erabilgarri, txanda hartuta

Udaletik gogorarazi dute irailtik aurrera ere udal instalazioak erabilgarri daudela, txanda eskatuta

Jone Olabarria ANTZUOLA

Eusko Jaurlaritzak abuztuan indarrean ipinitako neurrietan oinarrituta, herritarrek eskaera egin beharko dute, udaletxean, eskolako patioa eta pilotalekua erabili ahal izateko.

"Segurtasuna bermatzeko"

Behin erreserba egin ostean, gehienez, hamar lagunek erabili ahal izango dute aldi berean. Udaletik jakinarazi dutenez, izen-ematea ezarri da une oro edukiera errespetatzeko helburuarekin: "Ezin gara une oro begira ibili zenbat lagun dauden batera instalazioa erabiltzen, eta segurtasuna bermatzeko ezarri dugu honako sistema hau". Patioan kirola egiteko edo pilotalekua erabili ahal izateko, txanda udaletxean, edo 943 76 62 46 telefono zenbakira deituta, hartu behar da.



Eskolako patioa. M.O.

Ur-parkea, irailak 20ra arte

Uda denboraldiari amaiera emanez, datorren aste osoan zabalik mantenduko dute parkea, eta, behin asteburua pasata, irailaren 20an itxiko dutela jakinarazi dute Antzuolako Udaletik.

'Elkano' filma gaur iluntzean ikusgai eskolako patioan

Elkano marrazki bizidunen pelikula egongo da ikusgai gaur eskolako patioan. 21:30ean hasiko da emanaldia. Sarrerak 3 eurotan eskuratu daitezke udaletxean edo bibe.me/ekitaldiak-SormenaAntzuola helbidean. Fikziozko filmak 1519an hasita Juan Sebastian Elkanok munduari bira eman zioneko konstatzen du.

Erreka garbiketa auzolanean egiteko deia hilaren 19rako

Azken urteetan egin bezala, herriko errekan eta inguruan dauden zikinak auzolanean garbitzeko dei egin du Antzuolako Udalak datorren asteko zapatu-rako, irailak 19. Goizean zehar egingo dute; hain zuzen, 09:00etarako egin dute hitzordua, eta, jakinarazi dutenez, aurretik izena eman beharko da udaletxean edo bertara deituta.

MUJIKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



San Roke kalean gora, bidaiatzeko maletarekin. L.Z.L.

Aurten, udatiar gutxiago eta egonaldi motzagoak

Barrenengan langileak izan dituzte ostatu hartuta, eta aurten ez dute udatiarrik hartu. Eguzkitzan ere ostatu hartutako langileei esker egin dute aurrera; izan ere, "oso uda txepela" izan dute. Maialden %85eko okupazioa izan dute abuztuan

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Itxialdiaren eta udaberriko neurri berezien ostean ziurgabetasun handiarekin eman zioten hasiera udako kanpainari Elgetako ostalariek. Protokolo bereziak, desinfekzio lan gehigarriak... Azkenean, ostatu hartutako langileekin salbatu dute kanpaina, gehienbat.

Eguzkitza landa-etxeko Mari Carmen Osak adierazi du oso uda txepela izan dela. "Nirean asko sumatu da koronabirusaren eragina. Oso jende gutxi ibili da, oso gutxi. Beste uda batzuetan ailegatu ezin ibili izan naiz, eta aurten oso eskas. Eskerrak langileak eduki ditudala!". Madril, Katalunia eta Leon aldeko udatiarrak izan dira Eguzkitzan, baina atzerritarrik ez dela batere etorri azaldu du Osak. "Frantses batzuek deitu zuten, baina prezioa jaitea nahi zuten, eta oso merke eskatzen zuten. Horrela ezin da lanik egin. Ohiko garbiketa lanei desinfekzio lanak gehitu zaizkie aurten, eta

prezio batetik behera ez du mezezi. Lan handia da eta beldurra ere izan dut. Neronek ere badit 66 urte".

Barrenengua nekazaritza-turismoan langileak soilik hartu dituzte uda honetan, eta turistek dagokienez txanda-pasa egitea erabaki dute. "Ondo joan zaigu. Langile batzuk beharrez izan dira abuztuan, eta haiekin egin dugu lan", azaldu du Maite Sadak. Udatiarren dei batzuk jaso dituztela esan du. "Izan ditugu, baina lekuri ez genuenez ez dugu inor hartu".

Maialden atzerritarrik ez aurten Maialde landa-etxean ere ezohikoa izan da udako kanpaina. "Lan egin dugu, eta ezin gara

ESTATU MAILAKO UDATIARRAK ETORRI DIRA OPORRETAN; ATZERRITARRIK EZ DA BAT ERE IKUSI

kexatu, baina ez da beste urteetan moduan izan", adierazi du Jesus Kalboetxeagak. "Jendea ibili da eta esango nuke uztailean abuztuan baino hobeto egin dugula lan. Abuztuan, normalean, bete egiten dugu, eta aurten okupazio maila %85 ingurukoa izan da", azaldu du.

Estatu mailako jendea izan dutela azaldu du, eta atzerritarrik ez dela batere etorri. "Beste urte batzuetan Belgikatik, Frantziatik, Alemaniatik... etorri izan dira bezeroak, baina aurten ez. Gero, gertatu da bezeroek ez dituztela egonaldi osoak egin. Esaterako, bost bat egunerako erreserbak egin dituzte, baina lehenago joan dira. Bi edo hiru egun pasata, eta, normalean, hori abuztuan ez da gertatzen. Beldurra sumatu dugu bezero batzuen artean. Egoera ez da disfrutatzeko modukoa izan, eta udatiarrak ez dira gustura ibili. Jendea oporretan etorri da, baina sentsazioa izan du akaso ez zuela etorri behar".



Adrian Gorostiza eta Mikel Beretxinaga, autoan. ANDER ZELAIA

Auto-gidari elgetarrak, bihar, Aramaioko rallysprintean

Lasterketa gutxi jokatu dira aurten, eta Gernikako lasterketarako autoa probatzera joango dira Aramaiora

L.Z.L. ELGETA

Zapatuan jokatu den Aramaio rallysprintean izango dira Mikel Beretxinaga eta Adrian Gorostiza. Urte eskasa izan da auto lasterketen munduan. "Proba gehienak bertan behera gelditu dira. Bi rallysprint eta bi rally jokatu dira. Rallytara ezin izan dugu joan, baina Gabiriako rallysprinta jokatu genuen".

Proban, arazo mekaniko bat izan zuten autoan. "Aldaketa batzuk egin ditugu arazo hori konpontzeko eta Aramaion autoa probatu nahi dugu Gernikako proba serio lehiatzeko".

Lasterketa gosez

Aramaioko proba urteko rallysprint politenetakoa dela uste du Beretxinagak. "Jende gehien pilotzen denetakoa da, eta antolatzaileek nahikoa lan izan dute kontu horrekin. Normalean, oso leku gutxi izaten dute asistentziak eta horrelakoak egiteko. Ikusiko dugu aurten zelan moldatzen diren".

Elgetan badaude pilotu gehiago. "Gu bakarrik joango gara Aramaiora. Asierrek autoa ondo bukatu barik dauka, eta, kopa seniorik ez egotera, Oskarrek hurrengo urterako laga du".

GORA ETA BEHERA



L.Z.L.

Txakur-gorotz gehiegi inguruetan

Koronabirusak gauza asko aldatu ditu, baina txakur-gorotzekin dagoen arazoa ez, antza. Maala parkean haur pilaketak saihesteko ipinitako kartelaren azpian hori agertu da.

Elgetako ariguneak identifikatzeko lanean

'Ahobizi' edo 'belarriprest' izan zitekeen aurreko Euskaraldia. Aurten, euskaraz lasai hitz egiteko ariguneak ere izango dira. Zenbat daude Elgetan? Herriko enpresek, elkarteek, taldeek eta merkatariek eskuragarri dute informazioa

Goiena komunitatea

Euskaraldia batzordea / ELGETA

Ate joka dugu Euskaraldiaren bigarren edizioa, eta laster emango diogu hasiera norbanakoen izen-emateari. Iaz, mordoxka izan ziren parte hartu zuten elgetarrak: 220 *ahobizi* eta 42 *belarriprest*, hain zuzen ere.

Aurten, azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo da Euskaraldia. Irailaren 24an zabalduko da norbanakoen izen-ematea, eta, ondotik, txapak banatuko ditugu parte hartzaileen artean.

Bestelako erronkak ere badaukartza, ordea, Euskaraldiak. Pauso berriak eman behar dira eta herriko ariguneak identi-



Ahobizi eta Belarriprest panpinak, Elgetan. L.Z.L.

katu behar dira. Herriko batzordean lan horretan dihardugu.

Zer da arigune bat?

Euskaraz lasai aritzeko espazioak edo taldeak dira ariguneak, eta bertako kide guztiek ulertu behar dute euskara. Mota guztietako entitateak izan daitezke: erakunde publikoak, gizarte eragileak, enpresak, kultur eta kirol taldeak, elkarteak, merkataria... Ariguneen proposamenari buruzko informazio guztia Euskaraldiaren webgunean dago ikusgai. Jasota dago, baita ere, entitate parte hartzaileek egin beharreko ibilbidea.

Ariguneen izen-ematea zabalik da eta hilaren 27an itxiko dute. Izena emateko, formulario bat bete behar da, eta ariguneak identifikatzeko tresna eta jarraibideak jasotzen ditu, entitate eskatzaileak baldintzak betetzen dituen edo ez jakiteko.

Euskaraldia batzordetik hasita gaude gonbidapen gutunak bidaltzen. Jasotzen ez baduzu eta informazioa nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan: elgeta@euskaraldia.eus helbide elektronikoaren bitartez.

Xalbadorpeko kideek urteko kuota ordaintzeko eguna

Elgetako Xalbadorpe erretiratuen elkarteko zuzendaritzako kideek jakinarazi dute asteon ipiniko dutela urteko kuota kobratzeko mahaia. Hala, urteko kuota eskudirutan ordaintzeko aukera izango dute bertan bazkideek. Mahaia Ozkarbi elkartearen egoitza izango da, domekan, hilak 13. Orduetgia izango da 11:00etatik 13:00etara.

OHARRAK

Musika eskolak

Astelehenean hasiko dute ikasturtea musika gelan. Orduen antolaketa asteon egin dute. Interesatu gehiago badago, bertara jo behar du.

Ipuinen ordua

Ikasturte honen ingurukoak aztertzeke kontalariendako batzarra, eguenean. 18:30ean izango da, liburutegian.



'AUPA ETXEBESTE!' ETA 'HANDIA', EUSKAL ZINEMAREN BI MUGARRI

'GOIENA: 20 URTE, 20 ALBISTE' ERREPORTAJE-SORTA

GOIENA TELEBISTA

IRAILAREN 11N, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

goiena
20 URTE ZUEKIN



Astelehen eguerdian Oñatiko plazan egindako elkarretaratzea. O.E.

Osasuna bermatzea eskatu dute erretiratuek

Pentsio "publikoak eta duinak" izateko aldarrikapenekin jarraituko dutela esan dute Oñatiko pentsiodunek ikasturte berriko lehen elkarretaratzean, baina osasun egoerak ere asko kezkatzen dituela gaineratu dute, eta osasuna bermatzea eskatu

Oihana Elortza OÑATI

Udako etenaldiaren ondoren, erretiratuak berriz hasi dira kalera atera eta elkarretaratzeak egiten; astelehenetan, 12:00etan, ohi duten moduan. Osasunak kezkatzen ditu, hori bermatu eta zaindu gura dute; hala, euren aldarrikapenekin jarraituko dute. 1.080 euroko pentsioaren eskaerarekin, besteak beste.

Zaharren egoitzetako egoera

Pentsiodunendako, pandemiak, langile, emakume eta gazteentzat bezala, aurpegi tragiko bikoitza du: "Gaixotasunaren eta pobrezia-aren aurpegia". Pentsioen eskaerari eusten dioten arren, osasun arloan dagoen krisia ez dute ahaztu gura, batez ere pertsona nagusien egoitzetako egoera ikusita. "Pentsio publikoen aldeko aldarrikapena egiten dugu, lege laborala ezabatzea ere bai. Baina kontziente gara pandemia honekin osasun egoerak garrantzi handia duela. COVID-19ak egoiliarren egoi-

tzetara ekarri duena triskantza izan da", esan zuen Oñatiko Pentsiodunak taldeko Xabier Oregik asteleheneko elkarretaratzearen ostean.

Aldarrikatzen jarraitzeko asmoa

Duela bi urte eta erdi hasi ziren mobilizazioekin; egun, hego Euskal Herriko 70 bat herritan egiten dituzte. Eta egindakoak ez direla alferrik izan gogoratu gura izan dute Oñatin, eta gehiago lortzeko kalera ateratzen jarraitu behar dutela azpimarratu. "Mobilizazio hauekin lortu dugu, esaterako, %0,25etik %1,7ra igotzea pentsioa, faktore iraunkorrak 2023ra atzeratzea eta alargunen kotizazio mugak igotzea. Egoera zailean gaude

**ASTELEHENETAN
EGINGO DITUZTE
ELKARRETARATZEAK,
HERRIKO PLAZAN,
12:00ETAN**

orain, gaitzak ekarri duen krisi ekonomikoa handia da, baina geure eskaerarekin jarraituko dugu", dio Oregik.

Gobernu berriari eskaera

Gobernatzen duenak gobernatu, pentsio publikoak defendatuko dituztela diote pentsiodunek eta eratu berri den EAEko Gobernuari bi eskari egin dizkiote: "Batetik, zaharren egoitzetan bitarteko guztiak jartzeko, pertsonalean zein ratiotan. Oñatin, esaterako, 80 egoiliar baino gehiago daude eta gauetan bi zaintzaile baino ez daude. Bestalde, borondate politikoa izateko. Egia da Madrilen hartzen dituztela erabaki gehienak, baina euskal Gobernuak ere egin dezake zerbait. AHTaren lanak egiteko aurreratu zuten dirua, adibidez, eta uste dugu zentzu horretan egin ditzakeela urratsak". Oregik baieztatu du datozen asteetan astelehenero elkartuko direla plazan, hartu beharreko neurriak hartuta.

Antzerki eta musika taldeak lotzen hasita dago Udala


Asmoa da irailaren 19tik urriaren erdi ingurura bitarteko kultura agenda osatzea, herritar guztiak kontuan hartuta

O.E. OÑATI

San Migel eta Errosarixo jaiak ospatzeko pilotzen diren ekitaldiak aurreko eta ondorengo asteburuetan egitea izan da Udalaren proposamena. Herri eragileekin egindako martitzeneko bilera irekian ondo ikusi zuten ideia hori, eta horrela egingo dute.

Txosna batzordeak, berea

Udalaren asmoa da irailaren 19tik urriaren erdi ingurura bitarteko kultura eskaintza osatzea, herritar guztiendako moduko ekitaldiak antolatuz, aniztasuna, hizkuntza, bideragarritasuna eta beste puntu batzuk kontuan hartuta. "Uste dut ez dugula arazo larririk izango taldeak ekartzeko, nahiko geldi dago-eta kultura agenda, orokorrean. Atzo, eguena, hasi ginen kontratazioak lotzen", dio Kul-



Musika banda Lazarragan. GOIENA

tura zinegotziak. Txosna batzordeak badu bere egitaraua osatzeko asmoa, eta Udalarekin batera adostuko ditu ekintza horiek. Aste honetakoa izan da jaien inguruan egindako azken bilera, eta Udalaren esku gelditu da agenda osatzea.

Euskara ikastaroak ostalari, dendari eta zaintzaileendako

Zaintza arloan eta ostalaritza zein merkataritza arloetan lanean diharduten pertsonen zuzendutako ikastaroak antolatu ditu Udal Euskaltegiak. Euskararik ez dakitenei edo oso gutxi dakitenei zuzendutako ikastaroak dira, eta oinarritzeko ahozko komunikazioa lantzea eta euren laneko egoera arruntetarako hizkuntza-oinarriak ikastea

izango da helburua. Urritik ekainera izango dira, astean bost orduko erritmoan, eta doakoak. Udalak finantzatutako ikastaro hauetan izena emateko baldintza bakarra da sektore horietan lan egitea. Izena euskaltegian bertan eman behar da eta hilaren 18a da horretarako azken eguna.

Udako oporren ostean, Udal Euskaltegia martxan da berriz ere, C1 maila prestatzeko talde batekin. Edozein mailatan izena emateko matrikulazio epea irailaren 18ra arte dago zabalik.

Udaberriko eta udako azoka egingo dute gaur eta bihar

Deskontuak eta eskaintza bereziak izango dituzte gaur eta bihar goizean Txandako dendetan; udaberriko eta udako azoka izango da. Bi egunotan saltokiak kalera aterako dira, udaberriko eta udako produktuak prezio oso murriztuetan saltoki aurrean eskaintzeko: arropa, oinetakoak, lentzeria, bizikletak, osagarriak eta haurrendako moda, adibidez.

OHARRAK

Odol ateratzea

Ekaineko odol ateratzea egingo dute gaur, egubakoitza. Aurrez zita egin dutenek bakarrik emango dute odola.

Yoga ikastaroa

Yoga ezagutzeko hastapen ikastaroa eskainiko du Santana Dharma eskolak irailaren 14tik 17ra eta 21etik 24ra. Informazioa: yogaonati@gmail.com edo 610 95 37 94.

Turista kopurua erdira jaitsi da aurtengo udan

Herriko ostatueta egin dituzten egonaldiak ere normalean baino laburragoak izan dira eta etorri diren gehienek gurago izan dute naturaz eta inguruneaz gozatu eraikinak barrutik bisitatu baino. Euskal herritarrak izan dira etorri diren gehienak

Oihana Elortza OÑATI

Turismoaren sektorean diharduten herriko zerbitzuek bazuten beldur apur bat, aurtengo uda ezohikoa izango zela ikusten zelako. Eta horrela izan da. Aurteko urteekin konparatuta askoz bisitari gutxiago etorri dira kanpotik, eta hori igarri dute herriko taberna eta ostatu askok. Aldiz, elikagaiak saltzen dituzten dendetan herritar gehiago ibili da erosketak egiten.

Erdiak baino gutxiago

Datuei eurei begiratuta ikusten da, adibidez, Turismo Bulegoan joan den urteko udan baino %51 bisitari gutxiago izan dituztela aurten; 5.479 turista iaz eta 2.682 aurten. Txokolateixan egindako bisita gidatuak 368 baino ez dira izan, iaz baino %78 gutxiago. Arrikruzeko Kobetan %38,5 gutxiago sartu dira, 2.661 guztira. "Egoera honek neurri bereziak hartzera behartu gaitu eta Txokolateixako eta Arrikruzeko edukierak, esaterako, dezen-

te txikiagoak izan dira. Herriko bisitetan ere talde txikiagoak ibili dira. Bestalde, autobusak, taldeak eta agentzia bidaiarik ez da egon aurten eta hori ere nabaritu da", dio Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziako udal teknikariak, Ikerne Altubek.

Euskal herritarrak

Aurten, gainera, herrira etorri diren gehienek naturaz, herriko inguruneaz, gozatzeko aprobetxatu dute egonaldia. Barruko eraikinak bisitatu ordez kanpoan ibiltzea aukeratu dute; Turismo Bulegoko gidariak, esaterako, 350 bisita gidatu baino ez dituzte egin. Hor ere ikusi da aldaketa.

Baita turisten jatorrian ere. Aurten, atzerritar gutxi etorri


HERRIKO JANARI DENDETAN NABARITU DUTE OHIKO UDA BATEAN BAINO JENDE GEHIAGO IBILI DELA

dira Oñatira; bisitarien %7 baino ez dira izan, etorri ohi diren kopuruaren erdia, gutxi gorabehera. Portzentaje absolutuetan kataluniarrak mantendu egin dira, baina aurtengo udan hego euskal herritarrak izan dira nagusi bisitarien artean. "Taldea txikietan, familiar etorri dira gehienak. Asko, gainera, egun-pasa. Ostatu hartu dutenek, berriz, normalean baino egonaldi laburragoak egin dituzte, salbuespenak egon diren arren", azaldu du Altubek. Arantzazu hotela eta aterpetxea itxita egon dira eta 352 ohetik 110 ez dira erabilgarri egon. Autokarabana gunean, berriz, mugimendu handia egon da uda osoan.

Aldaketa honek eragin zuzena izan du herriko ostatu eta jatetxeetan, esaterako. Datu bat aipatuta, joan den urteko uztailean, adibidez, 40 langile aritu ziren zerbitzu horietan lanean; aurten, 24. Aurrera begira jarri dira orain.




Hiru bisitari herriko plazari begira irailako lehen astean. O.E.



BETIRTZE IÑURRITEGI
KALEZARRA KAFETEGIA

"Konturatu naiz ogia eroatera, adibidez, jende asko etorri dela, baina gero kalean ez dela horrenbeste jende ikusi. Eguna kanpoan pasatzeko planak egin dituzte, agian. Jakiak saltzen dituzten dendetan igarri dute aurreko udan baino gehiago ibili direla herritarrak".



MARGARI BASTARRIKI
IZARRAITZ TABERNA

"Uztailean uste baino turista gehiago ibili ziren, baina abuztuan ez da inor ibili. Kanpotik jende gutxi etorri da aurten. Uste dut ez nagoela keatzeko moduan, baina uda ezberdina izan da, bai. Lehen baino lan bikoitza egiten dugu erdia jasotzeko".



EDURNE GOROSTIDI
ZUMELTZEGI DORREA OST.

"Atzerriko jendea oso gutxi etorri da aurten. Katalanak, aldiz, asko. Gainera, egonaldiak aurreko urteetakoak baino luzeagoak izan dira; hamar gau artekoak batzuk. Pozik gaude. Jatetxea ere bete egin da egunero; bertako eta inguruko herrietako jendea etorri da".



NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE

'Arantzazuko SOS'

500 urte eta gehiago badira Arantzazuko amildegi eta harkaitzetik Berri Ona etorri zela. Ordura arte etsai zirenak, Garibaik esan zuen modura, harriak elkarrekin zulatzen bidea egin zuten, Amarengana herri osoa igo zedin.

Aste honetan bete dira 70 urte Arantzazu berria eraikitzen hasi zenetik. Eraikin hura Eliza barnean zegoen –eta dagoen– tira-bira baten adierazpen nabarmena izan zen. Frantziskotarrek egindako apustua eta arte modernoaren izengoitiak fedeari egindako eronka denen bistan daude.

Elorriarenpean bizi direnak, etorkizuna galdu gabe, aurrera egiteko pausoak ematen hasiak dira. Ez Elizatik, ez herritarren aldetik, ez dut uste frantziskotarrek merezi duten esker ona jaso dutenik. Errodrigotxok egindako galderari buelta emanez, zuk, Arantzazun, zer? Erantzun jatorrak emanez gero, ez al genuke fraide horiek egindakoari gure atxikimendua adieraziko? Arantzazurako joera eutsi eta indartu, "Arantzazuko lagun" egin eta Arantzazuko ekintza ezberdinetan parte hartzea dira, besteen artean, gure egitekoak.

Hikalaguna egitasmoa martxan jarriko dute berriz

Konfinamenduak eten egin zuen arrakastaz hasitako Hikalaguna proiektua, baina orain berriz martxan jartzeko asmoa dute. Bilera egingo dute horretarako hilaren 18an, berdura plazan, 18:00etan. Hika ikasi eta praktikatu gura duen edonor batu daiteke taldera; ez dago adin mugarik. Abendura arteko txanda izango da.



Ganbara Faktoriako kide Xabier Mugarza, Aitor Biain eta Aitor Garitano martitzeneko prentsaurrekoan. O.E.

Egokitutako ikasturtea hasiko du Ganbararak

Ganbara eta Hots abesbatzek eta kantu eskolako gazteek parte hartuko duten 'Argia eta iluna' kontzertua prestatuko dute abendurako. Ekainera bitarteko agenda prest dute, herrian eta herritik kanpo egingo dituzte emanaldiekin

Oihana Elortza OÑATI

Kultura segurua dela garbi dute Ganbara Faktoriako kideek, eta, protokolo zehatza jarraituz, prest dira ikasturtea hasteko. *Ikastetxeak kantari* proiektua izango da, oraingoz, martxan jarriko ez den egitasmo bakarra. Gainerakoek, Ganbara eta Hots abesbatzek eta kantu eskolak ikasturteari ekingo diote hila-bete honetan bertan.

Aurrez aurreko saioak

Ganbara eta Hots abesbatzek Santa Anan egiten dituzte entseguak orain, baina kantu eskolako neska-mutikoen Ganbararak Errekalde auzoan duen lokalean egingo dituzte. Aurrez aurrekoak izango dira saioak, hori lehenetsiko dute, baina etxean tokatu beharra izanez gero handik ere entseguak jarraitu ahal izateko, *streaming* bidez emango dituzte. "Inoiz baino ilusio handiagoarekin, ekintza askorekin eta gogo handiarekin hasiko dugu ikasturtea.

Eta horrela amaituko dugu, pandemiak uzten badigu", dio Aitor Biain zuzendariak.

Abenduko emanaldia

Ganbara abesbatzak, esaterako, MÜren ikasturtearen irekiera ekitaldian hartuko du parte, Eskoriatzako Huhezi fakultatean, hilaren 18an. Horixe izango da ikasturteko lehen ekitaldia. Ekainera bitartean ekitaldi gehiago ere egingo dituzte, herrian zein herritik kanpo. Aurtentzen, esaterako, Grand Prix zirkuarekin barruan oraindik inoiz abestu ez duten Varnako (Bulgaria) nazioarteko txapelketan kantatuko dute, maiatzean. Udan, berriz, euskal tradizioak oinarri izango dituen *Erraiak* emanaldia

KANTU ESKOLAKOEN ENTSEGUAK AURREZ AURREKOAK DIRA, BAINA 'STREAMING'-EZ EMANGO DITUZTE

egingo du, Oñatin. Hots abesbatzakoak izango dituzte ondoan kontzertu horretan. Abesbatza horrek, gainera, *Oroimenean* diskoa kaleratuko du urtea amaitu aurretik, eta Mirandako lehia-keta batean parte hartzeko asmoa ere badu, udaberriean.

Aurtengo emanaldi garrantzitsuenetako bat, baina, abendurako egongo da prest. Hiru taldeek hartuko dute parte: Ganbara eta Hots abesbatzek eta kantu eskolako gazteek. "Horiek, gainera, kaleko bizitza ezkutuari buruzko musikal bat egingo dute", aurreratu du Biainek. Bazkideendako egin ohi izan duten kontzertua maiatzerako dute aurreikusita.

Kantuan ikasiz, entzunez, eginenez, hazi da ikasturte berrirako Ganbara Faktoriak aukeratu duen leloa, eta kantu eskolako izen-ematea zabalik dute; 3 urtetik batxilergo mailako gazteendako. Online bakarrik eman daiteke izena, eta horretarako azken eguna irailaren 12a da.

Mundua birsortzeko ahaleginak eginez hasiko da lanean Irazan

Urrian hasiko dira Lehen Hezkuntzako umeendako antzerki eskolak ematen, martitzenetan, Eltzian

O.E. OÑATI

Irazan antzerki-guneak urrian hasiko du ikasturte berria. "Bizi dugun egoera honek gauza asko eragin dizkigu barruan. Uste dugu osagai asko daudela barrutik atera eta mundu berri bat irudikatzen, eta antzerkia barrua askatzeko eta eragiteko tresna oso egokia da", dio Irazaneko Josu Zubiak. Urrian hasiko dituzte Lehen Hezkuntzako umeendako antzerki eskolak, martitzenetan, Eltzian. Izena eman behar da irazan.eskola@gmail.com helbidera mezua bidalita.

Kulturaz jarduteko unea

Irazan jende barik ez dela ezer dio Zubiak, eta euren gogoia jendea joatea dela: "Lotsak alde batera utzi eta lagunaren artean ondo pasatzera eta sortzera. Kode batzuk ulertzen laguntzen digu

antzerkiak: begiraden garrantzia, denborak, gorpuzkerak... eta emozioak askatzeko eta emozioetatik sortzeko ere balekoa da". Momentu hau, gainera, aproposa ikusten du istorioak sortzeko. Egoera honek sentimendu asko azalera dituela uste du Zubiak, eta dio "emozioetik" egin gura dutela kultura.

Horrekin batera, kulturaz berba egiteko garai aproposa dela uste du Zubiak: "Programazioari ematen zaio garrantzia, ohol-tza gainean egiten diren ikus-kizunei, baina are garrantzi handiagoa du ikusten ez denak, eta hori zaindu behar dela iruditzen zait. Gai horri ez diogu heltzen, eta, agian, orain da momentua horretarako. Gaineratu du maskarak ez direla oztopo izango antzerkirako, moldatuko direla: "Ez dugu aktore maskaradunik irudikatzen".

Eskubaloia "indartzeko" da presidentegai Mikel Mantxola

Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko presidente izateko aurkeztu da oñatiarra; 25ean dira hauteskundeak

O.E. OÑATI

Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko presidente izateko hautagai aurkeztu du bere burua eskubaloian eskarmentu handia duen Mikel Mantxola oñatiarra. Bi hautagaitza daude eta bakoitza duen proiektuen artean aukeratu behar dute elkarteek irailaren 25ean Anoetan egingo den hauteskunde ekitaldian.

29 elkarte Gipuzkoan


Gipuzkoako eskubaloia "indartu" gura duelako erabaki du Mantxolak kargura aurkeztea: "Federazio barruan zatituta daude gauza asko. Lehendik datozen kontuak dira, hainbat arlotan ez dago batasunik; elkarrean eta epaileen artean, esaterako. Zatiketa hori ikusi egiten da, nabarmena da, eta eskubaloiarri indarra emateko ezberdintasun horiek gaintu eta bateratu



Mikel Mantxola. M.M.

egin behar dugu. Hori da, behintzat, nik uste dudana".

Egun, 29 eskubaloi elkarte daude Gipuzkoan, eta horietatik 27k dute boto eskubidea. Horiek erabakiko dute presidente berria. Hautatuak hilabeteko epea izango du lehen batzarra egiteko.



16. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

**Eskerrik asko
parte hartzeagatik!**

Bidali zure argazkiak irailaren 21era arte posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07). Lehiaketaren oinarriak irakurri eta sariak ezagutzeko, sartu Goiena.eus-en.

Orain arte jasotako argazki guztiak ikusi hemen: Goiena.eus/bereziak/16-udako-argazkien-lehiaketa



AINHIZE ETA EKHI ALBAOLARA BIDEAN | Argazkia: Alaia Baseta



PIRINIOETAKO LAKUA | Argazkia: Aitziber Oianguren



ORTZIAREN MAGALEAN | Argazkia: Ander Iturbe



ARGILUNAK | Argazkia: Jose Luis Madina



ASKATASUNEAN PRESO (DONOSTIA) | Argazkia: Urko Biain



LIZTORRA ARDOTAN | Argazkia: Anton Kortabarria



RIAÑO (LEON) | Argazkia: Patricia Herrera Fernandez



"IGARO DIRA URTEAK" ENCISO (ERRIOXA) | Argazkia: Iñaki Zenitagoia



EGUZKIA POLTSIKOAN (CAP DE CREUS) | Argazkia: Martin Uriarte



LABENNE | Argazkia: Saioa Ugarteburu

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante · Jatetxea

ARRASATE BIDAIAK

BERGARA
EREIN DA JAN



Manu Diaz, aste barruan, ondo ezagutzen dituen Agorrosingo harmailetan. IBAI ZABALA

"Emakumezkoen futbolarekiko dugun ilusioa kutsatu nahi dugu"

MANU DIAZ 'GARAI BERRIAK' PLATAFORMAKO BURU

FUTBOLA Abokatua, idazlea, futbol entrenatzailea eta pare bat hilabete barru, akaso, Gipuzkoako Federazioko presidentea. GOIENaren galderak erantzun ditu Agorrosinen

X. Urzelai / M. Bikuña BERGARA

Gipuzkoako Futbol Federazioak *aire berritua* behar duela sinistuta aurkeztu zuten egubakoitzean plataforma berria Donostiako Aquariumean. Manu Diaz bergararra da presidente izateko hautagaia, eta taldearen indarra nabarmendu du.

Garai berriak da plataformaren izena. Izenak berak zuen intentzioa erakusten du.

Bai, nik uste dut baietz. 32 urtez Gipuzkoako Futbol Federazioko kudeaketa sistema berberarekin

funtzionatu du, eta hori aldatzeko lagun asko batu gara. Klub askotako ordezkariak gaude, profil profesional interesgarrietakoak, eta Federazioari norabide berri bat emateko asmoarekin gaude.

"HIRU HAMARKADAZ ERAKUNDE BAT ZUZENTZEN EGOTEA EZ DA SANOA, ALDAKETA BEHAR DA"

Egungo presidente Juan Luis Larreak urte luzez dihardu Federazioan.

Gipuzkoako klubaren artean hausnarketa prozesu bat zabaldu genuenean konturatu ginen ez zutela Federazioa bera gertu sentitzen. Uste dugu gaur egun Futbol Federazioa txapelketak antolatzea mugatzen dela eta beste behar batzuei ere erantzun behar diela Federazioak. **Zertan oinarritzen da zuen proiektua?**

Bereziki, bi euskarri ditugu. Batetik, klubak eta jokalariek

eurak erdigunean jarri nahi ditugu. Eta hor sartzen ditugu jokalariez gain entrenatzaileak, epaileak... Klubek egunerokoan ze zailtasun dituzten ikusi, emakumezkoen futbolak zer behar dituen aztertu... Horretarako, estamentu horiekin guztiekin berba egin behar da. Eta bestetik, uste dugu futbolak gizartearen aurrean beste jarrera bat izan behar duela. Izan ere, futboleko irudi negatiboak ikusten ditugunean sekulako oihartzuna izaten dute, baina, kontrara, gauza positiboak eginez aukera ederrak ematen ditu: inklusioaren ikuspuntutik, formazioan, berdintasunean, parekidetasunean...

Orain momentuan, hamazazpi lagunetatik bi dira emakumezkoak.

Halaxe da, eta bi emakumezko horiek profil profesional oso interesgarria dute, gainera. Taldea ofizial egiten dugunean, hau da, zerrenda osoa dugunean, emakumezko gehiago izango ditugu, seguru. Arlo askotako lantaldea batu dugu: finantza munduan adituak, kirol jardueran dihardutenak, klubekin hartu eman zuzena dutenak, marketin adituak... Uste dut talde oso polita dugula.

Gipuzkoako klub askotako ordezkariak dituzue; Debagoienean bergararrak nabarmentzen dira.

Bai; BKEko egungo presidente Iosu Elorza dugu, eta baita Javi Ibarra presidenteordea ere. Eta Josu Zubia aretxabaletarra ere gurekin dago. Bailaran askok ezagutzen dute Josu Zubia, talde askotan ibili delako entrenatzaile lanetan, eta oso profil interesgarria du; Zubiarekin kirol egokitan ekarpen handia egin genezakeela uste dugu.

Bergaran azken urteotan lan nabarmena egin duzue emakumezkoen futbolaren alde. Eta hau modu pertsonalean bizi izan duzu.

Bai, esango nuke erronka pertsonala dela niretzako. Bizitza osoa gizonezkoen futboleko murgilduta egon eta gero, hiru urtez egon nintzen emakumezkoen taldeko entrenatzaile, eta esperientzia hark erabat markatu ninduen. Konturatzen naiz ema-

"JOKALARIAK JARRI GURA DITUGU ERDIGUNEAN, ETA BAITA KLUBAK EURAK ERE"

kumezkoen futbolaren gainean berba egiten dudanean emozioz egiten naizela, eta ilusio hori Gipuzkoako Futbol Federazioan ikusi nahi dugu. Horretarako, Estibaliz Bajo dugu gurekin; Añorgan, Realean, Oiartzunen eta Athleticekin jokatu du eta ADEn lizentziatua da. Berak izango du emakumezkoen futbolaren ardura, baina ondoan izango nau laguntzeko.

Euskal selekzioaren gaia hor dago.

Azken urteotan nahiko epel egon gara gai horren bueltan. Konturatu behar dugu Gipuzkoako Federazioko presidentea Espainiakoa ere izan dela. Eta horrek eragin zuzena du. Guk argi daukagu: legedia eta arauak errespetatuz, euskal selekzioaren alde lan egin behar dugu nazioartean lehiatu ahal izateko. Garbi dago futboletik harago gizarte mailako gaia dela, eta politika dagoela tartean, baina hori izango da gure jarrera.

Eskola kirolaren bueltan ere ikamik egoten dira sarritan.

Aspaldidanik datorren gaia da hori. Hasteko, gure lantaldean hezitzaileak daude, heziketa fisikoan lanean dihardutenak... Hala, guk bat egiten dugu Diputazioak duen irizpidearekin. Hau da, uste dugu multikirola onuragarria dela, eta txikiekin kirol intentsiboa murriztu egin behar dela. Gainera, epe luze-rako baliagarria izango den hitzarmen bat behar dugu, urtero eskola kiroleko modeloa zalantzan jartzeak ez duelako zentzurik.

Bide batez, asteburuan azalpenak eman behar izan dituzu, sare sozialetan Athleticen zale zarella aitortu izan duzula.

Bai, eta ikusi dugu antolatutako kanpaina bat izan dela, eta badakigu nondik datorren. Gure helburua kanpaina zintzoa egitea da, eta ez dugu halako eztabaidetan sartu behar. Hala ere, uste dut oso debate pobrea dela. Gipuzkoan denok ezagutzen dugu elkar, eta jendeak badaki bizi osoan Bergarako klubaren alde lanean ibili naizela, eta Bergarak beti izan du Realarekin hitzarmena. Hala, bazkide-txartel bakarria izan dut, eta BKEkoa da. Hortik aurrera? Nire taldeak dira Aloña, Mondra, UDA, Intxurre, Antzuola, Lagun Onak, Zumaiako, Mariño, Goierri, Beasain, Tolosa, Anaitasuna... Guk horien alde egin dugu lan.

Aramaion, gasolina da birusarendako 'txertoa'

AUTOMOBILISMOA Pandemia egoeran, Azpikoracing taldeko lagunak animatu egin dira rallysprintaren 19. edizioa antolatzen. Eta pilotuek erantzun egin dute, 52 automobil batuko dira-eta irteera puntuan; segurtasun neurriak zorrotz egingo dituzte

Xabier Urzelai ARRASATE

Azpikoracing eskuderiako taldekideak animatu egin dira. Eta ez da gutxi: Euskal Herriko auto lasterketa asko eta asko COVID-19agatik bertan behera geratu diren honetan, aramaioarrek aurrerapausoa ematea erabaki dute: "Taldekideak abuztuan Aian egin zuten mendiko sariko antolatzaileekin izan ziren berbetan, eta animatu egin gintuzten. Horrekin batera, Federazioa ere gurekin hartu-emanetan egon da, eta haiek ere lasterketarekin aurrera egiteko eskatu digute, jarritako segurtasun neurriak betetzeko modukoak direla esanda, eta halaxe egin dugu aurrera", dio Eneko Uribe.

Segurtasun neurri horiek betetzeak, baina, hainbat aldaketa ekarriko ditu zapatuko hitzordura begira. Ibarren kiroldegi ingurua bakarrik erabiliko da egiaztapenak egiteko, eta, beste urte batzuetan gertatu moduan, bihar lasterketako autoak ez dituzte kalean bertan aparkatu-

ko; hau da, autoen asistentziak, orain arte Pedro Inazio Barrutia kalean egiten zirenak, Errotabarri ingurura eramango dituzte. Publikoari itxita egongo dira gune horiek eta sari ematea ere ez da publikoa izango. Ez hori bakarrik, lasterketan zehar ikusleek neurriak betetzen dituztela ziurtatuko baitute Federazioko arduradunek –zaleek maskara jantzita izan beharko dute, eta pertsonen arteko distantzia zaindu egin beharko da– eta Ertzaintzarekin segurtasuna indartu egingo da, batez ere lasterketa hasi aurretik eta ostean.

Horrekin batera, Ibarren tabernariei laguntza eskainiko zaie, elkarlanean jende pilaketak eta arau-hausteak ekiditeko:

GABIRIAKOA ETA ARAMAIOKOA IZANGO DIRA AURTENGO RALLYSPRINT BAKARRAK

"Beste neurri bat izan zitekeen tramu batetik besterako lotura saihebidetik egitea, baina hor erabaki dugu autoek Ibarra zeharkatzea; entzun dadila, sikiera, motor hotsa herri gunean", dio Uribe.

52 automobil irteera puntuan

Pilotuak lasterketa gosez dira, eta baita zaleak ere: "Lasterketa gutxi egon dira aurten –Aramaiokoa izango da Debagoienan 2020an egingo duten bakarra–, baina antolatutako apurkak oso arrakastatsuak izan dira. Aian, esaterako, oso maila oneko pilotuak batu ziren, eta auto ikusgarriak. Azken batean, urtebeteko lizentzia atera duen pilotuak lasterketetan parte hartu gura du, dirutza ordaindu duelako horretarako".

Iaz moduan, lasterketako irteera puntua Andramaixako bidegurutzean egongo da, eta Uribarrin bukatuko da, Hirubidetan. Hiru txanda izango dira, 15:00etan hasita.



Renault Clio autoa, iazko lasterketan, Gantzagako bidegurutzerara bidean. XABIER URZELAI


Espainiako Txapelketara, aurreko postuetan daudela

ATLETISMOA Arrasateko atletak euren marka pertsonalen bueltan dabilta; Madrilen dute hitzordua asteburuan

X.U. ARRASATE

COVID-19ak buruhauste galantak sortu ditu atleten egutegian, eta urteko prestakuntzan, eta, hala ere, atleta arrasatearrak euren bertsiorik onena erakusten ari dira. Berez denboraldi-aurrean murgilduta egon behar-ko lukete, uda sasoiko aire libreko denboraldia amaituta, txapelketa nagusiak jokatuta, eta poliki-poliki pista estaliko denboraldirako prestatzen. Baina ez, orain ari dira urteko hitzordua nagusiak jokatzen.

Joan den asteburuan jokatu dute, Vallehermoson (Madrid), Iberdrola Kopa –Espainiako Kluben Arteko Kopa–, eta pertikarekin Malen Ruiz de Azua (4,40) eta Istar Dapena (5,40) euren marka pertsonalen bueltan egon dira. Hala, bigarren sailkatu ziren biak. Beste horrenbeste egin zuen Eneko Ca-



Istar Dapena, Mojategin. GOIENA

rrascalek salto hirukoitzean, zilarra jantzi zuen (15,44), eta Iñigo Uribarrenek 4x100ekoan hartu zuen esku, Realarekin, zazpigarren sailkatuta. Hala, asteburuan Madrilen izango dira denak, Espainiako Txapelketa absolutuan.

ZIKLISMOA Mikel Deuna Saria egingo dute bihar Oñatin

Gaszte mailako lasterketa izango da bihar, zapatua, Oñatin –datorren astean egingo dute amateur mailako Lehendakari Txapelketakoa–. Ziklistek 100 kilometroko lasterketa izango dute aurretik –10:00etan, Unibertsitateko hiribidean–, eta Udanako, Atagoitiko eta Aztiriako gainak gaintu beharko dituzte. Helmuga 12:30 aldera izango da.



Iazko irabazlea helmugan. GOIENA

PILOTA Soraluze txapelketako finala gaur Bergaran

Gaur, 19:30ean hasita, jokatuko dute pandemiagatik martxoan atzeratu behar izan zuten finala. Hala, promesen kategorian Jorge Fernandez errioxarrak eta Unai Alberdi azpeitiarrak neurtuko dituzte indarrak. Senior mailan, berriz, Lemoako Aitor Etxebarria eta Uharteko Iker Espinal izango dira zein baino zein gehiago.



Iazko finalaren une bat. GOIENA

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

"Gai-jartzaileak nire izena esan zuenean sorpresa eta sustoa hartu nuen hasieran, baina, geroago, saioaren errepasoa egin ondoren konturatu nintzen uste baino gusturago geratu nintzela egindako lanarekin", dio Ane Zuazubiskar arrasatearrak, eta zera gaineratu du Eskoriatzako Oihana Aranak: "Aurreko astean jokaturako kanporaketan oso sentrazio txarrak izan nituen eta horregatik urduri samar joan nintzen finalera, baina saioa hasi orduko lasaitu eta eroso sentitu nintzen agertokian. Ariketa guztietan ez gura beste, baina, orokorrean, asmatzen ari nintzela sentitzen nuen".

Zarauzko Motxian Bertso Eskolak du Bertsolari Gazteen Lizardi Sariaketa antolatzeke ardura, eta, bertso eskolako Aitor Urbietaren esanetan, finaleko kartelak saio ona izango zela aurreikusten zuen: "Parte hartzaileen ibilbideari begiratuta goi mailakoa izango zela aurreikusten genuen, hala izan zirenetan kanporaketak, eta hala berretsi zuten finalista guztiek".

Hamaseitiek sei, finalera

Abuztuaren 27an eta 28an jokatu zituzten kanporaketak, Imanol Urbietaren musika eskolan. Guztira, hamasei bertsolari gonbidatu dituzte. "18 eta 25 urte bitartekoak dira, eta saiatzen gara jatorria eta generoa aintzat hartzen bertsolariak aukeratzeko orduan. Azken urteotako araua da behin irabazi ondoren ezin dutela gehiagotan parte hartu. Planteatu izan dugu dataz aldatzea, ez da bertsolariendako oso data ona, baina betidanik izan da finala Euskal Astean".

Sei bertsolari izan ziren egubakoitzean Modelo aretoan jokatu



Ane Zuazubiskar, txapela buruan, aitaitari eskainitako agur bertsoa kantatzen. ERLO TELEBISTA

Lizardi sariak, Debagoienenera

Zarauzko Motxian Bertso Eskolak Udalaren laguntzarekin antolatzen duen Bertsolari Gazteen Lizardi Sariaketaren 44. aldia jokatu zuten egubakoitzean; Ane Zuazubiskarrek eskuratu du sari nagusia eta Oihana Aranak, bigarren saria eta bertso onenarena

zuten finalean: Zuazubiskarrek eta Aranaz gain, Eneko Araiztegi, Xabat Illarregi, Aner Peritz eta Mikel Iturriotz. "Aspalditik gara bertsoakideak, nahiz eta elkarrekin kantatzeko aukera gutxi izaten dugun, gazteendako

saioretan ez bada. Oihana ere agertokian egoteak asko lagundu zidan. Bezperan bertso eskola bat egin genuen biok, eta ez ginen oso gustura geratu emaitzarekin; zorionez, finalean bestela izan zen", dio Arrasatekoak.

Aranak asko eskertu zuen agertoki gaineratik kantatzea, hankadun mikroarekin, publikoari begira; izan ere, kanporaketetan ez zuten hala egin. "Publikoaren lehenengo besaulkietan jarrita geunden, mikroa

Debagoieneko irabazleak

Eskualdeko bertsolariak Zarauzko lehiaketako saria eskuratu izan dute aurrez.

- **Jon Sarasua** 1983an jokatu zuten txapelketako sari nagusia irabazi zuen Aretxabaletakoak.
- **Ainhoa Agirreazaldegia** Elgetan jaio eta Bergarako bertso eskolan hazi zen bertsolariak birritan eskuratu zuen sari preziatua, 1995eko eta 1999ko aldietan.
- **Maidier Arregi** Oñatik Txinparta Bertso Eskolako kidearentzako izan zen iazko sari nagusia.

eskuan, eta txandaka igotzen ginen agertokira kantatzera; oso gogorra eta zaila egin zitzaidan; horregatik, finalean askoz erosoago egon nintzen".

Aitaitari eta amamari eskainita

Proposatutako gaietan pandemiak zenbateko protagonismoa izango zuen kezka zuen Zuazubiskarrek, baina ez zen hala izan. "Neurriko gaiak iruditu zitzaizkidan alde horretatik". "Denetarikoak izan ziren. Mojen koba bat okupatzea tokatu zitzaidan niri, eta lagun baten jatetxeari buruz ere bai. Bakar-kako gaia ere bitxia izan zen: *Bakezalea zara, baina gaur nobaiti muturrekoa ematea erabaki duzu*.... Kostatu zitzaidan gaia harrapatzea, eta, azkenean, burua galdu samar duen amama baten paperean sartuta alabari

SAN MARTIN JAIK

GOIENA TELEBISTA, HEMEN DEBAGOIENA SAIO BEREZIA

IRAILAREN 15EAN, MARTITZENEAN, 18.00/20.00/22.00

goiena
20 URTE ZUEKIN.





Bigarren saria eta bertso onenarena eskuratu berri, Oihana Arana kantuan. ERLO

eman nion belarrondokoa. Bertso onenaren saria *Zeren alde egingo zenuke borroka?* galderari erantzunez irabazi nuen, *neure buruaren alde* erantzunez".

Kartzelara burumakur joan zela dio Zuazubiskarrek: "Aurreko ariketan ez nintzen oso gustura geratu, baina buelta eman, eta azkeneko asteetako gogoia bete nuen *Izarren hautsa* doinuarekin abestuta". Ospitalean dagoen aititari eskaini zion agur bertsoa Arrasatekoak eta bertsoetarako zaletasuna bultzatu dion amamari, eskoriatzarrak.

"ESKERTZEKO DA ANTOLATZAILEEK SARIKETAREKIN AURRERA EGITEA"

ANE ZUAZUBISKAR, BERTSOLARIA

"BERTSOLARI GAZTEENDAKO ERREFERENTZIAZKO LEHIAKETA DA"

OIHANA ARANA, BERTSOLARIA

Bertso eskoletan, ateak zabalik

Urrian dute bertso eskolek ikasturtea hasteko asmoa. "LHko eta DBHko mailetan bertsoleak ikasgai izango da ikastetxeetan, eta bertso eskoletarako zubi-lana egiten da horietan. Izen ematea zabalik dago, Gipuzkoa@bertsozalea.eus helbidera idatzita egin daiteke bertso eskoletan parte hartzeko eskaria", dio Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen koordinatzaile Eneritz Artetxek.

Orain, ez dago zehaztuta Debagoienean zenbat talde egongo diren; asmoa da iazko eskaintza bera egitea. "Bergaran, Jardunen bitartez, haurren eta helduen talde bana izan ziren iaz; Antzuolan, haurren talde bat; adin guztietarako eskaintza Oñatiko Txinparta Bertso Eskolan; Arrasaten iaz gazteen eta helduen talde bana egon zen; eta Aretxabaletan haurrena sortzeko saiakera egingo dugu".

Narrazioak, Karmele Igartua sariketarako

Irailaren 30a da lanak bidaltzeko azken eguna; oinarriak eta informazioa, 'Idazten.com' atarian

A. Aranburuzabala ARETXABALETA Aretxabaletako Udalak eta Bergarako Eskolak elkarrekin bosgarrenez antolatu dute eta hamargarren beka deialdia da aurtengoa. Karmele Igartua irakasle eta idazle aretxabaletarra gogoan bultzatutako egitasmoa da, bereziki, sorkuntza sustatzea helburu duena.

Ibilbidean zehar hainbat genero landu izan dituzte; horien artean, poesia, antzerkia eta narrazioa. Aurten, iaz moduan, narrazioak jasotzeko proposamena egin dute.

Parte hartzeko oinarriak

Euskaraz sortutako idazlanak izan behar dute, eta ez dute itzulpenik onartuko. 16 urtetik gorako edonork har dezake parte lehiaketan, eta narrazio bakarra edo narrazio bildumak aurkez daitezke aukeran. Lanen luzerak hamar eta hamabost orri bitartekoa izan behar du.

Idazten.com atarian daude aurtengo deialdiaren oinarriak eta baita aurreko aldiaren lanak ere eskuragarri.

Dirua eta ikastarorako aukera

Orain arteko aldiaren moduan, 2.500 euroko saria jasoko da irabazleak, eta, horrez gainera, 2020ko Idazle Eskolako edozein modulutan parte hartzeko aukera izango du, inolako matrikularik ordaindu gabe. Era berean, Bergarako Idazle Eskolaren atari digitalean *-Idazten.com-* argitaratuko dute irabazlearen lana. Bekaren deitzaileek gaineratu dute idazlearenak izango direla egile eskubideak urtebete pasa ondoren. Mikel Gartziairenen *Harra* ipuina izan zen iazko irabazlea.

Posta elektronikoz *-kultura@aretxabaleta.eus-* edo posta arruntez *-Otalora kalea 1, 20550 Aretxabaleta-* bidal daitezke lanak, eta irailaren 30a da azken eguna.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko iraileko sariak!



'Arkada Social' eta 'En Tol Sarmiento' taldeen CDak
Parte hartzeko sariaren izena: CD

Sarrerak

Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

ARRIKRUTZ
ONATIKO O D A K

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indibidualek 150000 lekuak dira jabeak diren lekuak dituzten pertsonak. Goiena Klubeko Zuzendaritza Berrak zuzendatzen duen taldeak da. Goiena Klubeko helburuak eta indibidualek zuzendatzen dituzten taldeak ez dira bereak. Goiena Klubeko helburuak eta indibidualek zuzendatzen dituzten taldeak ez dira bereak.

Irabazi bi lagunendako otordua

TABERNA BERRI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



ESKAITZA BEREZIA!

Irailtik abendura bazkideak: 30€
Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Baserría salgai Leintz-Gatzagan. Baserría eta inguruko lur-sailak salgai Leintz-Gatzagan. Paraje zoragarrian eta herrigunetik oso gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 669 292 938

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Etxebizitza behar dugu errentan, hiru logelakoa. Telefonoa: 638 85 43 36

